

ELKARREKIN ERABAKI, HOBEBE KUDEATZEKO

Naturagune babestuak herritarren parte-hartzearen bidez
planifikatzeko eskuliburua



ELKARREKIN ERABAKI, HOBEBE KUDEATZEKO

Naturagune babestuak herritarren parte-hartzearen bidez
planifikatzeko eskuliburua



Santiago García Fernández-Velilla

Alberto Jiménez Luquin

Cristina Alfonso Seminario

EUSKO JAURLARITZA

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

Natura zaintzea, funtsean, ez datza
governuen plan fisikoetan,
herritarren prozesu mentaletan
baizik.

Aldo Leopold


Izenburua: Elkarrekin erabaki, hobeki kudeatzeko
Naturagune babestuak herritarren parte-hartzearen bidez planifikatzeko eskuliburua

Egileak: Santiago García Fernández-Velilla
Alberto Jiménez Luquin
Cristina Alfonso Seminario

Maketazioa: Javier Arbilla

Irudiak: Birilo

Liburuaren idazketa 2011ko abenduan bukatu da



Liburu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan
argitaratu dira: Aitortu - Ez merkatarizazako -
Lan eratorririk gabe 3.0 Unported (informazio gehiago
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)



Gaur egun, ingurumen gaiekin lotutako erakunde guztiak jakitun gara oso garrantzitsua dela gizarteak parte eta esku hartzea eremu horretan, eta bereziki natur ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzean. Aarhus hitzarmena 1998an onartu zen eta 27/2006 Legea batu zen. Hitzarmenean, ingurumen alorrean informazioa eskuratu, partaidetza publikoa izan eta auzitegiatarako jotzeko eskubideak arautzen dira. Hitzarmen hori sinatu zenetik, sailak apustu trinkoa egin du ingurumena eta biodibertsitatea kontserbatzeko, herritarren hitza kontuan izanda.

Azken urteetan, Natura 2000 sarea ezarri eta garatzeko prozesuek edo Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana berrikusteak, bereziki eta besteak beste, esperientzia osoa onak eskaini dizkigute partaidetza sozialeko prozesuri dagokienez. Prozesu horiei esker hobeto hurbildu ahal izan gara herritarrengana, eta prozesuetan parte hartu duten pertsonei gure zeregina eta betebeharra ezagutarazi. Halaber, honako xede hauek lortu dira: ardurez eta interesez hobeto jabetu, akatsetatik ikasi eta hobetzen ikastea.

Partaidetza sozialeko prozesuok ez dira sekula errazak izaten eta herritarrek, administrazioek eta gizarte erakundeek asko dugu ikasteke, partaidetza sozialeko prozesu horiek daukaten potentzial guztia lor dezaten. Azkenik, partaidetzak balio behar du erabaki hobeak hartzeko, erabaki eragingarriagoak hartzeko, gizartearen babes handiagoa dutenak, errealitatea hitzartutako norabidean aldatu eta transformatzeko.

Esku artean duzun eskuliburuak inguruabar oso desberdinetan eta talde oso heterogeneoekin metatutako esperientziaren zati handia jasotzen du. Eskuliburua bereziki dago zuzenduta bereziki babestutako eremuen eta orokorrean, ingurumen plangintzaren hitzartutako kudeaketa hobetzeko proposamen adostuak egiten dituztenei laguntzera.

Argitalpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila 2011tik Europar biodibertsitatea kontserbatzeko eta balioa emateko praktika egokien trukearen inguruko INTERREG IVC REVERSE proiektuaren ekintzen eremuan lantzen ari den ekintzetako bat da, eta bertan Eusko Jaurlaritza bazkidea da, Europako beste herri batzuetako 13 eskualde eta erakunde-rekin batera.

Gida hau zure zereginetan erabilgarria izango delakoan eta laneko helburuak lortzeko laguntza izango delakoan nago.

AURKIBIDEA

1.- GIDA HAU ZERGATIK ETA NORENTZAKO	8
Nor gara	8
Zer xede dugu gida honekin?	9
Nori zuzentzen gatzaizkio?	10
2.- ZER NOLAKO PARTE-HARTZEAZ MINTZO GARA?	11
Azaleko begirada bat legeak dioenari	11
Zertaz ari gara parte-hartzeaz mintzo garenean?	13
Herritarrek hainbat moldetan parte har dezakete	15
Gure metodologia-ikuspegia: parte-hartzearen bidez, planifikatzea	17
Nor da nor plangintza parte-hartzaileko prozesuetan?	19
3.- IKASI DITUGUN ZENBAIT GAUZA	26
Prozesuetan agertu ohi diren arazoak	26
Joko-arauak	32
Alde interesdunekiko komunikazioa	33
Parte-hartzerako tresnak: edo nola lortu jendeak informazioa bilatu, hitz egin, entzun eta erabaki dezan	36
Nola ebaluatu gauzak zuzen atera diren	42
4.- PROZESU BAT GARATZEA	44
Natura 2000 Sarerako kudeaketa-planak	44
Parte-hartze prozesu baten faseak (edo nola eta noiz eseri eztabaidatzera)	47
Plangintza parte-hartzaileko prozesu baten sekuentzia	74
Eta gero, zer?	76
5.- HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO BALIABIDEAK	78
Parte-hartze saioetarako behar diren materialen eta baliabideen zerrendak	78
Prozesu parte-hartzaileari aplikatutako zereginen kronogramaren adibidea	79
Herritarrek naturagune babestuetan parte hartzeko prozesu bat ebaluatzeko irizpideak	82
Bibliografia iruzkindua	84
Internet estekak	86

GIDA HAU ZERGATIK ETA NORENTZAKO

Nor gara

Cristina Alfonso, Santiago García eta Alberto Jiménez gara, eta, dagoeneko, urte sail ederra eman dugu herritarren parte-hartzearen kontu horretan. Hori bai, beti biodibertsitatea zaintzeari lotuta dauden gaitan, oro har, eta Natura 2000 Sarea garatzearekin lotutakoetan, zehazki. Urte horietan guztietan, jendeak parte hartzeko prozesu asko eta askotarikoak programatu, koordinatu eta dinamizatu egin ditugu, hala biodibertsitatea zaintzeko politiken plangintza estrategikoa lantzeko nola Urari buruzko Esparru Zuzentzarauari lotuta dagoen plangintza jorratzeko. Era berean, naturagune babestuak kudeatzeko tresnak edo planak idatzi ditugu; Natura 2000 Sarekoak, bereziki.

Urte sail luze horretan, bidean hainbat aldiz geldialdi bat egin dugu gure lanaz gogoeta egiteko. Zenbaitetan, desanimuak harrapatu gaituenean, haxe esan dugu: “kito, aski da, honaino iritsi gara”, eta, beste batzuetan, berriz, haxe: “tira, goazen aurrera, hurrengoan gauzak hobeki aterako zaizkigu-eta”.

Orain, 2011ko bukaeran, bizkar gainean parte-hartze prozesu franko ditugun honetan, barne-gogoeta horietako batean ari gara, eta Eusko Jaurlaritzak eskaini digun abagunea baliatzea pentsatu dugu gure esperientzia zabala partekatzeko. Gauza onak eta gauza txarrak jarri ditugu mahai gainean, gure ustez batzuk eta besteak bitarteko onak baitira ingurumen arloko plangintza-prozesuetan herritarren parte-hartzea finkatzeko eta hobetzeko.

Gaiari heldu aurretik, ordea, aukera honetaz baliatuko gara Manuel S. Martínezi, Concha Fernández de Pinedori eta ikaskuntza-bide honetan bidelagun izan dugun jende guztiari gure esker ona agertzeko. Aintzat hartu nahi dugu, halaber, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak hartu duen konpromisoa Natura 2000 Sarea kudeatzeko agiriak herritarren parte-hartzearen bidez lantzen saiatzeagatik eta, era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu gure esperientzia eta gure iritziak askatasun osoz azaltzeko aukera eskaini izanagatik.



Zer xede dugu gida honekin?

Gizartea ukitzen duten erabakiak ezin dira gizartetik kanpo hartu.

Herritarrek, izan ere, erabaki horiek nola hartzen diren jakin nahi dute, eta erabakietan ere parte hartu nahi dute. Baina, bitxia bada ere, jendeak gero eta gutxiago parte hartzen du egungo prozesu formaletan, egungo ordezkaritza-prozesuetan. Zerbaitek huts egiten du, beraz. Beharbada, iritsi da prozedura berriak bilatzeko unea; batetik, herritarrek erabakietara hurbiltze aldera eta, bestetik, kudeatzaile publikoak beren bulegoetatik aterarazte aldera, herritarrek zer iritzi duten zuzenean jakin dezaten.

Naturagune babestuetan adituak diren gizon-emakumeek jakin badakite bide bakarra dagoela kudeaketa eraginkorra izateko: hots, gune horietako jabeek, herriek eta era guztietako erabiltzaileek prozesuan parte-hartzea. Herritarrek parte hartzeko esperientzia asko, ordea, ez dira guk nahi bezain ongi ateratzen, era askotako arrazoiak tarteko. Izan ere, herritarrek parte hartzeko prozesuak, maiz, formalegiak izaten dira, eta ez dira batere eraginkorrak eta eragingarriak, eta haietan aritzen diren pertsona askok parte hartzen dute kudeatzaile publikoenganako haserrea eta mesfidantza agertzeko, ez baitute beste biderik beren iritzia emateko; eta beste pertsona askok parte hartzen dute beren interesak kosta ahala kosta babesteko, besteen iritzia entzun gabe. Eta, kudeatzaile publiko askorentzako, herritarren parte-hartzea legeak beharturik eman beharreko pauso gogaikarria da, lehenbailehen eta ahalik eta kosturik txikienarekin pasatu beharrekoa, eta, hasi aurretik, jakin badakite parte-hartzea ez dela eraginkorra izango.



Dena ez da atsekabea, ordea. Gero eta jende gehiagok uste baitu ez dagoela herritarren parte-hartzea baino modu hobearik erabaki partekatuak hartzeko eta elkarren arteko helmugetara aurrera jotzeko. Gero eta jende gehiagok uste du, halaber, herritarren parte-hartzeak erabakien kalitatea hobetzen duela, bai eta biodibertsitatea zaintzeko politika publikoen onarpena ere. Eta, era berean,

gero eta jende gehiagok uste du horrek hobetu egiten duela natur ondarea babestearen eta tokian tokiko erkidegoak ekonomikoki garatzearen arteko oreka.

Guk ere halaxe uste dugu. Esperientziak irakatsita, ordea, aski ongi dakigu ez dela batere erraza hori egitea. Herritarren parte-hartzeari buruzko eskuliburu erabilgarri hau, hortaz, eskarmentuaren emaitza da; oso inguruabar desberdinetan eta era askotako taldeekin aritu izanaren emaitza, alegia. Gidak, azken finean, laguntza eman nahi die erabakiak erkidegoan hartu nahi dituztenei naturagune babestuen kudeaketa adostua hobetzeko asmoz.

Lerrootan kontatzen duguna gizarteak eta erkidegoak parte hartzeko eredu bat da eta politika publikoak lantzeko prozesu ororentzako izan daiteke erabilgarria, bai eta, jakina, ingurumen arloko plangintza-prozesu ororentzako ere. Aplika daiteke, halaber, autonomia mailako estrategia-planetan, edo plangintza hidraulikoan, edo baso-plangintzan, nekazaritza-plangintzan, hirigintza-plangintzan, e.a. Gida honetan, ordea, adibidetzat eta haritzat hartu dugu zer pauso eman ditzakegun prozesu parte-hartzaile batean, Natura 2000 Sareko gune bat kudeatzeko plan bat lantze aldera. Natura 2000 Sareko gune horiek plangintza-mailarik zehatzenak dira naturagune babestuak planifikatzeko sistema oso baten baitan.

Gure begirada, beraz, tokiko erabakiaren mailetan pausatuko dugu. Hartara, prozesuaren faseetan sor daitezkeen arazoak aztertzeaz gain, emaitza onak eman dizkiguten iradokizunak ere plazaratuko ditugu. Era berean, hainbat agiri eta tresna gomendatuko ditugu sor dakizkizuekeen zalantzak argitzen saiatzeko.

Nori zuzentzen gatzaizkio?



Argitalpen hau, zalantzarik gabe, errazagoa litzateke, halako profil bateratu bat duen jendeari zuzenduta egongo balitz. Ingurumeneko parte-hartzea, dena den, mundu guztiari dagokio, eta horrek esan nahi du oso profil desberdinak daudela, interesak, sentsibiltateak, ezagutzak eta espektatibak oso desberdinak diren bezala.



Era askotakoak dira biodibertsitatea zaintzearen inguruan dauden arazoak. Arazo-iturri horietako gehienek gizarte-jatorri bat dute, eta iturri horietan eragile askok parte hartzen dute, bai zuzenean bai zeharka.



Horregatik saiatzen gara zuzentzen prozesu parte-hartzaile batean esku hartzen duen jende guztiari. Zuri zuzentzen gatzaizkizu...



... **zu herritarra baitzara** eta gure natur ondarea zaintzea duzu kezka-iturri; jakin nahi duzu administrazioak zer proposatzen duen eta, era berean, ideiak eman nahi dituzu, leku jakin bateko ingurumen-egoera hobetzeko.



... **biodibertsitatea zaintzeko politiken arduraduna baitzara** eta, zure lana garatzeko, zuk zerbitzatzen eta ordezkatzeko duzun erkidegoaren iritzia, beharrak eta espektatibak ezagutu nahi dituzu, ahaztu gabe biodibertsitatea eta naturagune babestuetako ondasun publikoak eta ingurumen-zerbitzuak babesteko enkargua eman dizutela.



... Naturagune babestu batean, **lurren jabea baitzara** edo, naturagune babestu batean, jarduera ekonomiko bat egiten duzu, eta zuga eragina izan dezaketen erabakien gaineko argibidea eskuratu nahi duzu, eta erabakiotan parte hartu nahi duzu, gizarteak zure jarduera aintzat har dezan, naturaguneak zaintzen laguntzeko, eta zure jarduerak errenta bat eman diezazun zure eta zure familiaren bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.



... Naturagune babestuak **erabiltzen baitituzu**, naturagune babestuetako paisaiez gozatzen duzu edota naturagune babestuek ematen dizkiguten baliabide ugarietako bat gozatzen duzu.



... Naturagune babestu bateko **teknikari kudeatzailea baitzara**, agintarien eta herritarren eskariak ase behar dituzu, eta natura zaintzeak dituen arazoak konpontzeko irtenbide onenak aurkitu behar dituzu, jakinik irtenbideak errazago onartuko direla, aurrez ulertuak, eztabaidatuak eta adostuak izan badira.



... **Naturaguneen plangintzan diharduzun teknikaria baitzara**, eta lurraldean esku hartzen dutenen errealitatea, iritzia eta motibazioa ezagutu behar dituzu, kudeaketa-tresnak errealistak izan daitezen eta helburuekin bat etor daitezen.



... **Ingurumen arloko bitartekaritza talde bateko kidea baitzara** eta herritarrek parte hartzeko prozesuak antolatu eta lan-saioak dinamizatu behar dituzu, irtenbide onenei buruzko adostasuna lortzeko asmoz, naturaguneak era hitzartuan kudeatze aldera.

ZER NOLAKO PARTE-HARTZEAZ MINTZO GARA?

Azaleko begirada bat legeak dioenari

Natura 2000 Sarea arrakastaz garatuko badugu, aipatu Sarean sarturiko naturaguneen kudeaketa arautuko duten planak eta tresnak herritarren parte-hartzean oinarrituta landu beharko ditugu. Garapen horretan, ordea, badaude hainbat oztopo, eta horietako bat da zaila izaten dela herritarren parte-hartzea egiazki gauzatzea plangintzaren hasierako urratsetatik.

Habitategi buruzko zuzentzarauak, esaterako, ez du ezer esaten zeregin horri aurre egiteko moduez. Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legea ere ez zaigu lagungarri. Ez du esaten herritarren parte-hartzearen bidez gauzatu behar direnik Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremuak kudeatzeko planak edo tresnak. Lege horrek berak, ordea, xedatzen du herritarren parte-hartzea beharrezkoa dela naturagune Babestuetako Natur Baliabideak Antolatzeako Planetarako. Halaxe dio hitzez hitz: *“derrigorrez egin beharko dira interesdunei entzuteko izapideak, informazioa jendaurrean jarriko da eta ukitzen diren interes sozialen eta instituzionalen kontsulta egingo da eta Lege honen helburuak lortzea xede duten irabazi-asmorik gabeko erakundeen interesen kontsulta ere bai”*. Lege hori idatzi zutenak, beraz, ez ziren oso fin ibili herritarren parte-hartzeari dagokionean.

Baina horrek ez du esan nahi naturagune babestuen plangintzan parte-hartzerik egin behar ez dugunik, baizik eta zer egin jakiteko, 27/2006 Legea hartu behar dugula gogoan. Lege horrek, izan ere, arautu egiten ditu informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justizian sartzeko eskubideak, ingurumeneko gaiei dagokienez. Lege horrek ingurumen arloko informazioa zabaltzeari eta eskuratzeari buruzko 2003/4/EE Zuzentzaraua hartu du kontuan, bai eta herritarrek ingurumen arloko erabakietan parte hartzeari buruzko 2003/35/EE Zuzentzaraua ere. Zuzentzari horiei esker, Europar Batasuneko legedian txertatuak gelditu ziren Batasuneko Estatuak Rio de Janeiroko Hitzarmena eta Aarhusko Hitzarmena sinatzearekin bat onartutako nazioarteko konpromisoak. Lege horrek hauxe dio hitzez hitz herritarrek erabakiak hartzeko prozesuari buruz: *“parte-hartzea, besteak beste, planak onestera zabaldu behar da eta, era berean, lege- edo erregelamendu-lerruna duten izaera orokorreko xedapenak lantzen”*. Bestela esanik: herritarren parte-hartzea derrigorrezkoa da Natura 2000 Sarea kudeatzeko planak edo tresnak landu eta onestera.


Horrenbestez, badugu jokatzen hasteko zelai on bat; arau horren arabera, izan ere, jendeak egiazki parte har dezan sustatzeko, administrazio publikoek bermatu egin behar dute herritarrek ezagutzeko, esku hartzeko eta haien iritzia kontuan hartu izateko duten eskubidea. Eta horrek esan nahi du:

- Herritarrek informazio garrantzitsua garaiz eskuratu behar dutela, eta, informazioa, guztia edo zati bat, ematen ez bada, herritarrek jakin behar dutela zergatik ez zaien eman informazio hori haiek eskatutako moduan edo formatuan.
- Herritarrek, halaber, oharrak eta iritziak emateko eskubidea dute, aukera guztiak zabalik daudenean, eta kudeaketa-planari edo -tresnari buruzko erabakiak hartu baino lehen.
- Herritarrek behar bezala hartu behar dira kontuan erabaki horiek hartzerakoan; hartara, jendeak adierazten dituen oharrak eta iritziak aztertuko dira eta, era berean, herritarren parte-hartzearen emaitzetan txertatuko dira.
- Herritarrek, azkenik, badute haien ekarpenak zergatik ez diren bere osoan edo zati batean aintzat hartu jakiteko eskubidea, halakorik gertatzen bada.

Gaur egun, herritarren parte-hartzea informazioa jendaurrean jartzera mugatzen da. Legeak agindutako eta araututako prozedurak izaten dira, baina, egia esan, informazio- eta kontsulta-prozesu horiek gutxi sakontzen dute parte-hartze aktiboan. Bada prozesu horien bidez araudia bete egiten dela uste duenik. Gure iritziz, ordea, hori araudiaren interpretazio zekena da eta ez da nahikoa jendeak egiazki parte-hartzeko dituen eskubideak bermatzeko, ezta legeak ezarritako betebeharrak betearazteko ere.

Behin batean, baten batek ipuin bat kontatu zigun:

"2214. urtea da. 3K-228 espazio-ontzi nagusiak mezu txundigarri eta kezkgarria bidali du Lur planetara. Horrela, mezuaren arabera, Planeten arteko Erakundearen 4.359/2214 ebazpenari jarraikiz, premia osoz Lur planeta jendez hustu beharra dago, planeta bera berehalako batean suntsitzeko eta "A- 6.3C edukiera handieneko izarren arteko errepidearen" proiektuari ekiteko. Lurreko ordezkariak espazio-ontzi nagusiarri esaten diote ez zekitela ezer ere, lehen albisteak izan dela, eta espazio-ontzi nagusitik erantzuten dute ebazpenak 3 hilabete eman dituela dagoeneko jendaurrean jarrita Plutongo Erregistro Publikoan eta bukatu egin dela alegazioak aurkezteko epea. Hori entzunda, Lurreko ordezkariak Planeten arteko Erakundearen Batzorde Gorenarekin hitz egiten saiatzen dira; batzordekideak, ordea, Gobernantza Globalari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Galaxiarte Mintegi batean daude. Espazio-ontzi nagusiak, bitartean, epeak bete behar ditu, proiektuari galaxiaz gaindiko izaera eman baitzaio... 10, 9, 8,... Lurreko biztanleak ahalegintzen dira Batzordean duten ordezkariarekin hitz egiten... 4,3,2,1... ¡¡¡ KRASH!!! "



Irakaspena:

Jende gehienarentzat,
"Aldizkari Ofiziala"
"Plutongo Erregistro Publikoa"
bezain gauza arrotza da eta ez da
inola ere irisgarria.

Gida honetako edukiak tradizio formalaz harantzago doaz. Edukiok, izan ere, herritarren parte-hartze benetakoago eta egiazkoago bat dute gogoan. Gida, beraz, egokia izan daiteke ohiko informazio eta kontsultarako izapide formalak osatzeko.

Zertaz ari gara parte-hartzeaz mintzo garenean?

Parte-hartzeaz mintzo garenean, honi buruz mintzo gara:

■ Komunikazioa:

Hau da, jendearen artean hitz egitea da, eta besteen ikuspegiak eta errealitateak aintzat hartzea. Elkarriketaren oinarrian informazio-trukaketa dago; informazioa norabide ugartan trukatzeko, alegia.

■ Ikaskuntza soziala eta pertsonala

Jende eta iritzi guztien errespetuan oinarrituta, erabakiekiko konpromisoa sustatu behar da; hau da, parte-hartze arduratsua.

■ Ezagutzara hurbiltzea

Ezagutzak ahalmena eman beharko liguke ingurumen arloko arazoen konponbidea baloratzeko eta ulertzeko, bai eta konponbidean esku hartzeko ere.

■ Eragina erabaki publikoetan

Errealitatearen alderdi jakin batzuk aldatzeko, eraldatzeko eta hobetzeko aukera izan dezagun.

■ Elkarren arteko proiektuak eraikitzea

Interes partikularrak kosta ahala kosta aldeztu beharrean, aukera izan beharko genuke akordioak egiteko eta erabakiak partekatzeko, desadostasunak gatazkak moldatzeko oinarria direlakoan.

Azken buruan, mintzo gara erabaki hobeak, eraginkorrak eta gizarte-babes handiagokoak hartzeko balio duen parte-hartze bati buruz, errealitatea norabide adostu batean aldatzeko eta eraldatzeko.


Hortaz, kudeatzaile publikoa zeren aldetik, zure helburua plan bat oneste hutsa baldin bada, ez sartu korapilo handitan: parte-hartzeari buruzko legedia oraindik ere ez da oso zehatza, eta, izapideari dagokionez, plana jendaurrean jartze hutsarekin konponduko duzu; zorte pixka bat izanez gero, gainera, planak ukitzen dituen pertsona gehienek ez dute horren berri izango.

Baina zure helburua plana praktikan jartzea bada, ez duzu libratzeko modurik: herritarren parte-hartzea modu bakarra baita natura zaintzeko politikek diskurtso politikotik eta Aldizkari Ofizialetik lurralderaino jauzi egin dezaten eta jendearen kezken artean eta bizitzan toki bat har dezaten. Izan ere, kultura, prestakuntza, sentsibiltate eta interes desberdineko jendea elkarrekin ari baldin bada arazo bati konponbide bat emateko, konponbide hori izango da benetan egingarria eta iraunkorra.

Horrenbestez, herritarren parte-hartze prozesu bat abian jartzeko, beharrezkoa da guztiok barneratua izatea prozesuak onura ugariak ekar ditzakeela, bai hartan parte hartzen dutenentzako, bai naturagune babestuko balio ekologikoak zaintzeko. Parte-hartzeari buruzko literatura aberatsa eta ugaria da, onurak zerrendatzerakoan. Hona hemen, besteak beste, onurarik nabarmenenak:

- Errazagoa da jakitea zer gizarte-eragile izan daitezkeen garrantzitsu planaren arrakastarako, naturagune babestuan dauden interesak aztertzeko eta, era berean, norainoko borondatea dagoen konpromiso zehatzak eta proposatutako neurriak onartzeko.

- Arazoak eraginkortasun handiagoz moldatzen laguntzen du, ingurumen arloko diagnostika hobetzen baitu, kudeatzaileei informazio gehiago eta hobea ematen die, eta ohikoaz bestelako irtenbideak sustatzen ditu, kontuan hartuta ezagutza tradizionalak eta tokiko baldintzak, bai eta tokiko erkidegoen motibazioak, portaerak eta espektatibak ere.
- Tokiko biodibertsitatea gogoetagai eta eztabaidagai izatea sustatzen du, eta, horri esker, hobeki ezagutu eta ulertzen dugu zer eragin sortzen dituen geure eta besteen portaerak natur ingurunean.
- Gizarte-integrazioa sustatu eta tokiko erkidegoen gizarte-egitura sendotzen du; maiz, eremu ahuletan.
- Parte-hartzearen bidez, jendea gehiago identifikatzen da naturagune babestuekin, eta naturagune horietako kide ere sentitzen da.
- Herritarrei ikasteko aukera ematen die eta, era berean, aukera ere, ingurumen arloko erabaki eskubidea arduraz erabiltzeko.
- Herritarrengan eta natur ondarean zuzeneko eragina duten erabakiak gardenagoak izaten dira.
- Gatazkak moldatzea sustatzen du, jendeak iritzia, errezeloak eta beldurrak adierazteko aukera izaten baitu; aukera ere, besteen interesak ezagutzeko eta ulertzeko; aukera, interes horiei buruz eztabaidatzeko, informazio egiaztatua trukatzeko; eta aukera ere, irtenbide partekatuak aurkitzeko.
- Ingurumen arloko erabakiak eta ondasun publikoen gaineko kudeaketa publikoa hobeki ulertzeko aukera ematen du.
- Erabakiei gizarte-zilegitasun handiagoa ematen die; natura zaintzearen aldeko babesa handitu eta naturagune babestuen aurkako jarrera murrizten du.
- Gizartea erabakietan gehiago inplikatzeko da eta, horri esker, erabakiak denboran zehar errazago aplikatzen dira.
- Administrazioek herritarren aurrean duten irudia hobetzen laguntzen du.
- Gune babestuko kudeatzaile publikoen, lur jabeen eta erabiltzaileen arteko koordinazioa hobetzen du; beraz, kontu nahasiak errazago konpontzen dira. Horrez gain, jendearen arteko harremanak onak izaten dira, aurrera begira natura zaintzearen aldeko harremanak eta aliantzak egiteko.
- Parte-hartzearen bidez, errazago izaten da planifikazio sektorial eta estrategikoekin harremanak izatea, eta, era berean, hobeki kudeatzen da naturaguneetako ingurumen, gizarte eta ekonomia arloko faktoreen arteko oreka.



Horra beraz onura sorta ederra: orain, ba al duzu inolako zalantzarik herritarren parte-hartzearen kalitatea hobetu beharraz?

Herritarrek hainbat moldetan parte har dezakete


Prozesu parte-hartzaileek hainbat forma izan ditzakete. Batzuk eredu soilak izan daitezke, informazioan eta kontsultan oinarrituta; beste batzuk, ordea, eredu konplexuak izan daitezke, eta parte-hartzaileak era aktiboan aritzen dira erabakietan.

Herritarrek naturagune babestu batean parte hartzeko prozesua diseinatzerakoan, hainbat maila ezar daitezke parte-hartzaileen inplikazioa zehazterakoan:

Informazioa: erakunde publikoek, beren ekimenez edo herritarrek eskaturik, informazioa ematen dute naturagune babestuari buruz hartu dituzten erabakien gainean. Halakoetan, informazio-emia norabide bakarrean doa: erakundeetatik ukitutako erkidegoetara, alegia.

Kontsulta: erakunde publikoek beren kudeaketa-erabakiei buruzko ekarpenak eskatzen dizkiete herritarrei, eta herritarrek ekarpen horiek egiteko aukera izaten dute. Horretarako, aurrez, erakundeek zehazten dute zer jenderengandik edo zer taldetatik jaso nahi duten iritzia. Dena den, kontsultatuek beren iritzia emango badute, aurrez gaiari buruzko informazioa eman beharko zaie. Halakoetan, informazio-emia joan-etorrikoa da erakunde publikoen eta herritarren artean.

Parte-hartze aktiboa: iritzien eta interesen erkaketa sustatzen da, herritarrek irtenbideak aurkitzen lagundu dezaten. Erkaketa horri esker eta antolatutako eztabaida-saioei esker, herritarrek beren ekarpenak egin eta aukerabideak proposatzen dituzte; amaierako erabakia, ordea, administrazioak hartzen du.



Kudeaketa arduratsua: administrazioak naturagune babestuaren helmugak ezartzen ditu, eta herritarrek amaierako erabakietan parte hartzen dute (erabaki-kidetzak), erakundeekin batera kudeaketaz arduratzen dira eta hartutako neurriak gauzatzeko konpromisoa hartzen dute, bai eta emaitzak ebaluatzeko konpromisoa ere. Herritarrek erabaki ere egin dezakete nola lortu naturagune babestuko helburuak, gunea bera autonomiaz kudea dezakete eta administrazioari emaitzen kontuak eman.

Gradiente horretan gero eta gehiago aurreratu ahala, erkidegoek eragin eta erantzukizun handiagoa dute erabakietan. Gradiente handiena, ordea, ez da beti aukerarik onena izaten. Bai, ongi irakurri duzu. Dena, azken finean, erabaki arduratsuak hartzeko prozesuan parte hartzen duen jendearen gaitasunaren mendean dago. Horrek berekin informatua egotea



ELGEk politika publikoekiko informazioari, kontsultari eta parte-hartzeari buruz egindako Eskuliburutik egokitutako irudia. OECD, Paris. GRAMBERGER, M., 2006

dakar; aukerabide guztiek zer ondorio dakartzaten ulertzea; norberaren eta besteen interesak baloratzea; guztien arteko irtenbide adostuak proposatzea, beste ikuspuntu batzuk errespetatzeko eta ondasun publikoak interes pribatuen gainetik jartzea bermatzeko; helburu partekatuak lortzeko ahaleaginean aritzea, eta, era berean, behar adina bitarteko eta egitura eskura izatea, ekiteko eta emaitzak ebaluatzeko.

Helmuga da, beraz, behar bezalako ereduak sustatzea, tokiko erkidegoak erabakien erantzukizuna partekatzerira irits daitezen eta erabakiak gauzatzeko konpromiso aktiboa har dezaten. Helmuga horixe izanik ere, herritarren parte-hartze prozesuak gizarte-errealitatera egokitu behar du, bai eta hartan esku hartzen dutenen gaitasunetara ere. Horren ondorioz, helmugak prozesuaren helburua hartu behar du kontuan eta, horrez gain, beste gauza hauek ere bai: plana onesteko beharrezkoa den egutegia, tokian tokiko baldintzak, eskura dauden baliabideak, alde zuzeneko esperientzia, parte-hartzaileen kopurua eta ezaugarriak, eta parte-hartzaileen gaitasuna natura zaintzeko konpromisoak hartzeko.

Sentitzen dugu: ez dago errezeta magistralik

Ez dago, beraz, herritarren parte-hartzea bideratzeko eredu zuzen bakarra: prozesurik onena izaten da abiapuntuko egoerara moldatzen den huraxe eta, ikaskuntzaren bidez, egoera bilakaratzen duen huraxe, prozesu konplexu eta aberatsagoetarantz jotzeko.

Beti ez dugu gure ametssetako ereduak aplikatzerik izango. Baina horrek ez du traba izan behar prozesu parte-hartzaile errazak antolatzeke, bestelako aukerarik egin ez daitekeenean. Denok ikasi behar dugu parte hartzen, eta modu bakarra, jakina, parte-hartzea da. Prozesu parte-hartzaileak, izan ere, ikaskuntzarako tresnak dira berez. Haien bidez, izan ere, ezagutzak hobetu, ideiak trukatu, ikuspegi eta interes desberdinak adieraziko ditugu eta, era berean, trebetasunak eskuratuko ditugu hobeki parte hartzen ikasteko, erabakiak hartzeko eta ekintzarako.

Gure metodologia-ikuspegia: parte-hartzearen bidez, planifikatzea



Gune babestu bat kudeatzeko plana lantzerakoan, gakoetako bat izaten da herritarrek noiz hasi behar duten parte hartzen erabakitzea. Arestian esan dugun bezala, begi-bistakoa da alde interesdunei kontsulta egin behar zaiela aukera guztiak artean zabalik daudenean. Bestela, irudituko luke erabakiak jadanik hartuak daudela,

edota funtsean ezin direla aldatu; horrek, jakina,

mesfidantza sortzen du herritarren artean, bai eta erabiliak izatearen sentzazioa ere. Sentzazio hori, agian, ez dator bat sustatzailearen borondatearekin, baina nahikoa izaten da prozesua errekaratatzeko.

Hainbat aukera daude horri buruz:

- Kontsulta, esaterako, plana bera egin baino lehen egin daiteke, plana idatziko duen taldeak kontuan hartu beharreko baldintza sektorialak, sozialak eta ekonomikoak atzemateko.
- Alde interesdunekin elkar lanean aritzeko saioak egitea, plana lantzeko prozesu osoan programatuak.
- Noizbehinkako kontsultak egitea, programatu gabeak, plana lantzen den bitartean, eta plana idazteko talde teknikoaren beharren arabera.
- Kontsulta egitea, behin planaren aurrerapena landutakoan.

Ikuspegi eraginkorra, gure iritziz, **“plangintza parte-hartzailea”** da. Plangintza horretan aldi berean egiten dira gizarteak parte hartzeko saioak eta kudeaketa-planaren idazketa teknikoaren etapak, eta elkarri eragiten diote. Plana idazteaz arduratzen den talde teknikoak behar den informazio guztia ematen du saio parte-hartzaileetarako, eta lan-faseak planifikatzen dira; horrela, saio bakoitzeko ondorioak eta emaitzak lagungarriak zaizkio plana idazteaz arduratzen den talde teknikoari kudeaketa-planaren edo -tresnaren hurrengo etapa lantzeko.

Horrela, naturagune babestua ezagutzen dutenek edo haietan bizi direnek informazio baliosa eta onuragarria eman dezakete kudeaketa-planetarako edo kudeaketa-tresnetarako, informazio hori askotan ez baitago administrazioaren eskura. Informazio hori oinarri harturik, hau da, tokiko jendeak duen informazioa oinarri harturik, posible izaten da konponbide alternatiboak aurreikustea.

Aldi berean, prozesuan ari direnek naturagune babestua hobeki ezagutuko dute, eta, ezagutza berri horietan oinarriturik, gunea zaintzeko behar diren neurriak batera erabakiko dira.

Plangintza parte-hartzailearen bidez, errazagoa izaten da ekarpenak une egokian egitea, “teknikoki” zaila ez den unean planean txertatzea, eta plana eraikitzeko hurrengo etapetan ere kontuan har daitezke. Hori oso garrantzitsua da. Prozesu batzuetan, ordea, kontsultak egiten dira, behin planaren aurrerapen bat idatzitakoan, eta, halakoetan, administrazioa eta plana idatzi dutenak uzkur dabilta aldaketak egiteko, agiria nabarmen aldatzen badute.

Simil bat

Errazagoa da denon artean erabakitzea zer saski mota nahi dugun, artean zumeak txirikordatu edo lotu gabe ditugunean, behin saskia bukatutakoan jendeari huraxe gustatzen ote zaion galdetzea baino, hau da, saskia desegitea zaila denean eta apaingarri hutsezko xehetasunak bakarrik erantsi daitezkeenean.

Herritarren parte-hartzea planaren hasierako faseetan hasten bada, gainera, lagungarria izaten da alde interesdunak nor diren egokiro jakiteko, eta, horrez gain, zer ezaugarri dituzten, prozesuan zer eginkizun bete dezaketen, zer ikuspegi eta espektatiba dituzten ere jakiteko, eta, gunea zaintzeko neurriak aplikatzerakoan, zer gatazka sor litezkeen jakiteko.

Azken buruan, *plangintza parte-hartzailearen* aldekoak gara gu, Natura 2000 Sarea planifikatu eta garatzerakoan herritarren parte-hartzea bideratzeko!; bestela esanik, ...

... interes desberdinak dituen jendea biltzearen aldekoak,

... interesak partekatu eta uler ditzaten,

... ukituak izan daitezkeen kontu haietan elkarren arteko helburuak adostea posible izan dadin,

... nork bere ezagutzak eta esperientzia ekar ditzan sustatuz,

... elkarren arteko helburu horiek lortzeko zereginean irtenbiderik onenak aurkitze aldera,

... aukera guztiak artean ere zabalik dauden bitartean.

Horrenbestez, Natura 2000 eta beste naturagune babestu batzuk herritarren parte-hartzearen bidez planifikatzea izango da gida honen xede nagusia. Parte-hartzearen faseetan eta etapetan pausatuko dugu begirada, eta irtenbideak iradoki eta esperientziak partekatuko ditugu. Dena dela, aurrera jo baino lehen, esan dezagun, gure iritziz, parte-hartzea prozesu konplexuago baten abiapuntua dela: hots, administrazio publikoaren, eta aipatu naturagune babestuetan interesak dituzten gainerako eragile sozioekonomikoen arteko kudeaketa adosturako prozesuaren abiapuntua, alegia.


Horrenbestez, hasteko eta bat, elkarrekin pentsatzen eta erabakitzen badugu zer egin behar den interes publikoak eta pribatuak bateragarri egiteko, ondoren elkarrekin ekiteko modua ere adostu beharko genuke, kudeaketa hitzartu baten bitartez, planean zehaztu ditugun helburuak lortze aldera.

Administrazio publikoek ezin dute naturagune babestuak zaintzeko politika eraginkorrik aplikatu, gizartea, jabeak eta tokiko erkidegoak bazter utzita. Ez dute holako zereginik egiteko baliabiderik eta gaitasunik. Orduan, zergatik ez pentsatu asmo handiko gauza bat? Hau da, zergatik ez egin orain aliantzarik eta aplikatu eragile sozioekonomikoak lortzeko moduko kudeaketa hitzarturako mekanismorik kudeaketan bertan eta ez bakarrik planifikazioan?

Baina mekanismo horiek beste labe bateko opilak dira... eta, ongi iruditzen bazaizue, beste eskuliburu baterako utziko ditugu. Beste eskuliburu horrek, izan ere, naturagune babestuen kudeaketa hitzartua jorratu beharko luke.

Nor da nor plangintza parte-hartzaileko prozesuetan?

Plangintza parte-hartzailean oinarritutako ikuspegian beharrezkoa da prozesuan hainbat eragilek esku hartzea, eta bakoitzaren eginkizunak oso ongi zehaztuta egotea.



Ingurumen arloko Administrazioa


Autonomia Erkidegoetako Ingurumen arloko Administrazioak arduratzen dira Natura 2000 Sarea eta Gune Babestuen Eskualdeko Sistemak ezarri eta garatzeaz; horrenbestez, haien ardura da kudeaketa-planek eta -tresnek natur ondarearen zainketa bermatzea. Administrazio horiei dagokie, hortaz, herritarren parte-hartzea bideratzeko prozesuak garatzea, Natura 2000 Sarerako kudeaketa-plan horiek idazterakoan. Eta, horretarako, Administrazioek beren egiturak egokitu beharko lituzkete, zeregin horren zerbitzuan langile prestatuak eta behar adina aurrekontu-baliabide jartzeko.

Ingurumen arloko Administrazioek, maiz, kanpoaldeko langile espezializatuengana jo behar izaten dute. Zenbaitetan, kontua ez da izaten Administrazioako teknikariek behar bezalako prestakuntzarik ez izatea, baizik eta denbora kontua, bai eta jende horrek eskura egoteko aukera izatea ere. Izan ere, ez baitira inola ere aski administrazioek eskura dituzten giza baliabideak biodibertsitatea zaintzeko politika garatzeko, ezta naturagune babestuen sistemak kudeatzeko ere. Horregatik, litekeena da hala plana idatziko duen taldeak nola bitartekaritza taldeak kanpoaldeko laguntza teknikoak jasotzea. Hala ere, gatazka-egoeretan edota

administrazioan konfiantzarik eza sumatzen den egoeretan, komeni izaten da bitartekaritza talde independenteengana jotzea, emaitzak ezin hobeak izaten baitira.

Kasu!:

- ➡ Nolanahi ere, eta ingurumen arloko administrazioak prozesu osoa bere gain hartzen badu, OSO GARRANTZITSUA DA alde interesdunen aurrean argi geratzea nork hartzen dituen erabakiak, nork egiten dituen proposamen teknikoak, nork dinamizatzen duen prozesu parte-hartzailea eta nork egiten duen prozesuko eragile guztien arteko bitartekaritza-lana.
- ➡ Eta, kanpoaldeko laguntza eskatzen bada ere, Administrazioak ez du inola ere bere burua prozesutik kanpo utzi behar. Administrazioak, izan ere, gauza izan behar du ingurumen arloko legeria betearazteko herritarren parte-hartzeari dagokionean, bai eta prozesuek dakarten erronkari aurre egiteko gauza ere. Hau da, administrazioak behar diren giza baliabideak jarri behar ditu prozesuaren eskura jarraipen aktiboa egiteko eta, eskatzen zaionean, esku hartzeko. Eta, horretarako, beharrezkoa izan daiteke administrazioko teknikarien trebetasunak eta prestakuntza hobetzea, parte-hartzera egun bideratzen dituen baliabideak eta aurrekontua handitzea, eta bere langileen lan-baldintzak prozesuetako ordu-beharretara egokitzea.



Hona hemen Administrazioak zer eginkizun izango dituen, prozesuaren bultzatzailea den aldetik:

- Helburua, parte-hartzearen esparru instituzionala eta egutegia erabakitzea.
- Erakundeen arteko koordinazioaz arduratzea.
- Prozesuaren norainokoa eta arauak ezartzea.
- Gai diren profesionalak aukeratzea prozesua antolatzeko eta dinamizatzeko.
- Prozesu parte-hartzaileak formalki abiaraztea eta alde interesdunak deitzea.
- Banatzen diren eztabaida-agiriak berrikustea, legearekin bat ote datozen eta teknikoki zorrotzak ote diren ikusteko.
- Eskatzen zaionean, esku hartuko beharko du erantzukizunak eta jarrera hartzeak argitzeko edota eztabaidagaiei buruzko informazioa emateko.
- Amaierako agirietan zer ekarpen sartu erabakitzea.
- Kontuak ematea eta iritzi batzuk emaitzetan eta amaierako agirian zergatik ez diren kontuan hartu azaltzea.
- Kudeaketa-plana edo -tresna onestea eta legeekin bat ote datorren ikustea.
- Prozesu parte-hartzailearen ebaluazioa planifikatzea.

Zenbaitetan, zeregina ez da batere atsegina izaten

Amaierako agiria zabaltzerakoan, jende guztiak berehala jakin nahiko du ea bere ekarpenak sartu ote diren eta nola sartu diren. Askotan, ordea, ezinezkoa izango da ekarpen guztiak txertatzea. Izan ere, guztien adostasuna “ezinezkoa” da eta ez da errealista guztien adostasuna prozesuaren xedetzat jotzea. Maiz aski, elkarren kontrako interes ugari izaten dira. Parte-hartzaileek berek, ziurrenera, ekarpen kontraesankorrak egingo dituzte, inola ere gauzatu ez daitezkeenak, teknikoki gomendagarriak ez direnak, legearen aurkakoak direnak, edota biodibertsitatea zaintzeko politiken arduradunek bere gain hartu ez ditzaketenak. Administrazioak ez du zertan ekarpen guztiak txertatu, baina komeni izaten da konpromisoa hartzea zergatik ez dituen txertatu azaltzeko.

Administrazio publikoaren arduradun politikoa bazara, alde guztien ekarpenak interpretatzea eta interesen arteko arbitrajea egitea egokituko zaizu. Gizarteak parte hartuta ere, zurea izango da beti erabakia hartzeko erantzukizuna; baina, erabakiak ahalik eta erarik gardenean hartu beharko dituzu, alde interesdun guztiei entzun ondoren. Bilatu ahalik eta adostasunik handiena, egin etorkizunerako ahalik eta aliantza sendorik gehienak, eta kontuan hartu kritikak, emaitza ez baita bere osoan inoren gustukoa izango; baina izan zaitez ausarta, azaldu zure erabakiak eta jarri beti interes publikoa interes pribatuen gainean. Horretarako baitzaude zauden tokian.



Integrazio Batzordea

Integrazio Batzordean ordezkaritza izan behar dute naturagune babestuaren baitan eskumen sektorialak dituzten sail eta erakunde publiko guztiek. Beraz, naturagune bakoitzaren ezaugarriak nolakoak, halakoa izango da Batzordearen osaera. Batzorde honen garrantzia aurrerago azalduko dugu; prozesuaren faseak deskribatzerakoan, hain zuzen (Ikusi 48. orrialdeko atal hau: *Parte-hartzea plangintza estrategikoaren eta lurralde-plangintzaren barruan sartzea*).

Kudeaketa-plan edo -tresna batean hartu behar diren erabakiak teknikoak edo politikoak izan daitezke. Hori dela eta, komeni izaten da Batzordearen lanek bi erabaki maila horiek aurreikustea.

Maila teknikoari dagokionez, Batzordeak ardura hauek izango ditu:

- Eskura dagoen informazio sektorial guztia ematea, planerako garrantzitsua bada.
- Ekarpenak eta planaren aurrerapenak, bestalde, jadanik onetsita dauden arauekin, planekin, programekin eta proiektu sektorialekin bat ote datozen eta bateragarri ote diren ikustea.
- Herritarrek prozesuan egiten dituzten eskariak baloratzea, planaren esparruaren baitan lekurik ez badute, natura zaintzeari ez dagozkiolako.
- Diru beharrak balioztatzea, planean proposatu diren ekintzak gauzatzeko, bai eta sail eta erakunde publiko bakoitzerako datozen konpromisoak gauzatzeko ere.
- Sektoreek eta erakunde publikoek planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko ezartzen diren organoetan zer-nolako ordezkaritza izan beharko luketen baloratzea.

Maila politikoari dagokionez, Batzordeak ardura hauek izango ditu:

- Planetan, programetan eta proiektu sektorialetan bilduta dauden helburu estrategikoak planaren helmugekin bat ote datozen eta bateragarriak ote diren bermatzea.
- Maila teknikoan hartzen diren ebazpenak onestea.
- Finantza-programa eta kasuan kasuko konpromisoak onestea.

Plana idazteko talde teknikoa:

Administrazioko langileez osatua egon nahiz kanpoaldeko jendeaz osatua egon, zeregin hauek izango ditu:

- Naturagune babestuko kudeaketa-agiriaren oinarri teknikoak lantzea.
- Bitartekaritza taldeari planaren gakoak jakinaraztea.
- Alde interesdunek planarentzako zer informazio garrantzitsu izan dezaketen identifikatzea.
- Alde interesdunekin egingo diren lan-saioetara joatea, informazio teknikoari buruzko galderei erantzuteko, zalantzak argitzeko eta lehen eskuko informazioa lortzeko.

Kontua ez da jendea konbentzitzea; entzutea eta aukerabideak proposatzea baizik



Litekeena da inoiz egon ez izana holako lan-bileretan. Gogorrek izaten dira. Izan ere, Ingurumen arloko Administrazioak bultzatzen duen proiektu baten ageriko aurpegia izango zara, eta gehienetan, parte-hartzaileen iritziz, proiektu hori

Administrazioak inposatutako zerbait izaten da eta nabarmen mugatuko du leku horretan egin litekeena. Ez kezkatu; hasieran, utzi jendeari bere amorrua azalerazten. Ez zaitez amorrua geldiarazten saiatu, ez aurre egin jendeari, amorrualdian ezin baitzaie emozioei egintzen bidez aurre egin. Ez dizute hitzik ere entzungo, amorrua bere osoan kanporatu arte. Apunta itzazu okerrei eta hutsei egiten zaizkien kritikak, hartu konpromisoa kritikak dagokionari helarazteko eta azaldu prozesua Administrazioaren saialdi bat dela aurrerantzean oker eta huts horiek zuzentzeko, kontuan hartuta ziurrenera zu ez zarela Administrazio horretako kide izango. Hori bai, saia zaitez jakiten bilerara joan direnek zer behar, zer interes eta ezkutuko zer beldur dituzten. Har itzazu kontuan, eta, haietan oinarriturik, arrazoitu zure iritzia eta jarrerak.

Kontua ez da haiei esatea gauzak beren lurretan nola egin behar dituzten, baizik eta teknikaria zaren aldetik, emaezu informazioa eta eskaini aukerak, adostu diren edo legeak ezarri dituen helburuak lortzen laguntzeko.

Utzi argi zeure mugak. Ez duzu zertan irainik entzun. Haien esanak entzun nahi dituzula argi azaldu ondoren, jakinarazi zer den zuretzako onargarria eta zer onartezina, beste pertsonaren gaineko iritzirik edo baloraziorik egin gabe.

Bigarren saioan dena hobeki joango da, ziur, eta lasaiago egongo zara.

Hona hemen garraztasunak leuntzeko sekretu bat: landa-lanean zabiltzala, ziur aurkituko duzula gero bileretan topatuko duzun jendea. Oso une egokia izaten da haiekin hitz egiteko eta haien ikuspuntuak jasotzeko, bai eta zure ideiak azaltzeko ere.

Ingurumen arloko taldeak¹

Bitartekaritza funtsezkoa da, gakoa, prozesu guztian. Bitartekaritza taldea talde teknikoaren eta ingurumen arloko administrazioaren, eta herritarren arteko lotura da.

Jende askok bestela uste arren, bitartekaria ez da soilik arduratzen lan-saioak moderatzeaz. Haren egitekoa ere bada jendea lan-saioetara joan dadila lortzea. Baina haren eginkizuna askoz ere haratago doa eta aurrez lan neketsua egin behar izaten du tokian-tokian informazioa bilatzeko. Horrez gain, prozesu guztian, alde interesdunekin harremanetan egon beharko du, eta, prozesuaren ondotik, emaitzak bildu, aztertu erregistratu eta landu beharko ditu.

Prozesu osoan, bitartekaritza taldeak alde interesdunei harrera egin behar die, hau da, parte-hartzaileek eroso egon behar dute, arreta egin behar zaie, entzun egin behar zaie eta ulertu egin behar zaie. Hori egin behar da, gatazken aurrean inpartzial, independente eta distantziakide izateari utzi gabe. Bitartekaritza taldearen eginkizuna ez da iritzia ematea,

¹ Egile batzuek nahiago dute talde horiei parte-hartzeko taldea, dinamizazioarako taldeak edo erraztaileak deitu. Guk, ordea, ingurumen arloko bitartekariak esaten diegu, parte-hartze prozesuaren kudeaketa osoaz arduratzen baitira (hau da, plangintza, koordinazioa, antolaketaz eta dinamizazioaz). Prozesu parte-hartzaileko saioak kudeatze hutsaz harata, taldeok eginkizun hauek ere badituzte: aldean arteko harremanak erraztea, lekua zaintzeko helburuen eta bestelako interesen arteko gatazkak moldatzea, aldean arteko akordioak sustatzea eta, azkenik, aldean artean bitartekaritza-lana egitea, bai eta aldean eta administrazioaren artean ere.

besteen iritziak egokiro adieraz daitezzen sustatzea baizik, bai eta iritzi-trukaketa eta iritzi-eztabaida sustatzea ere.

Eta, prozesua garaiz planifikatu eta bilerak garaiz programatuko baditu ere, bestelako bideak ere aurreikusi beharko ditu, ustekabeen sor daitekeen egoera orori erantzuteko. Ez dugu ahaztu behar prozesu parte-hartzaileak, oro har, aurrez ezin direla aurreikusi eta zehaztugabeak izaten direla. Bitartekaritza-lan onaren gakoa soilik ez datza talde bakoitzerako eta une bakoitzerako dinamiken aukeraketan eta aplikazioan, baizik eta erantzuna ere eman behar zaio prozesu batean ustekabeen sor daitezkeen egoera orori.

Azken buruan, bitartekaritza taldeak ardura hauek izango ditu

- Prozesuaren faseak ezarri eta erabakitzea.
- Alde interesdunak identifikatu, nor diren aztertu eta haiekin harremanetan sartzeko.
- Dinamikak eta tresnak erabakitzea, bai eta eskura dauden baliabideen erabilerarik onena erabakitzea ere.
- Alde interesdunekin egin beharreko lan-saioak prestatu, deitu eta moderatzea.
- Jokoaren arauak azaltzea eta arauak beteko direla bermatzea.
- Prozesuak zer helburu eta zer egutegi duen jakinaraztea, bai eta aurreikusita dagoen lan moldea ere.
- Informazio ulergarria eta nahikoa eskura dadin erraztea.
- Planaren zati guztien aurrerapenei buruzko eta beste agiri batzuei buruzko laburpen ulergarriak prestatzea, parte-hartzearen faseetan eztabaidatzeko.
- Zehatz-mehatz azaldutako proposamen ulergarriak egitea, eztabaidara eramateko.
- Parte-hartzaileen, kudeaketa-plana idatzi duen talde teknikoaren eta administrazioaren arteko bitartekaritza egitea.
- Parte-hartzaileen arteko harremanak, iritzi-truke orekatua eta eztabaidak erraztea.
- Alde interesdunen ekarpenak eta eskariak talde teknikoari eta administrazioari helaraztea.
- Lan-saioen ondorioak eta emaitzak aldeei jakinaraztea.
- Prozesu parte-hartzailearen ebaluazioa egitea.



Ez. Bitartekariak ez du beste galaxia batekoa izan behar

Bitartekaritza-lanaren ezaugarriak zehaztu ondoren, iduri du bitartekariak "superman" edo "superwoman" izan behar duela. Ez da horrela. Zenbaitek esango dute bitartekariak berezko talentu bat duela, eta hori egia da, baina zuk eta ia jende guztiak talentu berbera duzue: hots, hizketan jarduteko giza talentua. Beraz, bitartekari izateko, berezko talentu hori landu behar duzu; behin eta berriz, gainera².



² STONE-MOLOY M, 2001: Ingurumeneko Gatazketan Bitartekari aritzea. Eskuliburu erabilgarri bat.

Alde Interesdunak



Nori egin behar zaio kontsulta? Gure irudikoz, naturagune babestu bat kudeatzeko moduz hartzen diren erabakiek ukitzen duten jende orori. Era berean, gure iritziz, ahal den bakoitzean, jende hori egokiro txertatu beharra dago erabakiak hartzen diren prozesuan.

Alde interesdunak herritarrek parte hartzeko prozesuetako ardatzak

dira, prozesuotako helburu nagusia herritarren iritzia eta ekarpenak eskatzea baita. Dena egin behar da, prozesuan parte hartuko duten erakundeen eta pertsonen ezaugarrien arabera. Alde interesdunen garrantzia ikusita, aurrerago zehatz-mehatz azalduko dugu zer eginkizun bete behar duten prozesuan zehar. (Ikusi 53. Orrialdeko atal hau: *Alde interesdunak identifikatzea eta hautatzea*).

Hona hemen zer eskubide eta zer betebeharrak dituzten:

- Beren borondatez parte hartzen dutela aitortzea.
- Jokoaren arauak betetzea eta, alderen batek arauak hausten baditu, arauak behar bezala betearaztea erreklamatzeko.
- Gainerako alde interesdunak eta haien iritzia errespetatzea.
- Prozesu parte-hartzailearen norainokoa ezagutu, onartu eta hartara egokitzea.
- Prozesuan parte hartzeko behar duten informazioa eskatzea, haien errealitatearekin bat, eta egokien iritzitako bitartekoen bidez.

Denok ikasi beharra daukagu

Bai. Baliteke zu haserre, atsekabetua, nekatua egotea. Baina prozesu parte-hartzaileak mundu guztia erantzuten izaten dira ikasbide. Administrazioarentzako ere bai, hala maila politikoan nola teknikoan. Hobetzeko modu bakarra izaten da prozesuak erreklamatzeko (prozesurik egin nahi ez dutenean), prozesuetan parte-hartzea eta haien kalitatearekin zorrotzak izatea. Ahaleginak egin behar dira, era berean, inork ere prozesuak ez manipulatzeko eta bere nahierara ez erabiltzeko. Horrela bakarrik lortuko ditugu eredu eraginkorrak elkarren arteko erabakiak hartzeko tresna horientzat. Gogoratu, dena den, ez duzula prozesuotara joan behar zure interes partikularrak beste edozein interesaren gainetik babesteko. Eta ez dira, ezta ere, gobernuek biodibertsitatea zaintzeko darabilten politika orokorra kritikatzeko tokia. Ziur bazaude ziria sartuko dizutela, prozesuek ez dute ezertarako balio, ez duzu ekarpen handirik egiterik, eta esaten dizuten ezerk ere ez duzu balio. Ez joan, beraz. Ez da ezer gertatuko. Zure denborak urrea balio baitu; goza ezazu denbora zure zaletasunak egiteko eta zure lagunekin eta etxekoekin egiteko.

Ziur ekarpen guztiak ezin izango direla amaierako agirian bildu. Baina jarrera malgua agertzen baduzu, eta zure interesak beste pertsona batzuen interesekin bateragarri egin behar direla ulertzen baduzu, bai eta ingurumeneko ondasunak babestearekin ere (iraganeko eta etorkizuneko belaunaldien ondarea baitira), ... zure parte-hartzea ezinbestekoa izango da, ez ezazu huts egin; zure zain gaude!

IKASI DITUGUN ZENBAIT GAUZA

Prozesuetan agertu ohi diren arazoak

Prozesu parte-hartzaileak beharrezkoak dira, baina ez da erraza holako prozesuak abian jartzea; are gutxiago, sistema jakin baten arabera antolatzeko eta denboran finkatzeko.

Orain dela urte asko hasi ginen naturagune babestuen plangintzak lantzen eta herritarrek parte hartzeko prozesuak garatzen. Bada, agertzen zitzaizkigun arazoen bilketa egiten hasi ginen, hurrengo batean arazoak moldatzeko modurik onenari buruz gogoeta egiteko asmoz. Urteak aurrera joan ahala, egia esan, zerrenda izugarri loditu da. Baina inor ere ez adoregabetzeko, prozesu parte-hartzaileetako zailtasunik ohikoenak laburbildu ditugu eskuartean darabilzun gida honetan.

Planaren esparrua



Gehiago edo gutxiago gustatuko zaigu, baina Natura 2000ko kudeaketa-planak nekez antolatzen dira ikuspegi integratzaile eta ekosistematiko batekin. Hau da, ez dute kontuan hartzen natur balioen kontserbazio-egoera baldintzatzen dituzten faktore sozioekonomikoak eta ez dute tresna egokirik faktore haietan egokitasunez eragiteko. Zenbaitetan, ezinezkoa edo zaila izaten da hori saihestea, naturagunea zaintzeko ekintza askok eragina izan baitezakete naturaguneko bizi-kalitatean eta gizarte- eta ekonomia-

garapenean, eta, aldi berean, gizarte- eta ekonomia-jarduera askok eragin nabarmena izaten baitute gune babestuen kontserbazio-egoeran.

Baina, egia esan, kudeaketa-planetan jokoa banatzen dutenek alde zuzenetik erabakitzen dute gai jakin batzuetara soilik mugatu beharra dagoela: delako *kontserbazio-gaietara*, hain zuzen ere. Eta ez dute ulertzen ezin direla habitatak eta espezieak kudeatu, *lurralderik* kudeatu gabe.

Horrenbestez, egoera horren aurrean, ziurrenera karta txarrekin heldu beharko diogu partidari: hau da, prozesura joaten direnei esaten zaie helburua kudeaketa-plan bat idaztea dela, baina nagusiki habitatak eta espezieak zaintzeko zuzeneko ekintzetan oinarriturik. Tokiko herriek, tokiko biztanleek, ordea, inguruko gizartea eta ekonomia garatzeko planak eskatzen dituzte. Hau da, hasteko eta bat, gure eskaintza ez dator bat jendearen eskariarekin, eta hortik lehen kexak iritsiko zaizkigu. Biodibertsitatea zaintzen dihardutenek, gainera, jakin badakite erabat ezinezkoa dela zainketa arloko helburuak lortzea, politika sektorialetan eragiteko moduko eskumenik eta baliabiderik izan gabe. Eta hori, zoritxarrez, ingurumen arloko administrazioaren irismenetik kanpo egon ohi da, eta hain zuzen ere, administrazio horrexek sustatzen ditu planak. Plan gehienak, horrenbestez, asmo onez beteriko zerrenda hutsak izaten dira eta ez dago behar adina bitartekorik eta mekanismo egokirik, planak garatzeko eta abian jartzeko. Hala eta guztiz ere, inola ere ez ditugu itxaropen faltsuak piztuko. Argi ezarri beharra dago planaren esparrua, eta argi ezarri ere, herritarrek parte hartzeko prozesuaren irismena, mugak eta helburuak.

Espainian, Autonomia Erkidegoek zer plan mota egin erabakitzen dute

Espainiari dagokionez, Estatuari dagokio Natura 2000 Sareko Batasunaren Intereseko habitatak eta espezieak ongi zaintzearen aldeko egoera lortzearen ardura. Eta, Autonomia Erkidegoek, beren aldetik, Kontserbazio Bereziko Eremuak eta Hegaztientzako Babes Bereziko Guneak deklaratu behar dituzte, betiere leku eta espezie horiek zaintzeko behar diren neurriak aurrez finkatuta eta habitat eta espezie haien eskakizun ekologikoekin bat; hartara, berariazko kudeaketa-plan edo kudeaketa-tresna egokiak taxutzen dituzte, edo bestela, bestelako garapen-planetan txertatuko dituzte. Horrenbestez, Autonomia Erkidegoei dagokie plan mota baten edo bestearen alde egitea edo herritarren parte-hartzea bideratzeko prozedura hau edo beste hura aukeratzea, baina horrek ez du inola ere esan nahi amaierako erabakien gaineko erantzukizunari uko egiten diotenik. Horregatik ahaleginak egin behar dituzte, herritarren parte-hartzea bideratzeko prozesuetan hartzen diren erabakiek arriskuan jar ez dezaten sare ekologikoaren osotasuna, ezta huraxe osatzen duten guneen osotasuna ere.

Mesfidantzak eta erantzukizunak

Prozesuan ari diren pertsona batzuen hasierako jarrera ez da beti onuragarria izaten. Kontua da herritarrek parte hartzeko prozesuetara deituko dituzten lagun asko ziurrenera aurretik aritutakoak direla huts egindako prozesuetan, non administrazioak eta arduradun politikoei ez zioten beren erantzukizunari dagokion mailari eutsi. Jende hori, horren ondorioz, atsekabetua atera zen prozesu haietatik. Hori ikusita, hasteko eta bat, gainditu egin beharra dago administrazioarekiko darien mesfidantza, bai eta aurreko prozesuek haiengan sortutako atsekabea eta motibaziorik eza ere.

Ziurrenera, gainera, pertsona horien laguntza beharrezkoa ere izango da etorkizuneko beste prozesu batzuetan. Eta, egia esan, oso zaila izaten da konfiantza bere onera etortzea, elkarren jarraian bi aldiz huts egin ondoren. Gure agintariek, beraz, horri buruzko gogoeta egin beharko lukete, herritarren parte-hartzea bideratzeko inolako prozesu berririk abiarazi aurretik, ez badute prozesuarekin berarekin kontsekuente izateko konpromiso tinkorik agertzen.


Esan dezagun funtsezkoak direla kudeatzaile publikoek prozesu parte-hartzaileekin duten konpromisoa eta borondate politikoa. Zenbaitetan, izan ere, prozesu parte-hartzaileak apaingarri hutsak izaten dira, zertarako eta jendearen iritziak kontuan hartzen direla itxura egiteko; era berean, prozesuez kanpoko negoziazioak onartzen dira, edota ez da behar bezala arrazoitzen zergatik ez diren kontuan hartu parte-hartzaileen ekarpenak; eta horrek guztiak, zer esanik ez, ondorio guztiz kaltegarriak sor ditzake. Izan ere, errekarra botatzen du herritarren parte-hartzea bideratzeko prozesu zintzo batek sortzen duen giza kapital izugarria; gizarteak hein handian galdu egiten du prozesua sustatzen duten politikariengan jarria duten konfiantza eta, azkenean, gune babestuen bideragarritasunaren beraren kalterako izaten da. Baina aipatu politikarien sinesgarritasunari buruzko ondorio kaltegarriaz harantzago, kalte nabarmena ere egiten zaio politikariek ordezkatzeko erakundearekiko konfiantzari; eta kalte horrek luzaz irauten du, engainua egin duen pertsonak karguan dirauen denbora baino askoz ere gehiago.

Mesfidantza horren ondorioz, jendeak ez du herritarrek parte-hartzeko prozesuetan aritzeko gogorik izaten, eta gogo galtze hori Natura Sarearen aldeko taldeen artean ere soma daiteke.

Prozesu parte-hartzaileen ondorioz, naturagune babestuak zaintzearen aldeko jarrerak eta portaerak zabaldu daitezke. Baina jendeak konfiantza izan behar du guneak kudeatzeko ardura duen administrazioan, konfiantza hori ezinbestekoa baita alde interesdunek beren interesak babesteaz haratagoko konpromisoak har ditzaten. Eta bide bakarra dago konfiantza hori irabazteko: hots, batetik, erabateko gardentasunez jokatzeko erabakiak hartzerakoan, eta, bestetik, prozesu parte-hartzailea arautu behar duten arauak erabat errespetatzea.

Kultura parte-hartzailea

Ziurrenera, ez dugu tradizioz kontsentsuen bila aritzeko. Amore emate bakoitza porrota hutsa dela iruditzen zaigu; eta, egia esan, amore ematea bizikidetzari tokia uztea da. Horregatik, pertsona eta talde batzuen ustez, parte-hartzea ez da talde-proiektu bat eraikitze prozesu bat, negoziazio bat baizik, eta tematu egiten dira beren interesen alde. Hau da, kosta ahala kosta eusten diote beren jarrera zurrun eta zorrotzari, eta ez dira gauza bestelako iritziak edo kontrako iritziak entzuteko. Alde horretatik, interesgarria da dinamika edo saio jakin batzuk antolatzea, gizarte talde bakoitzak lurralde bati buruz epe luzera zer espektatiba dituen jakiteko.



Herritarrek parte-hartzeko gure eredu tradizionala, gainera, ordezkaritzan oinarritua dago, eta gizarteak ez du esperientzia handirik zuzeneko prozedura parte-hartzaileetan. Maiz, talde batzuek diote haiek direla talde heterogeneoen egiazko ordezkariek, baina hori ez da inola ere egia, talde horien artean hainbat sentsibiltate baitaude kontserbazioaren inguruan. Are gehiago, talde batzuen barne-egiturak ez dira oso demokratikoak; beraz, horrek ez du bermatzen talde horretako ordezkariek taldekideen arteko jarrera adostuak prozesura eramatea, eta, era berean, ez du bermatzen ordezkariek taldekideei prozesuaren aurrerapenen eta jarreraren gaineko informazio egokia ematea.

Bestalde, tokiko talde eta lurjabe batzuek ez dute inolako antolaketa-erakunde edo oso ahulak dira ongi egituratuta dauden lobbien eta interes-taldearen aurrean; horregatik, zenbaitetan, prozesuetan interes guztiak ez daude orekatasunez ordezkatuak, eta talde ahulak kanpo gelditzen dira. Batzuek eta bestek prozesuaren emaitzetan duten eragina ez dator bat talde bakoitzak lurraldean duen egiazko pisu sozialarekin eta planeko helburuekiko duen

garrantziarekin. Gehien hitz egiten duenak ez du beti zer esan handiagorik. Horregatik, ezinbestekoa deritzogu tresna eta dinamika egokiak diseinatzeari, beren hitzak entzunarazteko zailtasunak dituztenei hizpidea emateko eta, era berean, saioez jabetzen direnen hitzaldiak mugatzeko.

Aldez aurreko ideia okerrak Natura 2000ri buruz

Gero eta azterlan gehiagok erakutsi dute Natura 2000k askoz ere onura gehiago ekartzen dituela kosteak baino. Hala ere, jendeak, oro har, ez du onura horien berri, eta esaten da Sarea gauza inposatua dela eta garapen ekonomikoa mugatu egiten duela



Ez dakit ongi zertarako balio duen kakalardo batek. Baina, jakin badakit kakalardoa bere jatorrizko ekosisteman baldin badago, ekosistema horrek hobeki funtzionatuko duela eta ingurumen-zerbitzu gehiago eta hobeak emango dizkigula.

Garatu ditugun esperientzia parte-hartzaile gehienetako parte-hartzaileen iritziz, biodibertsitatea ez da beharrezkoa gure bizi-kalitatearako, ekoizpen-sistemen oinarria ere ez den bezala. Biodibertsitateari buruzko ikuspegia, beraz, oso murrizta da, eta eskasa ere bai: hots, espezieak zaintzea versus tokiko gizarte- eta ekonomia-garapena. Adibide bat ematearren, oso esanguratsua da nekazari eta abeltzain batzuek parte-hartzearen aurreneko uneetan egiten duten galdera: *"zer, kakalardo bat zaintzea nire lanaren gainetik al dago?"*

Egia esan, abiapuntua ez da ona. Sareak eragozpen bat dakar berekin; hots, hasiera batean ez zen behar bezala azaldu Sarea bera ezartzeko prozesua. Horregatik entzun egiten dugu Natura 2000ren plangintza ezkutuan egin dela, naturaguneak ezkutuan ere aukeratu ziren bezalaxe. Eta, halakorik gertatu ez den tokietan ere, eta gauzak azaltzeko ahalegin handi-handiak egin diren tokietan ere, prozesua iluna izan zela entzungo dugu.

Egia da okerrak egin direla; baina okerrak oker, interpretazio horiek oinarrituta daude Natura 2000ri buruz zabaldu diren gezurrezko ideietan, ideia interesatuetan. Nolanahi ere, ideia horiek nekazaritza munduko sektore askotan finkatu dira, eta horrek eragindako iritziak ez datoz errealitatearekin bat. Beraz, are ahalegin handiago bat, ahalegin erantsi bat, egin behar da ideia horiei aurre egiteko, eta hori, ziurrenera, prozesu parte-hartzaileen egitekoa izango da, herritarren parte-hartzeak informazio zintzoa eta egiazkoa izan behar baitu oinarri.

Informazioa eskuratzea eta banatzea; informazioaren kalitatea

Ohartu gara, beraz, alderdi garrantzitsu batzuei buruzko informazioa ez dela taxuzkoa, kalitatezkoa, izaten. Eta taxuzko informazioaz mintzo garenean, hauxe esan nahi dugu: hots, informazioak egiazkoa, objektiboa eta irisgarria izan behar du.

Zenbaitetan, ez dira bitarteko zuzenak aukeratzen informazioa helarazteko, edo bestela, hizkuntza teknikoa erabiltzen da informazioa emateko, eta hori, jakina, ez da batere ulergarria izaten jende gehienarentzat. Beste zenbaitetan, litekeena da beharrezkoa izaten den informazioa eskura ez egotea edo behar bezain garaiz eskura ez egotea prozesatu ahal izateko.

Era berean, gerta liteke talde jakin batzuek informazioa lortzeko zailtasunak izatea; beraz, horrek esan nahi du informazioa ez dela denontzat eskuragarria. Horrek abantaila ematen die sektore batzuei besteen kaltetan, esku hartzeko unean eta erabakitzeko unean.

Zenbaitetan agerikoa da ez dagoela bitarteko teknikorik eta ekonomikorik prozesuari beharrezkoa zaion muntako informazioa sortzeko. Informazio kartografikoa, esaterako, adibide esanguratsua da. Horrela, jabe bati asko interesatzen zaio jakitea bere lursaila naturagunearen barruan ala kanpoan ote dagoen, edo zonifikazioaren kategoria batean edo bestean. Baina nekez egoten da behar bezalako kartografiarik eskura, behar bezalako euskarrian eta bereizmenean, lursail bat edo proposatutako neurriren bat gunearen mugetan kokatzeko.

Plangintza desegokia

Naturagune babestuen plangintzak ez ditu denbora jakin batzuk finkatzen prozesu parte-hartzaileak garatzeko. Prozesuak presaka egiten dira, prozesuetan esku hartzen dutenen erritmoak kontuan hartu gabe. Kudeaketaren, parte-hartzearen eta erabaki politikoen egutegiak eta erritmoak desberdinak izan ohi dira.


Planak idaztera bideratzen diren aurrekontuek, gainera, nekez hartzen dituzte kontuan herritarren parte-hartzearen kostuak; horren ondorioz, gehienetan baldintza kaxkarretan egiten dira eta oso modu sinplifikatuan.

Natura 2000ko lekuetako gizarte-giroa nagusiki landa-girokoa izaten da. Hori ez da kontuan hartzen dinamikak taxutzerakoan eta antolatzerakoan, eta dinamika horietako batzuk, egia esan, ez dira batere erabilgarriak izaten, parte-hartzaileek aurrez halako eskarmentu bat izan beharko luketelako edota tokian tokiko ohiturak kontuan hartzen ez direlako. Hori eta beste gauza batzuk, dinamizazio taldeak alde interesdunei behar bezalako arreta egin ez izanaren ondorioa izaten dira, dela astirik ez dutelako, dela garrantzitsutzat jotzen ez direlako, dela bi arrazoiengatik.

Bestalde, oraindik ere ez dugu behar adina praktika edo jardunbide egokirik, naturagune babestuetako plangintza parte-hartzaileari dagokionez; beraz, ez dugu erreferentziazko eredurik. Ingurumenaren arloan, batez ere, prozesu parte-hartzaile oso gutxi izan dira arrakastatsuak, eta arrakastatsuak izan direnak ezezagunak zaizkigu; beraz, zaila da era horretako ekimenak sustatzea eta haien aplikazioa bultzatzea. Testuinguru honetan, ebaluazioaren plangintza urria nabarmentzen dugu, gehienetan ebaluazio kuantitatiboa lehenesten baita kualitatiboaren ordez.

Alde interesdunak izan daitezkeen nekea

Herritarrek badute naturagune babestuak kudeatzeko planetan parte hartzeko eskubidea. Baina hori, eskubidea izateaz gain, herritarrek beren borondatez denbora librean ematen duten zerbitzu bat ere bada, kudeaketa publikoa hobetzeko eta ondasun publikoak babesteko. Eta parte-hartzeak, zenbaitetan, ahalegin nabarmena dakar berekin; esaterako, dokumentazioa irakurri eta bileretara joan behar izatea. Duela denbora batetik hona, gainera, landa-inguruetan ugaritu egin dira era bateko zein besteko administrazioek sustatutako prozesu parte-hartzaileak eta, egia esan, ia beti pertsona berberak jasotzen dute prozesuan parte hartzeko gonbidapena. Eta, denok jakin badakigu landa-mundua jendez hustua dagoela; ez du gehiagorako ematen. Beraz, kontuz!, horrek erraz sortzen baitu "parte-hartzeak eragindako nekea" esaten dioguna alde interesdunak izan daitezkeen haiengan.



Parte-hartzearen kostea, beraz, erori egiten da beren denbora librearen eskura jartzen dutenen bizkar gainean, eta, gure ustez, Administrazioak hori galarazi beharko luke. Beharbada, nork daki egunen batean ez ote zaien parte-hartzaileei ordainduko, edo, gutxienez, ez ote zaien bileretara joatea erraztuko, haurtzaindegi zerbitzuak paratuz, joan-etorriak ordainduz edo lan-baimenak emanez; esate baterako, enpresetako ordezkari sindikalek dituztenen antzekoak edo autonomia eta toki mailako ordezkari politikoek dituztenen antzekoak.

Bitartean, prozesu parte-hartzailean eskuzabaltasunez parte hartzen duten pertsonen lanaren aitortza egin liteke, sinbolikoki bada ere: adibidez, naturagune babestua bisitatzea; eskerrak emateko harrera publiko bat egitea, agintariak bertan daudela; naturagune babestuari buruzko argitalpenen bat oparitzea; zerbitzu eta instalazio publikoak erabiltzeko kostea murriztea; herriko igerilekua, erakusketak, garraio publikoa...

Joko-arauak

Aurreko ataletan prozesu parte-hartzaile egoki bat “sukaldatzeko” behar diren alderdiak edo “osagaiak” aipatu ditugu. Behin eta berriz antzematen da adostutako arau idatzi batzuk ezartzeko ezinbesteko premia dagoela, aldeztu aurretik aldeek haiek jarraitzeko konpromisoa hartuta. Arau horietan, argi zehaztuko da zein diren parte-hartzearen mugak eta prozesuaren faseak, bai eta, bereziki, erabakiak hartzeko prozedura zein izango den; izan ere, ez da onartuko taldeekin negoziazio paraleloak egitea, haien bitartez, pribilegioko posizio batzuetatik abiatuta, gainerakoei inposatzeko gutxieneko batenak diren eta adostu ez diren jarrerak.

Arau horiek “barrutia mugatzeko” dira, hain zuzen ere denok barruti horretan jokatu behar dugulako, inor kanpora irten gabe.

Hori dela eta, guztiz ezinbestekoa da hasieratik arauak argi uztea eta haiek azaldu eta idaztea, guztien begi-bistan edukitzeko, zeren eta, batzuetan, eztabaidaren intentsitatea dela-eta, joko-arau horietara jotzea komenigarri egiten duten inguruabar edo gaiak sortzen baitira.

Orientabide gisa, jada oinarritzko arau batzuk proposatzen ditugu, zeinak, gure ustez, ezinbestekoak baitira. Arau horiek, nolana ere, prozesuaren eta parte-hartzaileen ezaugarriak direla eta, aldatu edo zabaldu egin ahalko dira:

- Parte hartzen dute pertsonak eskubidea dute parte-hartzaileak aukeratzeko irizpideak ezagutzeko eta prozesuaren erantzukizuna duten erakundea eta pertsonak ezagutzeko.
- Alde interesdun guztien bazterketarik gabeko parte-hartzea onartzen da, unean-unean parte-hartzerako hautatzen diren tresnek ezartzen dituzten mugekin eta baldintza bakar batekin: prozesuko arauak onartzea eta parte hartzen duten gainerako pertsonak errespetatzea.
- Helburu gisa ezartzen da Natura 2000 naturagune bat kudeatzeko plan edo tresna bat idazteko ideiak ematea.
- Planaren edukiaren mugak biodibertsitatearen arloko legedi indardunak xedatzen duenari lotuko zaizkio.
- Herritarrek parte hartzeko prozesua proiektu kolektibo eta boluntarioa da. Hartan parte-hartzeak ez ditu aldeak lotzen boluntarioki hartu nahi dituzten konpromisoetatik harantzago joatera.
- Administrazio sustatzaileak berarentzat gordetzen du egokitzen jotzen dituen ekarpenak planeko amaierako agiriari gehitzeko eskubidea. Nolanahi ere, ekarpen guztiak baloratu beharko ditu eta konpromisoa hartzen du behar bezala justifikatzeko zergatik ez diren planean sartu hartan ez sartzea erabaki den ekarpen guztiak.
- Administrazio sustatzaileak konpromisoa hartzen du prozesuaren funtzionamendu egokirako behar den informazioa eta gutxieneko baliabideak emateko.
- Bitartekaritza- edo dinamizazio-taldea osatzen duten pertsona guztiek honakoa segurtatzeko ardura hartuko dute: saioak garatzeko behar den informazioa alde guztiei zuzentasunez banatzen zaiela, eta informazio horrek zorroztasunez begiratzen diela jatorrizko iturriei eta abiapuntuko datuei.
- Saioak behar den denboraz planifikatzen dira, datei eta ordutegiei erreparatuta, eta iristen errazak diren tokietan, halako moduz non interesa duten aldean parte-hartze efektiboa erraztuko baita.

- Administrazio sustatzaileak, prozesu parte-hartzailearen gardentasunaren bultzatzaile eta erantzule gisa, konpromisoa hartzen du zuzeneko kontaktu pribatuak ez edukitzeko prozesuaren emaitzan eragina izateko xedea duten interes partikularren alde, haien bidez planerako garrantzitsuak diren alderdi batzuk eztabaida publikotik kendu nahian.
- Taldeak ordezkatzan dituzten pertsonak ordezkaritza hori egiaztatu beharko dute eta konpromisoa hartu beharko dute talde horiei informatzeko, talde horietan eztabaida sortzeko eta horien jarrera parte hartzen duten taldeei helarazteko.
- Saio guztietan, lortutako akordioei eta eztabaidatutako aukerei buruzko aktak egingo dira, eta akta horiek parte-hartzaileei helaraziko zaizkie.

Alde interesdunekiko komunikazioa

Mezuak

Mezuak argi definitu behar dira, gure hitzen hartzailea den taldeak erraz ulertuko duen hizkera ulerterraza erabiliz, informazioan zorrotasunik galdu gabe. Eginbehar hori ez da beti erraza izaten. Zail gertatzen da erraz ulertzekoak diren termino komunak aurkitzea, esanahiaren zati bat galdu gabe. Horri dagokionez, komeni da gogoratzea, esate baterako, “biodibertsitatea” kontzeptua bera zaila eta teknikoa dela, eta gizarteko jende gehienarentzat ulertzen zaila dela. Horrenbestez, biodibertsitatean eragina duten arazoei buruz hitz egitea hizkuntza desberdinetan hitz eginez komunikatzea bezala da.

Kontuan hartuta prozesuaren helburua dela kudeaketa-plan bat idaztea, dibertsitate biologikoa kontserbatzearekin lotutako arazoak aurkeztu beharko dira parte-hartzaileen jarduerari dagokien neurrian, edo parte-hartzaile horiek tartean sar daitezkeen edo esku har dezaketen neurriari dagokien neurrian. Horrela, esate baterako, baldin eta abeltzaintzan dihardutenek ulertzen badute zein lotura dagoen eredu estentsiboaren eta hegazti sarraskijaleen edo kudeaketaren xedetzat hartutako larreen presentziaren artean, eredu estentsiboari eusteko zailtasunei buruz eta abereak kudeatzeko modu egokiari buruz eztabaida daiteke. Beti, errealtatetik eta parte hartzen duen pertsonaren pertzepziotik abiatzen den ikuspegi zehatzarekin bat.

Horrenbestez, mezuak taldearen ezaugarriekin konektatu behar du: ezagupenak, jarrera, hezkuntza maila, bizi estiloa, interesak eta ingurumen arazokiko eta kontserbazio neurriekiko inplikazio- eta erantzukizun-maila. Hori dela eta, berariazko mezuak hautatu behar dira, hartzaile desberdinentzat berezituak, mezu orokorrak ez baitira eraginkorrak izaten talde oso heterogeneoei zuzentzen zaizkienean.

Prozesu parte-hartzailearen hedapena

Hedabideak izugarri alda daitezke egoera batetik bestera. Baina tokiko hedabideak prozesua zabaltzeko bide gisa, komunikaziorako bide gisa eta deialdien berri emateko bide gisa erabiltzea aukerarik onena izaten da beti. Horrenbestez, hedabide horiek identifikatzea heldu beharreko lehenengo lanetako bat da. Tokiko baliabideak (tokiko aldizkariak, iragarkien oholak, udal bandoak...) erabiltzeak, gainera, indartu egiten du prozesu parte-hartzailearen xedea – hau da, Natura 2000 sareko gunea– zerbait berekia deneko sentipena. Tokiko erkidegokoa

den eta hartan eragina duen zerbaite. Horrek areagotu egin dezake herritarrek prozesua dela eta duten erantzukizunaren zentzua, eta hasiera batean interesaturik ez zegoen gizarte-ehunaren zati bat ere mugiaraz dezake.

“Aho-belarria”, seguruena, biderik eraginkorrena da (bai eta merkeena ere!) gertakari baten publizitatea egiteko. Bestalde, erkidego guztietan egoten dira bereziki errespetatzen diren pertsonak edo entitateak, edo, bestela, bereziki eraginkorrak direnak tokiko gaietako bozgorailu moduan, gutxienez ere beren eragin-esparru pertsonalean. “Tokiko hedapen-mekanismo ibiltari” horiek identifikatzen jakitea bitartekarien taldeak jorratu beharreko beste zeregin bat da.

Komunikaziorako erabili beharreko euskarri eta estiloaren hautapena, nolanahi ere, aurkeztu beharreko informazioaren eta balizko interesdunen ezaugarrien araberakoa da. Hartzaileen aniztasuna dela eta, gomendagarri izaten da zenbait bide osagarri erabiltzea, zeren eta “informazioa bide desberdinen bitartez eskaintzeak aukera eman baitiezaioke jende gehiagori informazio hori ulertzeko”³.

Komunikazioa eta kontaktua

Komunikazioak hurbileko eta gertukoa izan behar du, halako moduz non parte hartzen duten pertsonak sentituko baitute egiazki abegi egiten dietela eta laguntza ematen dietela. Komenigarria izaten da bai hasierako kontaktuak bai geroako komunikazioak (deialdiak, bertaratzeak, ekarpenak...) idatziz egitea (gutuna edo posta elektronikoa) edo ahoz egitea (telefonoz, bertatik bertara). Idatzizko komunikazioa instituzionalagoa izango da; zuzeneko kontaktuak, berriz, dinamizatzailerearen eta interesdunaren arteko behar diren hurbiltasuna eta konplizitatea emango ditu (deia bitartekari lanak egingo dituenak egin beharko du, ez haren idazkariak!).

Deialdiak direla eta, aipamen berezia egin beharra dago. Hertsiki beharrezkoak diren datuak jaso beharko dituzte deialdiek: dei egiten duenaren izena, tokia, data eta ordua. Bai eta informazio osagarria ere: bileraren helburuak, iraupena, zailtasun kasuaren norengana jo behar den, bertaratzea egiaztatzeke deia egingo dela abisatzea (izan ere, berebiziko garrantzia dauka bertaratuko diren pertsonen kopurua gutxi gorabehera ezagutzeak), saioan egin beharko diren “lanak” eta eranstean diren agiriak, halakorik badago.

Halaber, kontuan hartu beharra dago zeinen eraginkorra den modu intentsibo eta selektiboan komunikatzea lurraldean duten ingurumen-eraginarengatik gaitzat jotzen ditugun sektoreekin.


Arestian aipatu dugu beharrezkoa dela muntako informazioa behar den une zehatzean ematea. Komunikazio batzuk behar den denborarekin ezarri beharrekoak dira. Deitutako pertsonak beren agenda antolatzeke aukera eduki behar dute, eta denbora behar dute bidali zaien informazioa barnerratzeko.

Bitxia da bat-bateko topaketa eta jarduera sozialetarako eremu ugari (plazak, tabernak, terrazak, parkeak...) garatu ditugun herrialde batean, hain garrantzi txikia ematea komunikazio “ez-formalari”. Hau da, gutxi egituraturako “gertakari sozialen” bitartez gertatzen denari; esate baterako, txango laburrak, zizka-mizkak, hamaiketakoak, ospakizun ekitaldiak eta abar. Gertakari horiek pertsonen eta inplikaturako sektoreetako ordezkarien arteko bide bikoitzeko bat-bateko komunikazioa errazten dute, eta harremanetarako pizgarri izaten dira. Horrela, izan ere, ideien eta informazioen truke lasaia eta erabilgarriagoa bideratzen da, zeren eta truke hori ez baita gelditzen zurruntasunen, jarraibideen eta lantaldeen nahiz talde handiaren

³ Arthus Convention, New Castle Workshop, 2000.

lan-denboren menpean. Esan daiteke ez dagoela zertan gertakari horiek bereziki nabarmenak edo kostu handikoak izan. Nahikoa da 30 minutuko atsedenaldirik bat egitea, bertaratutako pertsoneri kafe bat eta jateko zerbitzu emateko. Une horretan, iritzi kontrajarrien arteko "koskak" berdindu daitezke, zalantzak argitu daitezke, aurrerago taldeari proposatuko zaizkion akordioetara iritsi daiteke, aliantzak indar daitezke, saioetan oso aktiboak ez izan ez direnen parte-hartzea edo integrazioa susta daiteke eta abar. Eta, gainera, aztergai dugun arloan beren aisialdiaren zati bat boluntarioki ematen dutenek eskertu ohi duten detailea da horrelakoak egitea.

Eta, azkenik, adierazi nahi dugu gaur egun teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aukerak ere aintzat hartu behar ditugula.



Internet bezalako tresna bat prozesu parte-hartzaileari gehitzeak izugarri erraztu dezake haren garapena. Izan ere, horrela, informazio anitza eskuratzeko aukerak nabarmen areagotzen dira. Sarearen bitartez, dokumentuen zirriborroak partekatu ahal dira, eztabaidak egin ahal dira eta ekarpenak egin ahal dira, eta horren bidez, bertaratzeko beharra dagoen bileren arteko lana dinamizatu ahal da⁴.

Interneten erabilerari esker, prozesuan parte har dezaketen alde interesdunen sorta zabalagoa egin daiteke, eta tokia egin ahal zaie aurrez aurreko lan saioetara joaterik izan ez dutenen ekarpenei.

Prozesurako berriazko webgune bat abian jartzeak aukera ematen du, besteak beste, prozesu parte-hartzaileko fase desberdinetako dokumentuak erraz hedatzeko eta gaurkoturik mantentzeko, Natura Sareari buruzko informazio garrantzitsua emateko, deialdiak egiteko eta albisteak zabaltzeko.

Horrenbestez, nabarmen hobetzen da prozesuaren zabalpena, eta bidea ematen da gauzatzen ari diren programei eta proiektuei buruzko iradokizunen eta iruzkinen trukearako. Eta, gainera, eztabaidarako eta zalantzak argitzeko foroak sortzeko aukera ematen da.

Baina, gogora ezazu teknologia berriak erabili nahi badituzu, bestelako bideak ere erabili beharko dituzu, prozesuetan parte hartuko duen landa-eremuko jende askok ez baititu inoiz erabiltzen. Beraz, teknologia berriak erabiltzen badituzu, aurretik haien kostu ekonomikoa baloratu beharko duzu: webgunea artatu eta bizirik mantentzeak kostu gehigarri bat dauka. Ez ezazu egin, horri aurre egiteko modurik ez baduzu.



⁴ Heras, F.2002: Entre Tantos. Ingurumen eta iraunkortasun arloko arazoei buruzko prozesu parte-hartzaileak dinamizatzeko gida praktikoa.

Eztabaidarako agiriak

Prozesuan parte hartzen dutenekiko bileretan eztabaidatzeko informazioa baizik ematen ez duten agiriak buruz ari gara, eta ez, horrenbestez, zalantzak argitzeko banatzen diren eta, beraz, lehendik existitzen direnei buruz.

Eztabaidarako agiriak saioetarako idatzi behar dira berariaz. Ez dute beste ezertarako balio. Hartzaile ez-adituei informazioa helarazi behar diete modu atsegin, ulergarri eta erraztuan, baina zorroztasunik galdu gabe. Hizkera teknikoaren "itzulpen" hori ezinbestekoa da, eta informaziorako sarbidea nahiz informazio-trukea bideratu behar ditu. Horrenbestez, agiri labur eta errazak izango dira. Komenigarria da, nolanahi ere, eskatzen duenari sarbidea ematea planen oinarri teknikoaren aurrerapenen bertsio zabaldua eskuratzeko.



Kasua bada, saioetan eta banatzen diren agiritan, tokian tokiko hizkuntzen erabilera erraztea funtsezko alderdi bat izaten da horrelako prozesuak garatzeko. Saioa hizkuntza batean egin arren, parte hartzen dutenek beste hizkuntza bat erabiltzea nahiago badute, aukera hori erraztu beharko da, eta taldeko gainerakoei horren itzulpena eman beharko zaie. Horrek indartu egiten du tokiko herritarrek prozesua dela-eta daukaten inplikazio-sentipena, eta parte-hartzea errazten du landa eremu askotan.

Parte-hartzerako tresnak:

edo nola lortu jendeak informazioa bilatu, hitz egin, entzun eta erabaki dezan

Neurri handi batean, dinamizatzailen abileziari eta trebetasunari buruz ari gara: dauden tresnak ezagutzeari buruz, enpatiarako gaitasunari buruz, denborak antolatzeako trebetasunari buruz, jendeak orekatasunez hitz egin dezan errazteko eta jendea entzunarazteko trebetasunari buruz, eta dinamika eta eztabaida egokiro zuzentzeko trebetasunari buruz.

Zeren eta tresna ugari baitago. Baina gakoa da kasuko tresna edo teknika egokitasunez doitzeari prozesuaren errealitate eta taldearen ezaugarrietara, eta behar den unean aldatzen jakitea, baldin eta gauzek egoki funtzionatzeko ez badute.

Honakoak dira tresna baten edo bestearen aukeraketan eragin dezaketen faktoreetako batzuk:

- **Aurrez aurreko bileraren helburua:** garrantzitsua da mugatzea zein diren saio bakoitzean lortu nahi dugun informazio mota eta xehetasun-maila, bertaratu direnen ezaugarrien arabera.

Abeltzainekiko bilera tirabiratsua



Inguruko abeltzainekin egin beharreko bileraren testuingurua ez zen egokiena. Goizean, beste saio batean, iritzi-lider batzuek honakoaz ohartarazi ziguten: “zuen aurka jo behar dute”. Bi egun lehenago, bi saik zenbait ardiri eraso egin zieten, bildotsez erditzeko unean. Argi mugatu behar zen bileraren helburua, eztabaidak ez zitezen soilik arazo horri buruzkoak izan. Helburua bakarra zen: taldearekin eztabaidatzea planeko zirriborroan aurreikusitako neurriak, haien jarduerarekin zerikusia zutenak, eta honakoa galdetzea: “*Zer arazo ikusten duzu zuk, zure jardueraren ikuspuntutik, neurri hau aplikatzeko?*”. Eta arazoren bat dagoela hautemanenez gero, “*Bestelako zein aukera edo bide proposatzen duzu arazorik egon ez dadin?*”

25 abeltzain baino gutxiagoko talde batekin, soilik abeltzaintzaren jarduerarekin lotutako neurriak erreparatu genituen. Lehenbizi, xehetasunetan sartu gabe, arazoren bat ekar zezaketenak hautatu genituen; gero, talde txikitik, arazo horiei konponbidea nola eman landu genuen.

Talde handian gaiak landu ondoren, sektoreak eskatutako neurri berriak aztertu ziren.

Hasierako giro tirabiratsua lasaitzen joan zen pixkanaka, eta errespetuzko eta lanerako giroa sortu zen. Saien arazoa ez zen alde batera utzi: azaldutako ekarpenak jaso ziren. Agian, bileraren helburua eta transmititu eta lortu beharreko informazioa hasieratik “zentratzea” lagungarri gertatu ziren bilera produktiboa izan zedin.



- **Aurreikusitako parte-hartzaile kopurua:** ezustekoak izan daitezkeen arren, lanean zenbat pertsona arituko garen alde aurretik ezagutzea lagungarri gerta daiteke tresna bat ala bestea aukeratzeko.


Jende askorekin, hizketa gai ugari denbora gutxirekin



Kasu honetan ere, parte-hartzaileek aurretik aukeratu zituzten eztabaidatu nahi zituzten neurriak, zeren eta jotzen baitzuten haien aplikazioak arazoak ekar zitzakeela. Baina, parte-hartzaileen kopuruak, aukeratutako neurrien bateria zabal eta anitzak eta erlojuak –etengabe aurrera egiten baitzuen–, errekamaran generaman teknika bat erabiltzera bultzatu gintuzten: “zaldiko-maldiko”⁵ teknikaren egokitzapen bat. Teknika horren oinarria da aretoan talde txikiak mugiaraztea, arreta “laneko geraleku” desberdinetan jarrazteko eta geraleku horietan aurreko taldeak proposatutako ideiekin lan egiteko.

- Aukeratutako neurriak aretoko 6 eremutan edo “laneko geralekutan” banatu genituen.
- Bitartekaritza taldeko pertsona batek geraleku bakoitzean bideratzaile lanak egiten zituen (beste aukera bat da eginkizun hori talde bakoitzeko parte-hartzaile batek bere gain hartzea). Pertsona horren ardura zen bere geralekuan azaldutako neurriak enfokatzeko eta erantsitako papelografo batean arazoak eta haiei ekiteko modua jasotzea.
- Talde handia 6 talde txikitan banatu zen, bakoitza geraleku batean, geraleku horretako arazo zehatzak lantzeko.
- Dinamikako zuzendariak seinalea emanda, talde bakoitzak hurrengo geralekura aldatu behar zuen. Guztiek egiten zuten aurrera, salbu eta bideratzaileek. Izan ere, horien egitekoa zen aurreko taldeak adierazitakoa laburbiltzea eta talde berriaren ideia eta ekarpenak jasotzea.
- Talde guztiek papelografo bakoitzerako beren ekarpena egin ondoren, bateratze-lana egin zen.

Errotazio bakoitzerako denbora gutxitzen joan zen, dinamikak aurrera egiten zuen ahala, zeren eta ideia asko aurreko taldeek adierazitakoak baitziren.



⁵ Hesselink, F. 2007. La Comunicación, Educación y Conciencia Pública.

- **Erabil daitezkeen baliabideak:** Tresna ugari daude talde txikitan lan egitea eta talde horietan dinamizatzailerak eta behatzaileak egotea eskatzen dutenak, bai eta espazio isolatuak edukitzea ere, haietan elkar oztopatu gabe lan egin ahal izateko; halaber, laguntzako materialak eta ekipamenduak eskatzen dituzte. Beste batzuek, berriz, denbora luzea eskatzen dute. Baliabide horiek ez dira egoten beti erabilgarri, eta muga bat izaten dira kasuko tresna erabiltzeko.

Arreta zehatza



Behin, lau pertsonako talde txiki bat geneukan. Honako ezaugarriak zituzten: agiriak irakurtzeko zailtasuna, jendaurrean eta gaztelaniaz hitz egiteko zailtasuna, gauzak idatziz adierazteko arazoak. Nolanahi ere, balio handiko informazioa zuten tokiko ingurumen arazoak ezagutzeko eta kontserbazio-neurriak garatzeko.

Zorionekoak gu!: eremu babestuko langile batek, zeinak haiekin harreman pertsonal eta profesional egokia baitzuen, bere burua eskaini zuen saioetan laguntzeko. Horiekin batera eserita, esku-hartzaileek planteatutako zalantzak ebazteaz arduratu zen, taldearen eleduna izan zen bertaratutakoen aurrean, laguntza eman zien agiriak irakurtzeko eta ideien ekaitzean erabili ziren txartelak idazteko, eta abar.

Saio bakoitza hasi aurretik, noski, bitartekaritza-taldeak informazioa ematen zion pertsona horri saio bakoitzaren programazio osoari buruz.


- **Taldearen heterogeneotasuna,** jokoan ziren interesei edo ordezkaturako sektoreei zegokienez.

Elkarrekin, baina ez nahasirik

Batzuetan, ez da komeni izaten soilik saio sektorialak egitea, eta beharrezko suertatzen da sektore bakoitzerako berariazko dokumentuak garatzea.

Aldeei, alde aurretik, saioetan eztabaidatu nahi dituzten gaiei buruz kontsulta egitea lagungarri gertatu zaigu honakoa erabakitzeke: gai berari buruzko bilerak egun desberdinetan egin ala saio bakarra egin gai desberdinekin.


Beste batzuetan, talde sektorialak lehendik ezarrita zeuden, eta parte-hartzaileak dira nahi duten taldean izena ematen dutenak. Eztabaidetan zehar, maiz, kartel edo txartel itsasgarriak erabiltzen dira, sortzen diren ideiak biltzeko, elkarrekin lotzeko eta hierarkizatzeke.



- **Parte-hartzaileen partaidetzako kultura.** Lehendik dauden teknika asko berritzaileegiak izan daitezke, edo parte-hartzaileek alde aurretik esperientzia izatea eska dezakete.

Esperientzia atsegingarri bat

Nafarroako Pirinioen aldean jardun behar genuen lanean. Bertako ezaugarriek ez zuten zalantzarako tarterik uzten. Zenbait urte lehenago ezezkua emana zioten natur parkearen deklarazioari. Interesen aniztasuna –interes horietako batzuk elkarrekin kontrajarriak–, alde interesdunen profilen aniztasuna eta ingurumen administrazioarekiko antzematen zen mesfidantza kontuan izanda, beharrezkoa zen lurralde-eredu deseagarria adostea. Lurraldeari buruzko ideia bat zeinaren gainean, aldeei satisfazioa eman ondoren, prozesu parte-hartzailea oinarrituko zen eta hura kudeatzeko oinarri teknikoak eraikiko ziren.




Etorkizuneko eszenatoki horretara iristeko erabilitako metodoa EASW (European Awareness Scenario Workshop) deitutakoa izan zen. Hura

aplikatzeko izugarritzko ahalegina egin behar izan genuen guztiok.

Tailerra egin aurretik, ordea, teknikak zenbait zeregin exijitzen zituen: bitartekaritza-taldearen prestakuntza eta koordinazioa; bertaratuko zirenen aukeraketa egituratua; eta aukeratutako pertsonekiko elkarrizketak, aurreikusitako dinamika eta haiengandik espero zena azaltzeko. Horren ondotik, tailerra egin behar zen: lan jardunaldi oso bat hartu zuen, soilik bazkaltzeko geldialdia eginez. Bazkaria ere gaiari buruz mintzatzen jarraitzeko programatuta zegoen.

Guztiarekin ere, esperientziak erabateko arrakasta izan zuen, bertaratutakoek eginiko balorazioen arabera. Izan ere, gehiengo zabal batez adostutako lurralde-etorkizuneko ereduan biltzen ziren interesak nabarmendu zituzten. Etorkizun deseagarri horren definizioak, arazo errealetatik abiatutakoak, pertsonak konponbideen bilaketa eraikitzailean kokatu zituen, gatazkak une baterako minimizatuz.


Jardunaldiaren ondoren, eta bitxikeria moduan, esan nahi dugu talde teknikoak abeltzaintzari buruzko mahaiaren emaitzak irakurri zituenean, harridura atsegingarri egiaztatu zuela proposamen eta helburu estrategikoak ez zirela funtsean asko bereizten haiek berek antzeko ezaugarriak zituen beste naturagune baterako proposatutakoetatik. Oraingoan, ordea, helburu horiek bestelako zilegitasuna zeukaten, bertako abeltzainek proposatutakoak izatearen zilegitasuna, alegia.



- **Parte-hartzea garatzen deneko ingurunea, testuingurua eta “giroa”:** tresna baten egokitasuna ezin da egon, horrenbeste, tresnaren beraren baitan; izan ere, gehiago egon beharko du parte-hartzaileek hura erabiltzeko motibazioaren edo jarreraren baitan. Horretarako, zenbait faktorek eragin handia daukate: “status” soziala edo profesionala, jendaurrean hitz egiteko ohitura edo beldurra, gainerako parte-hartzaileak zenbateraino ezagutzen diren edo prozesuan sinesten den ala ez.

Kontu kontari

Bitxia da, baina toki erkidegoekiko bileretan ongi funtzionatzen duten teknika edo tresna askok ez dute ongi funtzionatzen erakundeen ordezkarietako bileretan.



Saio instituzionala zen hura. Gobernu autonomiko bateko zenbait departamentutako goi-karguak bertaratuak ziren, entzuten baino gehiago hitz egiten ohitutakoak. Batzuentzat, gehiago zen Ingurumen Departamentu beti deserosoak behartuta joateko deialdi bat deseaturako deialdi bat baino. Bileraren xedea zen biodibertsitatea zaintzearen arloan mahai sozialek antzemandako arazoak aztertzea. Ekarpen horietako asko azaltzerakoan, kritika latza egiten zen Administrazioaren jokabideari buruz; beste batzuetan, berriz, informazio falta nabarmena besterik ez zen azaltzen. Kontuan izanda, batetik, arazo kopuruaren handia eta arazoaren aniztasuna, eta, bestetik, erabiltzeko zegoen denboraren laburra, erabaki genuen arazo garrantzitsuenak aukeratzeko teknika bat aplikatzea, kolore desberdinetako txartelen bitartez bozketa-errondak eginez. Halere, oso zaila da goi-kargudun batek, bere ohiko bileretan bestelako dinamikak erabiltzen ohituak, interpretatzea teknika hori denbora aurrezteko eta zentratu beharreko eduki komun muntadunak hautatzeko teknika bat dela.

Teknikak emaitza bikainak eman izan dizkigu beste batzuetan. Orduan, ordea, erabateko porrota izan zen. Ez ginen gai izan bileraren aurretiko tentsio-giroa baloratzeko. Bertaratutakoetatik asko ez zeuden txarteekin aritzeko gogoz. Oso argi zuten bilera horretan zer esan nahi zuten, eta hori esateko prest joan ziren, nahiz eta esateko zuten hori bat ez etorri haiek deitzeko helburuarekin. Agian, interpretatu zuten beren departamentuei buruzko kritikak, parte-hartze sozialeko saioetan adierazitakoak, Ingurumen Departamentuak bere probetxurako sustatutakoak izan zirela, edo, agian, ez genuen behar bezain argi utzi esamesen jatorria zein zen, eta departamentua, noski, ez zetorrela nahitaez bat esamesa horiekin. Kontua da bilera hasi baino lehenago bukatu zela, bertaratutakoetatik batek hitz egin zuenean; hitz egin ondoren, joan egin zen, gainera, erantzuna jaso arte itxaron gabe. Beharrik ez genien “zaldiko-maldikoaren” teknika proposatu pertsona hain “garrantzitsuei”.

- Parte hartuko duten pertsonen landu beharreko gaiari buruz **aldez aurretik informazioa zein ezagutzak ematea**. Denborak antolatzerakoan, aurreikusi beharra dago zenbat denbora beharko den edo hartu ahalko den informazioa emateko edo landu beharreko gaiari buruzko azalpenak emateko. Esperientziak esaten digu bertaratzeko saioen aurretik informazioa edo lana bidaltzen denean, orokorrean, parte-hartzaileek gutxi irakurtzen eta aztertzen dituztela, salbu eta motibazio berezia dagoen kasuetan. Denbora bat planifikatu beharra dago “doikuntza lanetarako”, dinamika “abiarazten” hasi baino lehen.

Gida honen azkeneko atalean, zenbait agiri eta liburu aipatzen dizkizugu, non parte-hartzearen une desberdinetan erabil ditzakezun teknika eta tresna ugari deskribaturik aurkituko dituzun.

Nola ebaluatu gauzak zuzen aterak diren

Ebaluazioa herritarrek parte hartzeko prozesuaren diseinuan sartu beharra dago, eta, ahal den neurrian, hartan zehar egin beharko da, halako moduz non lortutako balorazioak baliagarri gertatuko baitira hura berriz orientatzeko edo hobetzeko, aurrera egiten duen neurrian.

Askotan, ebaluazioari soilik begiratzen zaio parte hartzen duenaren ikuspuntutik, eta hura garatutako prozesuarekin (zabalpena, metodologia, antolamendua eta funtzionamendua, irisgarritasuna) eta lortutako emaitzekin pozik dagoen baloratu nahi da.

Emaitzari buruzko adierazle objektiboki egiaztagarriak edukitzeko beharra dela eta, maiz ebaluazioa lortzen errazak diren baina balio erlatiboa duten adierazle kuantitatiboetan zentratu beharra dago. Horrela, maiz asko, honakoak zenbatu ohi dira: parte-hartzaileen kopurua, bertaratutako alde interesdunak, gizonezkoen eta emakumezkoen ehunekoa...

Hala eta guztiz ere, ezinbestekoa da beste irizpide batzuetan sakontzea, prozesuaren kalitate ebaluatu ahal izateko, besteak beste honako alderdiak bilduz: gardentasuna, barneko komunikazioa, informazioa eskuratzen erraza izatea, erakundearen arteko koordinazioa, joko-arauen ezarpena eta haiekiko errespetua, jasotako ekarpenen kalitatea, emaitzan sarturiko ekarpenen ehunekoa...



Kalitate faktore horiek, batzuetan, zenbatzen zailak dira. Hala eta guztiz ere, ebaluatu egin behar dira. Onena litzateke tresna bat baino gehiago erabiltzea, ahal den balorazio osatuena lortzeko (satisfazioari buruzko galdetegia, telefono bidezko elkarrizketak, elkarrizketa sakonak iritzi-liderrei eta gakoa diren pertsonari, zuzeneko behaketa, dianak, iradokizunen postontzia eta abar). Praktikan, ordea, askotan ikusten dugu parte-hartzaileen iritzia jasotzeko aukeragun une bakarria bertaratzeak diren bilerak izaten direla. Horietan, aldiz, denbora ez da sekula sobran izaten, orokorrean, eta askotan ordutegia ahal den guztian erabiltzen dugu, mantso-mantso "ihes egiten dutenen tanta-jarioa" hasten den bitartean. Halakoetan, zail gertatzen da bertaratutakoei "ahalegin" handiagoa eskatzea, behin bilera amaitu deneko sentipena zabaltzen hasi denean. Komeni da, horrenbestez, behar den denbora gordetzea saio bakoitzaren ebaluazioa egiteko; izan ere, ebaluazioa saioaren dinamikan egoki txertatu beharra dago.

Emaizta partzial batzuk izaten dira “beroan” ebaluatu ahalko direnak eta ebaluatu beharko direnak, saio bakoitzaren ondoren. Beste batzuk, aldiz, prozesuaren amaieran ebaluatu beharko dira, hari buruzko ikuspegi orokorra daukagunean eta haren amaierako emaitzak ezagutzen ditugunean. Beste behin, errealistak izan behar dugu eta ebaluazioak planteatzen dizkigun muga jakitunak, egoki planifikatzeko zer ebaluatuko dugun eta ebaluazio hori noiz eta nola egingo dugun.

Ebaluazioak ere gai izan behar du bereizteko, batetik, prozesuaren kalitatean eragin negatiboa izan duten arazoak, prozesuaren beraren eta haren eragileen esparruan konpontzeko modukoak izan dezaketenak, eta, bestetik, kanpoko baldintzen baitan daudenak –esate baterako, ingurumen administrazioaz edo alde interesdunetz kanpoko iturrietatik heldutako informazioa edukitzea–.

Denen gustura behin ere euririk ez

Eginahalak eginda ere, prest egon beharra dago poz gutxi eta kritika ugari jasotzeko. Prozesua oso gardena eta garbia izanik ere, beti egongo dira talde batzuk prozesu iluna eta manipulatu izan dela esango dutenak. Baina kritikak jasotzeak ez du beti esan nahi gauzak gaizki egin direnik. Talde batzuek alde aurretik jarrera oso finkatua daukate agiriaren edukari buruz, dela jarrera politikoengatik, dela interes sektorialen defentsarengatik, batzuetan gune babestuaren kudeaketa gainditzten duten gaietan. Talde horietako batzuk, prozesu parte-hartzailea edonola formulatuta ere, hura beti kritikatu dute, baldin eta emaitzek ez badituzte osorik jasotzen haien iritziak eta proposamenak; oso litekeena da, gainera, inolako ekarpenik ez egitea eta amaierako agiria jendaurrean errefusatzeko, hura irakurri gabe ere. Horretan eskarmentua daukagu, ikusi baitugu nola prozesu batean parte hartu duten pertsona batzuek, erakunde batzuen ordezkari gisa prozesurako lokalak eta babes logistikoa ere eman dutenak... gero prentsa-ohar bat izenpetzen duten, non, prozesuaren kalitatea auzitan jartzeaz gainera, prozesua bera existitu den ukatu ere egiten duten.

Ez duzu etsi behar. Kritika horiek saihestezinekotzat jo behar dituzu eta egiazki herritarren parte-hartzea hobetu nahi dutenetan zentratu behar duzu. Hainbesteko zeregina dago, non ez duzun denbora galdu behar halako kritikekin... baina, aldi berean, ez duzu lortutakoarekin gozo gelditu behar.



Adibide gisa, gida honen azkeneko atalean, zenbait irizpide eta adierazle bildu ditugu, prozesu baten ebaluazioa planifikatzeko kontuan hartu beharrekoak.

PROZESU BAT GARATZEA

Natura 2000 Sarerako kudeaketa-planak

Eskuliburu honen xedea ez da azaltzea zer egitura edo eduki izan behar dituen Natura 2000 Sareko naturagune baten kudeaketa-plan edo -tresna batek. Badira xede hori duten zenbait eskuliburu⁶. Gure apustua plangintza parte-hartzaile baten aldekoa da, planaren idazketa teknikoa eta herritarrek plangintzan parte-hartzea aldi berean gertatzearen aldekoa, eta, hortaz, komenigarria da planen egitura gaingiroki ezagutzea. Hori izango baita modu bakarra ulertzeko nola bi prozesu horiek, teknikoa eta soziala, uztartzen eta atzeraelikatzen diren.

Modu erraz batean adieraztearren: kudeaketa-plan baten egituraren oinarrian neurri aktiboen sortak, jarraibideak eta arauak daude, kudeaketaren xede gisa identifikatzen diren funtsezko osagai zehatzetarako berariaz definitutakoak. Funtsezko osagai horietako bakoitzerako azken xedea edo helmuga definitzen da, eta azken xede edo helmuga gisa hartzen da agertoki bat, zeinean haren kontserbazio-egoera aldekatat hartzen den eta epe luzerako ziurtatzen den. Emaiza edo helburu operatiboak ere definitzen dira, eta emaitza edo helburu operatibo gisa hartzen dira planaren indarraldiaren amaieran erdietsi beharko dugun egoera definitzen dutenak, baldin eta epe luzerako proposatu dugun jomuga erdietsi nahi badugu.

Planaren egoera eta emaitzak ebaluatu ahal izateko, definitu egin behar da, funtsezko osagai bakoitzari dagokionez eta objektiboki egiaztatzeko moduko adierazleak baliatuta, egungo egoera zein den, bai eta adierazle horiek plana betetzeko epea bukatutakoan eduki beharreko balioa ere.

Habitatari eta hegaztiari buruzko zuzentarauetan eta espezie mehatxatuen katalogo nazionalan eta autonomikoetan jasotako natur habitata eta faunako eta florako espezieak dira funtsezko osagai gehienak. Batzuetan, planak bakunagoak izate aldera, funtsezko osagai gisa hartzen dira antzeko eskakizun ekologikoak dituzten erkidego biologikoak edo kudeaketa bera behar duten natur habitaten multzoak, edo are ikuspuntu ekosistemiko batetik tokia osotasun ekologikoa hobetzen duten osagaiak ere, alde batera utzita tokian tokiko osagai biologiko zehatzen izaera.




⁶ EAeko kudeaketa-planek metodologia gaurkotu bat aplikatzen dute, "Nafarroako Natura 2000 Sareko guneen kudeaketa-planak taxutzeko gida metodologikoa" (García S., 2003) izenekoaren aldean.

Kudeaketa-plan baten eredu-tipo bat zenbait fasetan egituratu ohi da:

1 Diagnostikoa


Informazio orokor interesgarria jasotzen du tokiaren kokalekuari eta mugei buruz, tokia Natura 2000 Sareko naturagune gisa izendatzea eragin duten natur habitatei eta florako eta faunako espezieei buruz, tokiaren osotasun ekologikoa ezartzen duten ezaugarri fisiko eta ekologikoei buruz, kudeaketari begira garrantzitsuak izan daitezkeenak.

Azkenik, "funtsezko osagai edo kudeaketaren xede" izan behar duten osagai naturalak zehazten dira –planak berariazko neurriak jaso beharko ditu horiei dagokienez–; izan ere, horrela egin ezean epe luzera ez baita ziurtatzen horien kontserbazioa, edo funtsezko osagai horien mende dauden beste natur habitat edo espezie batzuenak.



Dokumentu honetan orobat aztertu behar dira giza jarduerak, tokiaren izendapena eragin duten balio naturalen kontserbazio-egoeran eragin zuzen nahiz zeharkakoa izan dutenak, bai eta kudeaketaren arloko neurriak proposatzerakoan kontuan hartu beharreko beste edozein informazio sozioekonomiko ere.

Azterketa horrek, sarritan, lehen mapa bat ere ematen digu, naturagune babestuko jarduera ekonomikoaren eta biodibertsitatearen kontserbazioaren artean gertatzen ari diren nahiz gerta litezkeen gatazken gainekoa. Eta orobat ematen dizkigu argibideak planak babestu behar dituen jarduera ekonomiko onuragarriari buruz eta eremuaren garapen sozioekonomiko iraunkorraren mesedetan susta litezkeen jarduera bateragarriari buruz.



2 Helburuak

Kudeatu beharreko osagaiak, haien tokian tokiko kontserbazio-egoera eta haiei eragiten dieten edo eragin diezaieketen giza jarduerak ezagutu ostean ezartzen ditugu, alde batetik, toki bakoitzean osagai bakoitzari dagokionez modu errealista batez amestu dezakegun agertoki ideala, eta beste alde batetik, hurrengo urteotan erdietsi nahi ditugun emaitzak, emaitza horiek erdietsi diren ala ez neurtzeko modua adierazita.

Bazkalekuen azalera mantendu eta turismoaren eragina kontrolatu



3 Neurriak

Azkenik, aurreikusitako emaitzak erdiesteko beharrezkoak diren neurriak edo jarduketak definitzen ditugu.



Jarduketa-plan bat denez gero, komenigarria izan ohi da neurriak gunearen barruan kokatzea; hartara, lan-egutegia eta eremuak zehazten dira, planak iraungo duen urteetarako.

4 Kostuak eta aurrekontua

Plana aurrera eraman ahal izate aldera, proposatzen den neurri bakoitzaren kostua kalkulatu behar da, bai eta neurriak finantzatzeko eta betetzeko arduraduna nor izango den ere.

Aurrekontuan, kontserbazio-neurri zuzenak ez ezik, planaren helburuak lortzen laguntzen duten konpromisoak hartzen dituztenek jaso beharreko laguntzak ere sartu behar dira. Orobat zehaztu behar dira neurri horiek finantzatzeko baliatuko diren tresnak.

5 Jarraipen-programa

Planeko aurrerabideak neurtzen utzi behar diguten neurriak eta plana aplikatzen bukatutakoan adierazle bakoitzari dagokionez erdietsi beharreko balioak jasotzen ditu jarraipen-programak. Orobat adierazi behar da datu horiek nola lortuko diren, noiz lortuko diren eta datuok lortzeaz zer entitate arduratuko den.

Plan orok aurreikusitako behar dituen moldaera-kudeaketako tresnak, bide emango dutenak aurreikusitako emaitza lortzen ari ez diren neurriak kentzeko edo aldatzeko edo planaren emaitza partzialen arabera beharrezkotzat jotzen diren beste neurri batzuk proposatzeko.

Plana taxutzen parte hartu zuten alde interesdunei informatu behar zaie planaren emaitzei buruz, aukera izan dezaten ekarpen gehiago egiteko, kudeaketa behar bezalako emaitzak lortzen ari ez denean. Horrenbestez, kontu-emateko eta gizarteak parte hartzeko tresnak ezarri beharko ditu planak, planaren jarraipenari eta betetzeari dagokienez.

Parte-hartze prozesu baten faseak (edo nola eta noiz eseri eztabaidatzera)

Ukitutako administrazioen eta sustatzailearen eginbeharrak

Prozesuan parte hartuko duten gizarte-eragileekiko bilerak garatzen diren denbora-tartearekin identifikatu ohi da prozesu parte-hartzailea. Halere, gizarte-eragileekiko lehen hartu-emanak hasi aurretik lan ugari dago egiteko aurretiaz.

Herritarren parte-hartzearen helburuak eta norainokoa.

Parte-hartze prozesua sustatzen duen administrazioak ebatzi beharreko lehen auzia da noraino sustatuko eta onartuko duen herritarren parte-hartzea, eskuliburu honetako 2. blokean adierazi den legez. Esan bezala, proposatzen dugun eredu interesdunei informazioa emate hutsetik eta kontsulta egitetik harantzago doa, eta "parte-hartze aktibo" gisa ulertu ohi denaren barruan sartzen da. Hortaz, gure asmoa ez da soilik alde interesdunei informatzea administrazioak taxutu duen eta onetsi nahi duen kudeaketa-planari buruz, ezta haien ekarpenak balioetsi eta planari buruz zer iritziz duten eskatzea ere. Hona, beraz, parte-hartze aktiboko prozesuaren helburu nagusiak:

- Elkarrikeria aktiboa ezartzea zenbait talderekin, talde horiek buru-belarri sar daitezen kudeaketa-planak edo -tresnak planifikatu, bete eta ebaluatzeko prozesuan.

- Plan bat adostea, naturagune babestuan aplikatu beharreko kontserbazio-neurri aktiboak jasoko dituen, legeak ezartzen duen aldeko kontserbazio-egoera erdiesteko.

Eta gakoa da erabakitzea noraino helduko den elkarrizketa: ea administrazioak beretzat gordetzen duen erabakitzeko eskubidea, ea nola hartuko diren kontuan parte-hartzaileen ekarpenak, edo ea planeko esparruren batean erabakia bi aldeen artean hartu ahalko den.

Helburu nagusia eta parte-hartzearen norainokoa ebatzita, bigarren mailako beste batzuei ekin ohi zaie, hala nola jendearen, politikarien nahiz beste talde berezi batzuen interesa areagotzea tokiaren kontserbazioari eta planei dagokienez; toki-erkidegoek beren natur balioei buruz duten ezagutza hobetzea, edo, are, ikaskuntza soziala bultzatzea, erkidego horiek naturagune babestuaren kudeaketa hitzartuan aktiboki inplikatzeko gaitasuna hobetzeko.

Baina helburu horiek guztiak helburu nagusia lortzeko ahaleginen mende egongo dira, eta, betiere, argiro definitu beharko dira. Hori izango baita ebaluazioa behar bezala planifikatzeko modu bakarra.

Parte-hartzea plangintza estrategikoaren eta lurralde-plangintzaren barruan sartzea


Bigarrenik, kasuan kasuko autonomia erkidegoko gobernu sektore-administrazioei –probintziakoei nahiz tokikoei– jakinarazi behar zaizkie prozesua abian jartzeko asmoa, prozesuaren helburua eta norainokoa, naturagune babestuaren lurraldearen gaineko eskumenak baitituzte.

Naturagune babestuen kudeaketa-planak edo -tresnak ingurumen departamentuen ardura dira, baina modu batera edo bestera eragiten diete naturagune babestuaren barruan egiten diren jardura guztiei. Jardura horiek, berriz, beste departamentu, diputazio edo udal batzuen ardura dira, eta horiek dira arautu, kontrolatu eta partikularrak akuilatu edo atzera egin dezaten lortzen dutenak; izan ere, lurraldearen eta natur baliabideen erabilera jakin batzuk bultzatzen dituzte, eta beste batzuk, aldiz, moteldu.

Natura 2000 Sarean sartu diren eremuak helburu jakin batekin sartu dira hor: gure natur ondarea eta gure aniztasun ekologikoa osatzen duten espezie basatiek eta habitatek bizirik iraun ahalko duten tokia izatea. Hortaz, denon artean erabaki dugu eremu horietan hori izango dela administrazioan lan egiten dutenek zaindu beharreko helburu nagusia, beste edozein helbururen gainetik. Eta helburu horrek ez diela kalterik ekarri behar bertan bizi direnei, haien bizitza-kalitatea murriztu edo eremu horietatik kanpo bizi den beste edozein pertsonaren errentarekin parekatzeko moduko aukerarik murriztu. Eta helburu hori ez dagokie soilik ingurumen departamentuei, ezpada Administrazio osoari. Horrenbestez, departamentu bakoitzak aztertu behar du, bakoitzak bere eskumeneko auziei dagokienez, zertan lagun dezakeen.

Beraz, nahiz eta ingurumen arloko administrazio autonomikoa izan, Natura 2000 Sarea ezartzeko arduraduna den aldetik, prozesu hauek sustatzen dituen, administrazioaren maila guztietan izan beharko lukete prozesua abian jarri izanaren berri, eta definitu egin behar da prozesuan nola parte hartuko duten, lurralde buruz izan ditzaketen itxaropenak eta eragozpenak mahai gainean jartze aldera. Bai eta hartu beharko dituzten neurriak gogoan hartzeko ere, bateragarri egite aldera haien jarduketak eta helburu nagusia (tokiaren osotasun ekologikoaren kontserbazioa).

Gogorarazi beharra dago herritarraren begietan bat bakarra dela Administrazioa. Herritarrak ez du ulertzen interes kontrajarriak egotea administrazio bereko departamentu ezberdinen artean. Ezinbestekoa da administrazioak irudi koherente bat ematea herritarrei, herritarrek parte hartzen duten bileretan. Kontraesan orok erakundeekiko mesfidantza eta haien izen ona galtzea dakar. Eta hori ekiditeko modu bakarra da behar bezala planifikatzea erakundearen arteko koordinazioa prozesuan zehar.



Halere, Administrazioaren jarduteko modua etsigarria da sarri. Departamentu bakoitzak bere eskumeneko jarduerak programatzen ditu, eta, askotan, beste departamentu batzuek lurralde horrentzat berarentzat planifikatutakoa kontuan hartu gabe erabakitzen ditu bere helburuak eta proiektuak. Askotan, proiektu horiek kontrajarriak eta are bateraezinak dira. Beste kasu batzuetan, inbertsioak eta garapena dakartzaten proiektuen ardura duten departamentuek alde batera uzten dituzte naturagune babestuak, uste dutelako ingurumen departamentuen ardura direla, baina horiek ez dute izaten inbertsioak egiteko ahalmenik, ez eta, horrenbestez, naturagune babestuen garapen sozioekonomikoaren garapenari zuzenean eta nabarmen eragiteko ahalmenik ere.

Batzuetan, parte-hartzaileek berek parte-hartze handia dute

Behin batean, Natura 2000 Sareko gune baten kudeaketa-planean parte hartzeko prozesuan ustez interesaturik egon zitezkeenekin harremanetan jarri ginenean, gure solaskideak, guri entzun ostean, adeitasunez uko egin zion prozesuan parte-hartzeari. Eta bere jarrera justifikatzearen azaldu zigun Turismo Sailak urte horretan berean egina zuela antzeko prozesu bat, eskualdearen garapen turistikoko plan baten kariatara. Aurreko urtean, Nekazaritza Sailak Landa Garapeneko Eskualde Plan bat sustatua zuen, beste departamentu batek –izena ez zuen gogoan– "Tokiko Agenda 21" izeneko abian jarri aurretik; eta hori guztia Lurraldearen Antolamendu Sailak Eskualdearen Garapen Iraunkorrari buruzko Planari begira herritarren parte-hartzea sustatu eta doi-doian bi urtera eta Enplegu Sailak Gazte Enpleguaren Pizgarri Planari nahiz Landa Eremuko Emakumeei Laguntzeko Planari begira gauza bera egin ostean. Eta gure solaskideak horietan guztietan parte hartu zuen, bere aisialdia eta bere bizitza kalitatea nabarmen murriztuta, eta berak zekienaren arabera, ez zen abian jarri horietako bat bera ere. Gure lehen bihokada izan zen kontratua deuseztatzea eta jende gaixo hura bakean uztea.

Hartara, zu baldin bazara Natura 2000 Sarearen arduraduna zure autonomia erkidegoan, parte-hartze prozesu bati ekin baino lehen, eman iezaiezu zure asmoen berri gainontzeko sailei eta egin ezazu bilera bat, prozesuaren helburua eta ukitutako lurraldea zeintzuk diren besteei azaltzeko. Saia zaitez informazioa lortzen gainontzeko sailek naturagune babestu horretarako dituzten proiektu estrategikoei buruz, eta azal iezaiezu zeintzuk diren zure sailarenak. Azter ezazu ea beste plangintza proiekturik dagoen lurralde horretarako, eta, ahal den neurrian, herritarren parte-hartzeari buruzko prozedura bakarreko plangintza integratuko prozesuak programatu.

Hori egiterik ez baldin badago, gutxienez ere koordina itzazue programaturik dituzuen ekintzak, eta ekin denek norabide berean: ezabatu kontraesanean dauden proiektuak, eta ez baldin bazarete gai tokiko erkidegoen aurrean diskurtso bakararekin agertzeko, erabili gutxienez ere diskurtso koherenteak. Posible ez baldin bada, herritarrei horren berri eman beharko zaie beharbada.

Gogoratu herritarren zerbitzuan zaudetela, ezen ez haiek zuenean.

"Aurrena koordinatu eta hurrena gizarteak parte hartu"

Halatan: Zergatik ez duzue gogoan hartzen erakundeen arteko koordinazio talde bat eratzeko aukera (ikus 20. orrialdea, *Integrazio Batzordea atala*), non ordezkaturik egongo bailirateke naturagune babestuaren gainean eragin nabarmena duten sail eta entitate publiko guztiak? Jakin badakigu langile gutxi dituzuela, baina ikasiko duzue erakundeen arteko koordinazioak denbora aurrezteko dakarrela azkenean eta esponentzialki hobetzen dituela kudeaketa publikoaren emaitzak eta eragingarritasuna. Talde horri beharrezkoa den guztietan bildu beharko da prozesuak dirauen bitartean, eragin horizontala duten alderdiak edo ekarpenak eztabaidatzeko. Orobat aurreikusi beharko da aldebiko bilerak egitea kontserbazioaren eragina duten baina gainontzeko sektoreei begira eragin mugatua duten gaietan, bai eta prozesuan zehar sortzen diren herritarren eskariak, kontserbazioarekin zerikusirik ez izateagatik planaren esparruan sartzen ez direnak, bideratzeko ere.

Behar diren baliabideak eta egutegia ezartzea

Arestian aipatutako baldintzak gainditu ostean, aztertu egin behar da zer giza baliabide, baliabide material eta baliabide ekonomiko behar izango diren. Eta gera bedi argi: herritarren parte-hartze aktiboak denbora eta dirua eskatzen ditu... baina denbora eta diru gehiago aurrezteak dakar aldi berean; izan ere, erakundeen eta herritarren arteko harremanak sendotzeaz gain eta kalitate handiagoko planak egitea lortzeaz gain, gatazkak konpontzea lortzen da (bestela, denbora eta diru ugari beharko litzateke horiek desaktibatzeke). Onartu egin beharra dago, hortaz, baliabideak eta pertsona eskarmentudunak behar direla.


Aurrekontua mugatua baldin bada denbora gehiago beharko da kalitate bera lortzeko. Eta denbora gutxi baldin badago itxaropenak apaldu beharko dira, eta ontzat eman kalitate gutxiagoko prozesu bat. Aukerarik eraginkorrena da profesional kualifikatuen aldeko apustua egitea, baliabide gutxiagorekin emaitza hobeak lortzea ahalbidetuko baitu segur aski.

Esan beharra dago ingurumen-komunikazioa prozesu parte-hartzaile bat dela, norabide anitzekoa, konponbideak partekatzen dituen. Horrenbestez, prozesu horrek trebetasun sozialak nahiz antolakuntza arlokoak eskatzen ditu, trebetasun teknikoak eta ekonomikoak, diagnosi eta ebaluazio mailakoak, beste eragile batzuekiko elkarriketatik eta interakziotik heldu diren trebetasunak⁷. Horrek berekin dakar pertsona eskarmentudunak, kualifikatuak eta gaitasuna dutenak baliatu beharra. Gero eta gehiago jotzen da talde profesionalak baliatzera (ingurumen-hezitzaileak, gizarte-langileak, soziologoak, eta abar). Talde horien hasierako prestakuntza askotarikoa izan daiteke, baina benetako garrantzia duena da eginkizunak betetzeko gaitasuna eta eskarmentua, interesa izan dezaketen aldeekiko tratuan. (Ikus 22. or. *Ingurumen arloko bitartekaritza taldeak*).

Zenbat diru balio du eta nola gastatzen dut?

Kudeatzaile publiko batentzat ondokoa da galdera handia: Zein da naturagune babestu bateko parte-hartze prozesuaren kostua? Oso zaila da zenbateko bat ematea, zeren, pentsatzekoa denez, kostua aldagai ia infinituen araberakoa baita. Baina zifra bat emanda lortzen baldin badugu aldiro halakorik ez galdetzea, esan beharko dugu, gure esperientziaren arabera, kostua 10.000 eta 12.000 euro bitartekoa izan daitekeela hiru bertaratze-bilkurako prozesu batean (aurkezpena, neurrien tailerra eta itxiera-bilkura), bi hizkuntzatan egiten bada, eskuliburu hau taxutu den datan eta lurralde txiki samar batean (3.000 ha). Baina gure solaskideak gehien harritu ohi dituen gastuaren xehikapena da, emandako orduen araberakoa.

Orientabide gisa esan dezakegu gastua honela banatzen dela:



⁷ Andelman, M. 2003: Biodibertsitatearen erabilera iraunkorrerako eta kontserbaziorako politiken parte-hartze plangintza eta ingurumen-komunikazioa.

Bestalde, argi eta garbi zehaztu behar dira herritarren parte-hartze prozesuen hasiera eta amaiera, ezin dira denboran luzatu eta luzatu, erritmo egokiak planifikatu ahal izan daitezen, halako moduan non eragile guztiak integratuko baitira eta ezarritako helburuak eta konpromisoak ez baitira denboran zehar lausotuko.

Lan-bilera batetik bestera igaro beharreko denborak aukera eman behar du aurreko bilerako ekarpenak jasotzeko eta hurrengo bilerarako banatzen diren dokumentuak aztertu ahal izateko. Baina bilera batetik besterako denbora luzeegia ez izatea ekidin behar da orobat. Bestela, "hoztu" egiten da parte hartzeko interesa eta gogoia, eta zailagoa egiten da prozesuaren hurrenkeraz jabetzea.

Egutegia egokitu beharra dago, intereseko auzi guztiak eztabaidatu ahal izan daitezen eta behar adinako malgutasunez inprobisatu ahal izan daitezen lanek behar bezala funtzionatze aldera beharrezkotzat jotzen diren jarduerak, hala nola adituengana jotzea edo auzi konplexuei buruzko bilera tematikoak egitea. Gogoan hartu behar da plana taxutzeko garrantzitsuak izan daitezkeen alderdiei buruzko prestakuntza nahiz informazio ekintzak antolatzeak aukera, baldin eta interesa duten aldeek hala eskatzen badute. Hori guztia, halere, eskueran dauden baliabideak eta langileak kontuan hartuta egin beharra dago.

Oroimen ona al duzu?

Prozesuak 8 hilabete inguru iraun behar zuen, egindako plangintzaren arabera. Aurkezpena egiteko lehen bilera, informazio fasea eta interesdunen azterketa 2005eko udako hilabeteetan egin ziren. Administrazio sustatzaileek emandako zenbait arrazoi zirela medio, gainontzeko bileren artean denbora gehiegi igaro zen. Prozesuaren eta hitzartutako dokumentuaren itxiera 2007ko ekainera arte atzeratu ziren. Kasuko autonomia erkidegoko gobernuak 2011ko otsailean onetsi zuen plana, osorik beteta egon behar zuenean ia-ia. Gauzak horrela, nor gogoratzen da bere ekarpenez eta prozesuaren azken emaitzez? Are gehiago, neurrien erdia baino gehiago, haien arduradunak eta aurrekontuak zaharkiturik bide daude.

Naturagune babestuaren auzia zertan den jakitea

Prozesua behar bezala dinamizatzeko aldera, bitartekaritza taldeak naturagune babestuari, haren balioei eta problematikari buruz dokumentatu beharra du. Egia da haren eginkizuna ez dela izango erantzun bat ematea lan-bileretan sor litezkeen galdera teknikoei. Horretarako dago planaren idazketa-taldea, eta harekin koordinatu beharko da eta hari helaraziko dizkio sortzen diren zalantzak.

Baina gaiari buruzko ezagutza ahalik eta osatuena izan beharko dute, eztabaidak moderatu ahal izateko, informazio garrantzitsua hautatzeko eta informazio hori modu ulergarri batez transmititzeko. Hartara, funtsezkoa izango da plana idazteaz arduratu den talde teknikoaren sostengua edukitzea. Sostengu horri esker eduki ahalko du Naturagunearen izendapena eragin duten balio naturalei buruzko azterketa sakon bat, haren egungo kontserbazioari eta eskakizun ekologikoei buruzkoa.

Bereziki garrantzitsua izango da orobat naturagunean gertatzen diren giza jarduerari buruzko ezagutza, biodibertsitatearen gaineko eragin nabarmena izan dezaketen neurrian, bai eta lekuaren kudeaketa iraunkorrari begira planteatzen ahal diren neurriei buruzkoa ere.

Informazio horri esker, prozesuan modu aktiboan parte hartu beharko luketen pertsonen eta entitateen buruzko lehen argazki bat eduki ahal izango dugu.

Alde interesdunak identifikatzea eta hautatzea

Ingurumenaren alorrean, informazioa eskuratzeko, partaidetza publikorako eta justizia eskuratzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen arabera, alde interesdunak dira *"planak ukitzen ahal dituen pertsona edo elkarte oro, eta planak jasotzen duenaren gaineko eragin nabarmena izan dezaketenak"*. Horren arabera, Natura 2000 Sarearen planifikazioari dagokionez, ondokoak har daitezke alde interesduntzat:

- irabazi asmorik gabeko edozein pertsona juridiko, baldin eta bere estatutuetan jasotako xedeen artean ingurumenaren babes orokorra ageri bada, edo planak zehazki ukitutako lekuaren osotasunaren edo zati baten babesa, edo, etorkizunari begira, pertsona juridiko horren presentzia beharrezkoa jotzen baldin bada lekuaren osotasun ekologikoa edo kasuko osagaiaren kontserbazio-egoera lortzeko.
- pertsona fisiko edo juridiko oro, bai eta horiek ordezkatzeko dituzten elkarteak eta organizazioak ere, baldin eta horien jarduerak eragin nabarmena badu edo izan badezake kudeaketa-planak edo -tresnak ukitutako lurralde-eremuaren osotasun ekologikoaren gainean, edo lekua Natura 2000 Sarean sartzea edo izendatzea eragin duten espezie basatien eta natur habitaten gainean.
- pertsona fisiko edo juridiko oro, baldin eta planak haren bidezko eskubide edo interes sozial eta ekonomikoak, norbanakoak nahiz taldekoak, uki baditzake.

Aipatu legearen arabera, halaber, administrazio publiko eskudunei dagokie behar adinako aurrerapenez ezartzea jendarteko nor duen "pertsona interesdunaren" izaera parte-hartze prozeduretan esku hartzeari begira, eta administrazio publikoak arduratuko dira haiei informatzeaz prozedura horren hasierari buruz, horretarako baliabide egokiak erabilita.

Gure iritziz, parte-hartzeak ahalik eta zuzenena izan behar du, lehentasuna emanez pertsona partikularren parte-hartzeari, eta ez bakarrik organizazio edo erakundeen parte-hartzeari. Halere, argi dago ez dela operatiboa eragile sozial gehiegiren parte-hartze aktiboa sustatzea; hortaz, ezinbestekoa da alde interesdunen ezaugarritze eta hautaketa egoki bat egitea.

Gizarte-profilaren arabera, hiru mota bereiz ditzakegu alde interesdunen artean:

- a) Administrazio edo entitate publikoak.
- b) Eragile ekonomikoak: nekazariak, abeltzainak, basozainak, erlezainak, artisauak, jatetxe eta ostatu enpresak, aisia eta kirol enpresak, elkarte profesionalak, energia-ekoizleak, aholkularitzak eta ingeniariak, zerbitzuen enpresak.
- c) Gizarte-eragileak: jabeak, toki-elkarteak, sindikatuak, elkarte zientifikoak edo kontserbazionistak, hedabideak, lurraldearen erabiltzaileak (ehiztariak, ibiltariak, kirol-elkarteak, eta abar).

Eta planaren emaitzei dagokienez izan dezaketen eraginaren arabera, lau multzo bereiz ditzakegu alde interesdunen artean:

- Eragile nagusiak, parte hartzeko interes handia eta eragin handia dutenak.
- Eragin handiko eragileak, baina planaren xedeei dagokienez interes gutxi dutenak, edo are kontrako xedeak dituztenak. Arrisku bat izan daitezke, eta gatazka eragitera hel litezke.
- Eragin gutxi eta interes handiko eragileak. Laguntza handikoak dira oro har, baina ez dute eragiteko ahalmenik, non eta ez duten beste eragile batzuekin bat egiten.
- Lortu nahi diren emaitzei dagokienez eragiteko ahalmen edo interes gutxiko eragileak. Horiek aintzat hartzeko edo horiei denbora eta ahaleginak eskaintzeko premia txikia dago.

Prozesuan parte hartzera nor komeni den gonbidatzea identifikatzeko orduan erabakigarria izan behar dute kontserbazioarekiko interesak eta planean jorratu beharreko alderdiei dagokienez eragiteko ahalmenak.



Nola identifikatu alde interesdunak?

Alde interesdunak hautatzeko, ondoko urratsak egitea proposatzen dugu:

1. urratsa: Atariko zerrenda bat egitea

Garrantzitsua da hasiera batean elkarrizketak izatea plana idatzi behar duen talde teknikoarekin. Segur aski gunera bisitan joanak dira behin baino gehiagotan, eta egina izango dute eskualdearen azterketa sozioekonomikoaren aurrerapen bat, informazioa edukiko dute lursailen titulartasun publikoaren edo pribatuaren ehunekoari buruz, tokian tokiko jardueren berri izango dute, bai eta jarduera horiek biodibertsitatearen kontserbazioaren gainean duten eraginarena ere.

la aldi berean, informazio horretatik abiatuta, lehendabiziko arakatze bat egin dezakegu Interneten, lurralde horretako erabilerei lotutako toki-organismoak, helbideak eta harremanetan jartzeko modua bilatzeko:

- Udalak.
- Zerbitzuen mankomunitateak.
- Garapenerako toki-agentziak.
- Nekazarien kooperatibak.
- Sindikatuak.
- Oihan-elkarteak.
- Turismo arloko elkarte profesionalak.
- Naturako kirolen federazioak.
- Ehiza eta arrantza elkarteak.
- Naturaren kontserbaziorako tokiko GKEak.

2. urratsa: Zerrenda baieztatu eta handitzea

Hasierako arakatze horren ostean, elkarrizketak egiteko txanda dator, atariko zerrenda hori baieztatze edo handitzeko. Elkarrizketa horiek telefonoz egin badaitezke ere, oso komenigarria da solaskidea aurrez aurre izanda egitea. Hartara, informazio-trukea askoz ere azkarragoa eta hurbilagokoa izango da. Jendearen konfiantza irabazteko garaia heldu da! Une honetan funtsezkoak dira ukitutako udaletako ingurumen arloko zinegotziekin eta teknikariek hitz egitea, eta toki garapenerako eragileekin ere bai. Udalak eta agentziak dira lurraldearen nondik norakoak hobeto ezagutzen dituztenak. Jabeak eta taldeak buruzko datuak dituzte, eta informazioa eman dezakete bertako bizilagunen ezagupenei, pertzepzioei eta alde aurreko iritzia buruz, eta sendotu egin dezakete, erkidegoari begira, proiektuarekiko interesa eta deialdi-ahalmena; halatan, minimizatu egiten da "kanpotarrak" zer egin behar dugun esatera etortzearen susmoa.

Parte-hartzea zabalduz

Jabetza nabarmenki publikoa da Aiako Harria –Natura 2000 Sareko Gipuzkoako lurraldea–, ukitutako udalena baita. Alde interesdunen azterketak iraun bitartean egiaztatu ahal izan genuen udal bakoitzak ingurumen arloko teknikari bat zeukala, eta hark informazio asko zerabilela, prestakuntza handia zeukala eta taxuzko irizpideak zituela ekarpen tekniko kualifikatuak egite aldera, goitik behera ezagutzen zuen lurralde baten biodibertsitatearen kontserbazioari dagokionez.

Hartara, prozesu parte-hartzailearen barruan berriazko lan-talde bat sortzea erabaki zen, teknikari horiek bere baitan hartuko zituena, ideiak buruz buru eratzeko kudeaketa-dokumentua idatzi zuen taldearekin.

Elkarrizketa hori baliagarria izango zen, zertarako eta:

- Garatu nahi den prozesuari buruzko ideiak eratzeko eta iradokizunak jasotzeko, prozesua ahal den guztian egokitze aldera tokian tokiko errealitatera.
- Gure atariko zerrendako eragileen eragin-maila egiaztatze.

- Harremanetan jartzeko moduak egiaztatu eta gaurkotzeko: telefonoak, posta elektronikoa, eta abar.
- Zerrendan talde eta pertsona gehiago sartzeko.
- Talde horien ordezkariak izena jartzen eta kontaktuak esleitzen hasteko.
- Lursailen jabeak eta profesional aipagarriak buruzko datuak lortzeko.
- Organismo horiek baliatutako komunikazio-modu ohikoak ezagutzeko, prozesu parte-hartzailea hasi izanaren berri emateko aukerak balioeste aldera.
- Alde interesduna den aldetik, udalaren nahiz garapen-agentziaren ezaugarritzean sakontzeko (ikus hurrengo atala).
- Parte-hartzea garatzeko beharrezkoak diren logistika arloko auzietan sakontzeko (hizkuntza, gela erabilgarritasuna eta bestelako materiala, ordutegiak...)
- Prozesuarentzako babesa eta laguntza eskatzeko.

Elkarriketetan erakusten duten interes-maila zein den, balioetsi egin behar da udaletako nahiz garapen-agentzietako kideekiko lan-talde iraunkorrak sortzeko aukera. Talde horiek "talde foka" gisa jardungo lukete. Horiekiko harremana estuagoa eta jarraituagoa izango da prozesuan zehar. Eginkizun aktibo bat izango dute metodologiari buruzko iradokizunak egiterakoan, prozesua zabaltzeko zereginetan nahiz logistika arloko auzietan laguntza ematerakoan.

Baliabide gutxi, baina ideia on-onak

Ultzamako hariztian (Nafarroa), kudeaketa-plana taxutu zuen taldeak ez zeukan bitartekaritza talde espezializatu baten laguntza. Halere, aparteko aliatu bat izan zuen alde interesdunak identifikatu eta ezaugarritzeko nahiz bertan informazio eta jendarteratze lanak egiteko. Aisialdirako naturaguneko mantentze-lanez, zaintzaz eta jendearentzako

arretaz arduratzen den taldeak –zeina naturagunean bertan baitago–eginkizun horietan laguntzeko eskaini zuen bere burua. Talde horrek ezin hobeto ezagutzen zituen naturagunearen balio naturalak eta tokiko erkidegoen errealitate soziala. Eta oso ondo prestatuta zeuden hezkuntza programak eta ingurumen-komunikaziokoak garatzeko. Oso baliabide gutxi, baina ideia on-onak eta mezu are hobeak baliatuta, Natura 2000 Sareari buruzko erakusketa xume bat prestatu zuten, zeinean azaltzen baitzuten Ultzamako hariztia zer dela-eta zegoen sare horretan sartuta. Erakusketa, Ultzamako herri batean paratua, langileek berek artatzen zuten, eta pixkana-pixkana "Natura 2000 Sareari buruzko informazio-gune" bihurtu zen, bertako jendea etengabe joaten baitzen hara erakusketa ikusteko edo informazioa eskatzeko.

Jasotako eskariei erantzutearren, parte hartzeko mahai sektorialak programatu ziren, talde jakin batzuentzako informazio-hitzaldiak, toki administrazioarekiko nahiz sindikatuekiko elkarriketak, eta abar.

CAMPAÑA de INFORMACIÓN sobre el L.I.C.

En el Centro de Visitantes de Kuartelenea (Lizaso) se ha instalado una exposición permanente sobre el L.I.C. y se ofrece atención al público para cualquier información que se solicite.

Horarios:
de lunes a viernes:
de 10 - 14 h.

Contacto:
Eduarne Gerendiaín:
948 305300 - 620 955454

G.K.T.ri buruzko INFORMAZIO KANPAINA

**INFORMA ZAITEZ
IRITZI BAT OSATZEKO**

**INFORMATE
PARA OPINAR**



Kuartelenea Bisitari Zentroan (Lizaso) G.K.T.ri buruzko erakusketa bat antolatuta da eta edozeine inguruko eskatuz gero.

Ordutegia:
astelehenetik ostiralera:
10 - 14 o.

Kontaktua:
Eduarne Gerendiaín:
948 305300 - 620 955454



KOLABORATZAILERAK
KOLABORADOREK

BULTZATZEN DU PROIEKTUEK

**Medio Ambiente
Inguirugiroa**

**Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua**

Areago, norbanakoen jarrera aldekoa baldin bada, oso interesgarria izan ohi da bilera bat egitea zenbait udal hartzen dituzten naturaguneetako alkateekin. Garrantzitsua da egin nahi ditugun lanak ezagut ditzaten, horietan lagun dezaten, bere iritzia eman diezaguten eta denon interesekoa izan daitekeen informazioa truka dezagun.

Udalak inplikatzeari lortzen badugu eta prozesuan entitate laguntzaile gisa sartzen baditugu, errazago iritsiko gara bertako bizilagunengana. Ezin dugu aiantzi udalak direla autonomia erkidegoko administrazioaren eta herritarren arteko zubia.

Argi dago, hortaz, tresna oso baliagarria direla, eta hala sentiarazi behar diegu. Nola?

- Muntako informazioa haien esku jarrita, herritarren esku jarri aurretik, hala teknikoa nola prozesuan zehar azaldu dena.
- Rol nagusia esleituz izaera instituzionaleko parte-hartze bilkuretan: aurkezpen eta amaiera ekitaldiak.
- Autonomia erkidegoko administrazioa bere homologoei egin litezkeen bilerak kudeatuz.
- Planak taxutu dituztenekin egin litezkeen bilerak kudeatuz.
- Udalaren baliabideak erabiliz: aretoak, iragarki-ohola, eta abar.
- Deialdiak egiterakoan modu aktiboan parte hartuz.

Adibide gisa

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa dela-eta, zailtasunak izan ohi ditugu gure ustez parte hartu beharko luketen pertsonekin harremanetan jartzeko datuak eskuratzeko (jabeak, nekazariak eta abeltzainak). Zenbait prozesutan, ukitutako udalek laguntza paregabea eman digute arazo hori gainditzeko, haiek arduratu baitziren aurkezpen-bilerarako deialdia egiteaz. Bandoak, udalaren iragarki-oholak, elkarrekin harremanak eta, are, jabeen posta bidezko bidalketak baliatu zituzten horretarako.

Aurkezpen-bilera egin ostean, egin beharreko prozesu parte-hartzailean izena emateko orria jartzen genuen orria bete nahi zuenaren esku. Hartara, interesdunek zuzenean emandako izenak eta kontaktuak genituen gure esku. Eta, are, aurkezpen-bilerara joaterik izan ez zuen jendeak deitzen zigun handik egun batzuetara, "parte-hartzeko kontu horretan izena emateko".

Parte-hartze mailarik handiena lortu da, hain zuzen ere, udalek gurekiko lankidetzak aktiboa izan duten lekuetan.

3. urratsa. Beste pertsona eta entitate batzuekiko elkarrizketak

Lehendabiziko harreman horien ondorioz, gure zerrenda aztertu behar dugu, ikusteko elkarrizketarik egin behar den eragin-maila handiko organismoekin, identifikaturik dauden iritzi-sortzaileekin edo hainbat arrazoi direla medio informazio garrantzitsua eman dezaketen edo herri mailan parte-hartzea heda dezaketen pertsonekin. Hori guztia, balizko parte-hartzaileen datu-base on bat finkatzeko eta handitzeko xedez.

Betiere, elkarriketa bat egiten denean, aholkua izan ohi da elkarriketa egin zaionari informazio idatzia eman dakion gunearen balioei buruz, kudeaketa-plan baten zer-nolakoei buruz eta horrek berekin dakarrenari buruz nahiz aurrera atera nahi den parte-hartze ereduari buruz. Halaber, komenigarria izan ohi da erakunde sustatzaileak berak kontratatutako talde gisa behar bezala kreditaturik egotea.

4. urratsa. Zerrenda irekita edukitzea

Ohikoa da prozesu parte-hartzailean zehar parte hartzeko interesa azaltzen duten entitateak edo pertsonak agertzea; bereziki, prozesuaren "aurkezpena" egin ostean. Hortaz, horiei guztiei prozesuan sartzeko aukera eman behar zaie.

Aldeak ezaugarritzea eta aliantzak aztertzea.

Gure parte-hartzaileen zerrenda osatzeko "landa-lana" egin ahala, hauxe egin beharko dugu:

a) Alde interesdunak ezaugarritzea

Lan nekosoa eta gogorra da, zalantzarik gabe, baina aldi berean, funtsezkoa; izan ere, norke parte har dezakeen biltzen duen zerrenda lortzen badugu, eta haien ezaugarriak aztertzen baditugu, aukera hobeak izango ditugu parte hartzeko eredurik egokiena eta erabili beharreko tresnak hautatzeko.

Alde interesdunak identifikatu, aukeratu eta ezaugarritzeak hartuko digu parte-hartzeari eskainitako denborarik gehien. Alde interesdunak harreman pertsonalen bitartez eta muntako informazio ulargarria ematearen bitartez identifikatu eta aukeratuko ditugu; zeregin horretan aurrera jo ahala, gainera, motibazio handiagoa erdietsiko dugu jendeak aurrez aurreko saioetara joateko eta aldean konfiantza geureganatuko dugu.

Zer jakin beharko genuke alde interesdun bakoitzari buruz?

- Hasteko eta bat, ezaugarri garrantzitsuak jakin beharko genituzke, dela plangintzari begira, dela planak proposa ditzakeen neurrien kudeaketan edo gauzapenean esku hartzeko duten gaitasunari begira: hau da, kudeaketa-eskumenak, kontserbazio-politikak finantzatzeko ahalmena; egoera sozioekonomikoa; lanbide-gaitasuna; ingurumen arloko sentiberatasuna; naturaguneari buruzko pertzepzioa eta balorazioa; gunearen kontserbazio-egoera uki ditzaketen interesak eta espektatibak.
- Aldeek planarentzako garrantzitsua izan daitekeen duten informazioa.
- Gerta daitezkeen gatazkak. Kontserbazio-helburuen, lurzoruaren egungo erabileren, interesen eta alde bakoitzeko espektatiben arteko azterketa gurutzatutik sortzen dira.
- Ordezkaritza eta gizarte-eragina, bai eta beste aldeekiko harremanak.
- Proiektuarentzako inplikazioak eta ondorioak: planari egin ahal dizkioten ekarpenak, prozesuan eta naturagunearen kudeaketan parte hartzeko gomendioak.

Azterketa horren emaitza fitxatan antola daiteke edo, bestela, sarrera biko matrize batean⁸.

⁸ García, S., 2003: Nafarroako Batasunaren Intereseko Lekuak (BIL) kudeatzeko planak taxutzeko Gida Metodologikoa

b) Taldeekiko aliantza posibleak aztertzea

Interes berezia dauka zer aliantza egin daitezkeen aztertzeak. Herritarrek parte hartzeko prozesuek agertoki oso egokiak eskaintzen dituzte natura zaintzearen aldeko aliantza egonkor eta iraunkorrak eratzeko. Horregatik lan egin beharra dago, planaren helburuekin eta helmugekin bat datozen erakundeekin eta eragin handiko pertsonekin aliantzak sortzeko.

Aliantzok jarrera argiak eta akordio gardenak izan behar dituzte oinarri, eta, akordioek diru-konpromisoak ekartzen badituzte, diru kontuak behar bezala zehaztuta egon behar dute. Bestela, saiatzan bagara planaren aldeko akordioak egiten edo atxikimenduak hitzartzen, anbiguotasuna eta zalantzak oinarri hartuta, edo gerta daitezkeen gatazkak isilduta, helburu bakartzat hartuta ziurrenera gauzatzerik izango ez dugun plan bat lehenbailehen onartzea, aipatu gatazkak geroratzea baizik ez dugu lortuko, eta, etorkizunean, are modu gogorragoan agertuko dira; era berean, jendeak mesfidantzaz hartuko ditu ondotik egin litezkeen prozesu parte-hartzaileak, eta erabat zapuztuko dira naturagune babestuaren inguruan sortzen diren itxaropenak.

Prozesuan ziurrenera parte hartuko duten naturaren aldeko elkarteek omen handia izaten dute herritarren artean. Era berean, lanbide-elkarteek beren elkartekideen konfiantza dute. Oso litekeena da bai elkarte batzuek zein besteek beren hedapen-bideak izatea, edo komunikabide jakin batzuetan sarbidea izatea, eta haien bidez, hainbat taldetara iritsi ahal izatea. Ingurumen arloko administrazioak, ziurrenera, ez du omenik batere izango, eta elkarte horiekin aliantza estrategikoak egitea irudi txar hori arintzeko bidea izan daiteke, elkarte horiek beren elkartekideen artean edo beren eragin-eremuan planaren aldeko jarrerak sustatze aldera. Baina kontuz; holako aliantzak sustatu behar dira etorkizuneko aliatuak errespetatuta; aliantzaren bidez, izan ere, konpromiso bat hartzen baita haien aurrean, elkarrekin eragingarritasun handiagoa bilatzeko helburu partekatua lortze aldera.



Aldi berean, komunikabideak aliatu ezin hobeak izan daitezke. Baina ez ditugu propaganda-xederako erabili behar, parte-hartzearen aldeko eta natura zaintzearen aldeko benazko informazioa zabaltzeko lanabes gisa baizik. Erabilgarria izaten da prozesuak berak aldia behin prentsa-komunikatuak sortzea, prozesua nola doan jakinarazteko eta, era berean, komunikabideekin bilera bereziak eta berariazkoak egiteko aukera eskaintzeko. Berezi erakargarriak izaten dira naturagunean bertan egiten direnak, eta prentsarentzako berariaz egiten diren landa-bisitak ere bai.

Nik informazioa ematen dizut, zuk informazioa ematen duzu.

Lankide gara Herritarrek Bidasoa ibaiaren azpi-arroan parte hartzeko prozesuan. Prozesua Hidrologia Arroetako Planak taxutzearen baitan dago, Urari buruzko Esparru Zuzentzaiaarekin bat. Bada, hasieratik beretik, prozesuak Komunikazio Plan bat izan zuen, tokiko komunikabideekin gauzatzeko. Honatx, eskema bidez, Komunikazio Planaren egitura:

Hasierako fasean (aurrez aurreko saioak hasi aurretik):

Bilera bat egin zen prentsa idatziko, irratiko eta telebistako kazetariekin, guztiak ere tokiko komunikabideetan zihardutenak, tokiko komunikabideek prozesuari zer-nolako jarraipena eta zer informazio emango zioten koordinatzeko. Honatx bileraren helburu zehatzak:

- Esparru Zuzentzaia modu hezigarrian azaltzea.
- Lanaren xede zen arroaren parte-hartze prozesu zehatza azaltzea.
- Prozesuaren berri emango zuten kazetarietako harreman pertsonalak lantzea.
- Batzuen eta besteen inplikazioa, esku-hartzeak, kontaktuak (zer modutan eta zer unetan) eta konpromisoak zehaztea: hau da, prentsa-oharrak noiz eta zertaz (gutxienez, diagnosi-fasearen bukaeran, neurriei buruzkoa eta bukaerako bilerari buruzkoa); halako "atal finko" bat ezartzea, ura lurraldean kudeatzeari lotutako alderdiak agertzen joateko; eta, erreportajerako gaiak eta elkarrizketak nori egin proposatzea.

Bestalde, komunikabideek aukera izango zuten (egoki ikusiez gero) saioen hasierara joateko, erreportaje grafikoa egite aldera; ez, ordea, tailerretara, saio horien garapena ez tratatzeko.

Bileran, era berean, guztiei txosten bana banatu zitzaientzen, prozesua ulertzeko funtsezko informazioaz osatua.

Prozesua garatzeko fasean:

Aurreko bileran hartutako konpromisoak garatu ziren.

Amaierako fasean:

Amaierako emaitzak taxutu eta idatziz aurkeztu ziren (plangintza hidrologikoari egindako ekarpenak); halaber, tokiko komunikabideekin beste bilera bat egin eta emaitzak zehatz-mehatz aurkeztu zitzaizkien, bai eta prozesu parte-hartzaileari buruzko ebaluazioa ere.

Aurrez aurreko saioak programatzea**Programatzea**

Aurrez aurreko saioen kopurua, helburua eta formatua, naturagune babestuen konplexutasunaren eta alde interesatuen kopuru, tipologia eta heterogeneotasunaren araberakoak izango dira, bai eta eskura dauden baliabideen araberakoak ere.

Onena litzateke aurrez aurreko saio bat egitea, proposatzen den urrats bakoitzeko, betiere kudeaketa-planen idazketan egiten diren pausoei batera. Baloratu beharra dago, dena den, bai parte-hartzaileen esperientzia, bai gaiari buruz zer dakiten. Natura 2000 Sarean izan ditugun esperientzia guztiak eremu bat kudeatzeko lehen plana edo tresna taxutzei egokitu

zaizkio; ziur gaude, esperientzia horiei jarraituko balitzaie kudeaketa hitzartuak indarrean egondako urteak, eta gizarteak parte hartzeko eta jarraipena egiteko organoek ongi funtzionatuko balute, planak berregiteko parte-hartze prozesuak eraginkorrak izango liratekeela, eztabaidagai konplexuagoak egin ahalko zirela eta erabakiak batera hartzeko mekanismoetan aurrerapauso nabarmenak emango liratekeela.

Egungo egoera orokorrean, saio gutxiago antolatzea ona da jende gehiagok parte har dezan, holakoetan aritzeko joerarik eta ohiturarik ez dagoenean. Saioak mamitsuak badira, jendeak pentsatzen du erabilitako denborak "zentzua" duela eta "probetxugarria" izan dela. Pauso batzuk ezaba daitezke, funtsezko gaiei buruz eztabaidatzeko, edo, aurrez aurreko saio berean hainbat pauso batu.

Gure iritziz, prozesu soil baterako, gutxienez aurrez aurreko hiru une behar dira:

- Aurkezpena-informazioa.
- Neurriak eztabaidatzea.
- Prozesuaren itxiera-emaizak.

Aurrez aurreko saio guztien kopurua gorabehera, saio berbera egun eta ordutegi desberdinetan egitea baloratuko da, tailerrak eremuan eremuko gizarte-errealitatera egokituko dira, eta, horrela, parte-hartzaileen eskuzabaltasuna aintzat hartuko da (hau da, ez dugu inola ere funtzionario-ordutegirik jarriko, eta behiak jezteko ordua hartuko da kontuan; denoi tokatuko zaigu etxera berandu iristea!).

Eta, berriz ere esango dugu!: teknikari dinamizatzailleek parte-hartzaileei telefonoz hots egingo diete saiora joatekoak ote diren baieztatzeko; horri esker, errazagoa izango da saioa prestatzea eta tresna egokiak lantzea emaitza hobekien erdiesteko. Eta ez ahaztu saioetan atsedenaldirik egitea, denek elkarrekin zerbait hartzeko, aurrez berariaz prestatutako leku batean. Horrela, harremanak sakonduko dira bai parte-hartzaileen artean, bai parte-hartzaileen eta teknikari eta plana idazteko ardura dutenen artean, bai eta haien guztien eta dinamizazio-taldearen artean.

Ahalegin horiei guztiei esker, lotura estuagoak izango ditugu saiora bertaratzen direnekin eta ez dugu horrenbeste inprobisatu beharko.

Saioak

■ Aurkezpen-Informazio saioa

Aurkezpen saioa prozesu parte-hartzailearen abiapuntu formala izango da alde interesdunentzako; ez, ordea, prozesua sustatzen eta dinamizatzen dihardutenentzako. Hori dela eta, gomendagarria da egokiena izango da saioan ingurumen arloko administratioko ordezkari batek parte hartzea, dinamizatzailleak eta idazleak nor diren aurkezteko, erakunde ofizialen sostengua agertzeko eta erakunde ofizialak prozesuarekin bat datozela adierazteko. Saio honetako alde instituzionalaren xedea izango da prozesu parte-hartzailearen mugak (joko-arauak), norainokoa eta helburuak argi eta garbi azaltzea.

Saioa, funtsean, azalpenak ematekoa bada ere, beharrezkoa izaten da bertaratu direnekin hizketan hastea, beharrezkoa baita gure lankide izango diren pertsonei eta taldeei buruzko gauza batzuk jakitea, esaterako:

- Zer ezagutzen duten guneari buruz eta Natura 2000ri buruz.
- Zer jarrera duten gunerekin.
- Non lortu duten informazioa.
- Zerk kezkatzen dituen.

Kontuan hartuta, beraz, guk eta haiek zer ezagutzea interesatzen zaigun, hona hemen saioak zer xede nagusi izango dituen:

- Garatu beharreko prozesuaren berri ematea (mugarriak, egutegia, ordutegiak...) eta arauak edo "joko-arauak" jakinaraztea.
- Lan-taldea aurkeztea.
- Guneari buruzko informazioa ematea, zer ezaugarri dituen, zer baliok eragin duten hura naturagune babestu izendatu izana, zer ondorio dituen izendapenak, eta zer gauza behar diren guneari edo lekuaren habitata, landaredia eta fauna kontserbazio-egoera onean mantentzeko. Hitz batez, kudeaketa-plana zertan datzan erakustea.
- Prozesuari buruzko informazioa edo iritzia eskatzea.
- Gizartearen parte-hartzerako informazio baliagarria lortzea.
- Espektatibak, lehentasunak, ... aztertzea eta izan daitezkeen ahul guneak eta mehatxuak atzematea.
- Bertaratu direnek ordezkatzeko dituzten entitateen sostengua bilatzea; eta, era berean, sostengu tekniko eta instituzional etengabea bilatzea garatu beharreko gizarte-prozesuarentzako.
- Erabili beharreko komunikazio biderik onenak aztertzea.
- Iritzi-lider berriak nor izan daitezkeen atzematea, bai eta funtsezko sektore berriak eta kontaktu berriak ere.
- Prozesura parte-hartzaile berriak ekartzea eta parte-hartzaile horiei beren borondatez prozesuan "formalki" izena emateko eskatzea. Bai eta haien kontaktu-datuak ere.



Jendea lehen bilerara agertzen denean, ohikoa izaten da gaiari buruz zerbait jakitea, informazioaren bat izatea. Informazioa, ordea, okerra, zehaztugabea eta partziala izaten da maiz. Horrek nabarmen murrizten ditu prozesu parte-hartzaileak, gure iritzia eskura dugun informazioan oinarriturik osatzen ditugulako. Funtsezkoa da, beraz, alde interesdunek naturagune babestuari buruz eta planaren helburuei buruz zer-nolako informazioa duten baloratzea, eta, funtsezkoa ere, abiapuntuko informazioak zer akats izan ditzakeen jakitea.

Bitartekaritza taldeko kideek zorrotz bereizi behar dute informazioa eta iritzia. Izan ere, haien lana, funtsean, informazioa ematea da; ez, ordea, haien iritzia ematea; nolahi ere, iritzi desberdinak zabaltzen eta erkatzen laguntzea izango dute eginkizun, eta, ahal badute, iritzi-iturriak nor diren adierazi behar dute.

Arestian azaldu dugun bezala, zenbait sektoretan informazio “okerra” eta interesatua zabaldu da Natura 2000 Sareari buruz eta naturagune babestuei buruz. Prozesu parte-hartzaileetan, Sare horren kontrako iritziei eta Sareari buruzko iritzi kritikoei egin behar zaie tokia, eta informazio-iturri alternatiboak erraztu behar dira, alde interesdunek informazioa zuzenean erka dezaten. Iritzi guztiak ongi hartu behar dira, baina iritziok egiazko informazioa izan beharko lukete oinarri.

Lehen bilera honetan, era berean, garrantzitsua da bestelako datuak lortzea, plana idazteaz arduratuko den taldeak eskura duen informazioaren kalitatea hobetze aldera, parte-hartzaileek berek ematen dituzten datuak oinarri harturik. Hartara, komeni izaten da bitartekariak idazketa-taldearekin aurrez biltzea, muntako informazioari dagokionez zer gabezia dauden jakiteko eta lan-saioetan muntako zer informazio lor daitekeen jakiteko.

Informazio argia, zehatza eta ulergarria eman behar zaie gune babestuari buruzko ondorio esanguratsuak izan ditzaketen jardueretan diharduten pertsona eta entitate guztiei, dela aipatu ondorioei buruz, dela har ditzaketen portaera alternatibo onuragarrienei buruz. Eta, jakina, era berean argi eta garbi azaldu behar zaie zer ondorio izango dituzten kudeaketa-neurriek haien interesen gainean. Are gehiago, ziur egon behar dugu aipatu ondorioak ulertu dituztela, haien iritzi gizartearengandik lortzeko eskubidea dituzten ordainak eskatzeko, edota kudeaketa-planean aintzat har daitezkeen ingurumen arloko konpromisoak zer baldintzapetan hartuko lituzketen zehazteko. Informazio hori ematen bazaie, bermatu egingo dugu konpromisoak beren borondatez eta era arduratsuan hartu dituztela, bai eta praktikan jarriko direla ere.

Informazioa zenbat eta argiagoa eta zehatzagoa izan, aukera handiagoa izango dugu konpromiso horiek dirutan zenbat balio duten zehazteko. Eta kalkulu hori egitea ezinbestekoa da planak taxuzko finantzabide-programa batez hornitzeko, partikularren eskuetan dauden neurriak gauzatzea bermatze aldera. Eta, horrek prozesu parte-hartzaileen prozedura hutsez harantzago jotzen badu ere (beraz, ez gara horretaz luze arituko), ez legoke gaizki planaren baitan ingurumeneko kontratu bat sinatzea, gune babestua era hitzartuan kudeatzeko tresna gisakoa izango litzatekeena; hau da, kontratu horretan bilduko lirateke, batetik, partikularrak hartzen dituen konpromisoak, eta, bestetik, administrazioak trukean eskaintzen dituen ordainak, aipatu partikularrak gizarte osoarentzako sortzen dituen ingurumeneko zerbitzuak ordaintzeko.

Saioan, gainera, informazioa emateko eta dibulgaziozko dokumentu arinak eman daitezke (foiletoak, fotokopiak...), alde interesdunak aztertzeko fasean Natura 2000ri buruz atzeman diren galdera eta zalantza sarrienei ahal den heinean erantzuteko.

Era berean, interesgarria izaten da eskualdean egin diren erakusketak eta informazio-hitzaldiak erabiltzea. Holakorik izan ez bada, entitate sustatzailearekin baloratuko dugu ea beharrezkoa ote den parte-hartze prozesuaren aurretik informazioa emateko hitzaldiak antolatzea.

Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio du

Euskadin, prozesu parte-hartzaile batzuk abiaraztearekin batera, Eusko Jaurlaritzak Natura 2000 Sareari buruzko erakusketa ibiltari bat taxutu zuen. Herri batzuetan, gainera, erakusketaren baitan, familientzako animazio talde baten emanaldia antolatu zen, biodibertsitateak duen garrantzia umorearen bidez azpimarratzeko.

Informazioa, nolanahi ere, ez da hasierako bilerarekin bukatzen. Hau da, prozesu osoan muntako informazioa garaiz ematen jarraitu beharko dugu, parte-hartzearen xedeetarako erabili ahal izateko. Eta inork eskatu duen informazioa ematerik ez badugu, erabat da beharrezkoa zergatik ez dugun ematerik argi eta garbi azaltzea.

Kalitatea; ez, kantitatea

Nolanahi ere, har ezazue kontuan saiora agertzen diren gehienek sekulan ez dutela hitzik entzun planaren xede diren gai askori buruz, ezta mahai gainean agertuko diren gai ugariari buruz ere. Haientzako, beraz, zaila izan daiteke benetan gure azalpenak ulertzea, baina kontuan hartu, guretzat ere zaila izango litzatekeela azalpenak ulertzea, haien lanbideei buruzko gaiez mintzatuko bagina. Era berean, har dezagun kontuan jende landuna dela eta egun osoan lanean arituko direla, eta, etxera iristerakoan, denbora libreaz gozatuko nahiko dutela edo lagunekin eta etxekoekin egon nahiko dutela. Beraz, egin dezagun ahalik eta ahaleginik handiena bertaratzen direnei ematen diegun informazioa ahalik eta gehien laburbiltzeko, betiere era ulergarrian, formatu erosoetan, eta parte-hartzaileen gaitasunetara moldatua, komunikatzeko trebetasun sozialekin bat.

EZ DA IDEIA ONA agiri teknikoak banatzea; eta informazio asko banatzea EZ DA INFORMAZIO ONA EMATEA.



■ Espektatibei buruzko saioa:

Naturagune babestuaren ikuspegi partekatua eraikitzea

“Ekin aurretik pentsatzea, horixe da planifikatzea; era sistematikoan, metodo bidez pentsatzea; aukerak azaltzea, eta abantailak eta desabantailak aztertzea; helburuak jartzea,

etorkizunerantz proiektatzea, zeren eta bihar gerta daitekeenak edo gerta ez daitekeenak erabakitzen baitu gaurko nire ekintzak eraginkorrak edo ez-eraginkorrak ote diren. Planifikazioa etorkizuna pentsatzeko eta sortzeko tresna da”⁹.

Etorkizuna pentsatzea eta sortzea ariketa hutsak dira, non, arrazoiak eta zientziak gainera, jendearen alde emozionalak, desioek eta espektatibek ere esku hartzen duten. Gune babestuak, eta, oro har, edozein lurralde planifikatzeko, oso erabilgarria izaten da ideia partekatu bat zehaztea, ideia hartarantz ahalegin guztiak bideratzeko; horrenbestez, oso egokia izaten da leku jakin bateko biztanleek beren lurralderako dituzten espektatibak adostea edo bateratzea.

Plangintza parte-hartzailearen ereduaren, komenigarritzat jotzen da lehen saioan etorkizunerako agertoki partekatu bat zehaztea, eta hori planifikatu beharreko lurraldean diharduten eragile guztien artean zehaztu beharra dago. Hori bereziki egokia izaten da gunea oso zabala bada, eta jarduerak eta lurraren erabilerak era askotakoak badira; edo elkarren kontrako interesak badaude, edota egungo edo izan daitezkeen erabilerak bateraezinak badira, eta garapen gatazkatsuko proiektuak badaude. Bestela, baliabideetan edo denboran motz bagabiltza, hori alde batera utziko dugu.

Horrenbestez, pauso honek helburu du tokiko erkidegoek zer espektatiba dituzten jakitea, espektatiben eta kontserbazio-helburuen artean zer gatazka gerta daitezkeen elkarrekin aztertzea, eta lurralde-ereduari buruzko ikuspegi partekatua sustatzea. Saiotik aterako den lurralde-ereduarekin bateragarri izan beharko dute plana indarrean dagoen urteetarako proposatzen diren estrategia, helmuga, helburu eta ekintza guztiek.



Hainbat teknika daude etorkizunerantzko balizko hurbilketa hori lortzeko: etorkizunari buruzko mintegiak, EASW (European Awareness Scenario Workshop), prospekzio parte-hartzaileak... Tekniken konplexutasuna askotarikoa da eta eskura ditugun baliabideak hartu beharko ditugu kontuan, kasuan kasuko teknikarik egokiena hautatzerakoan. Teknika guztiek, dena den, xede bat dute: pertsonak

elkarrekin irtenbideen bila aritzea, hasierako analisiaren bidez arazoak edo gatazkak minimizatuz, halakorik badago.

Dinamika haietako batzuek hainbat garapen-etapa dituzte:

I.- Aurkezpen etapa:

Saioei hasiera emateko, komeni da aurkezpen labur bat egitea, lekua zergatik izendatu den gune babestu gogoratzeko; hau da, zer natur balio dituen gogoratzeko. Aurkezpenean, halaber, ingurumen-egoera nolakoa den laburbilduko da, eta "Zero agertokia" edo "Erreferentziazko agertokia" esan ahal zaio.

II- Faktore kritikoak zein diren erabakitzeko etapa:

Saio guztiak galdera honi erantzutea izango du xede: "Nolako gune babestua izatea gustatuko litzaizuke etorkizun hurbilean?" (gehienez, 25 urtera). Hala ere, lehenik eta behin, herriaren ingurumen-egoera baldintzatzen duten funtsezko alderdiak ("faktore kritikoak") era

⁹ Matus C., 1996: El Método PES (Planificación Estratégica Situacional)

partekatuan identifikatu behar dira, eta arreta berezia jarri beharko zaie beste faktoreetan eragina duten faktoreei eta kanpoaldeko eraginaren eraginpean daudenei.

III- *Etorkizuneko agertokiak diseinatzeko etapa:*

Ondotik, etorkizunean faktore horietako bakoitzerako lor daitekeen egoera desiragarria definituko dugu. Etorkizun horrek aldaketarako itxaropenak erakusten ditu, prozesuko parte-hartzaileen iritziz. Zenbaitetan, interesgarria izan daiteke bi ikuspegi eskatzea faktore bakoitzeko: bata, baikorra, eta, bestea, ezkorra. Hori egindakoan, ohartuko gara, zenbaitetan, batzuen ikuspegiarik baikorrena nahiko hurbil dagoela beste batzuen ikuspegi ezkorretik. Horrek eraginda, aise azaleratzen dira gerta daitezkeen gatazkak, eta, hori, ez ahaztu, eman beharreko lehen pausoa izaten da adostasunak bilatzeko. Eta, “faktore kritikoetarako” adierazi diren espektatiba baikorrak oinarri harturik, eraiki egin daiteke etorkizuneko agertoki edo ikuspegi partekatua.

Ezinbesteko baldintza da etorkizuneko agertokia bukaerako helburuarekin bateragarria izatea. Eta helburua hau da: lekua gunen babestu izendatzea eragin zuten elementuak zaintzearen aldeko egoera lortzea. Horregatik, bateragarritasun-analisiak (ezagutza teknikoak eta zientifikoak kontuan hartuta egindakoak) lehen gatazka-mapa bat egiteko aukera ematen du, eta, jakina, kudeaketa-taldeen gatazka horiek jorratu beharko dituzte.

Gerta daiteke parte-hartzaileek adierazten dituzten faktore batzuk kontserbaziorako garrantzitsuak ez izatea eta parte-hartzaileen beraien kezka nagusien araberrakoa izatea. Lekuaren kontserbazioarekin zuzeneko lotura ez duen egoera gatazkatsua dagoen tokietan, esaterako, zaila izan daiteke faktore garrantzitsuak hautatzeko prozesua birbideratzea. Halakoetan, aurretik hiru agertoki aurkez daitezke, haietako bakoitza aztertze; agertokiok egoeren gradiente gutxi gorabehera egokiak agertuko dituzte gunen babestuaren osotasun ekologikoa kontserbatzeko, eta parte-hartzaileek beren jarrera agertu beharko dute.

IV- *Ekintzarako estrategiak lantzeko etapa:*

Behin ikuspegi edo agertoki desiratuak adostutakoan, zenbat “faktore kritiko” diren, hainbeste mahaitan eztabaidatuko dira planean faktore bakoitzerako gara litezkeen ildo estrategikoak, baina argi utzita horiek ez direla neurri zehatzak.

V- *Ondorioak ateratzeko etapa:*

Aurreko pausoaren ondorioz zirriborratzen den agertoki desiratuaren errealitatearekin erkatu behar da. Horrela, aipatu agertokira iristeko beharrezkoak diren aldaketak agertzen baitira. Horrela hasten dira jada ikusztatzen arazo batzuk konpontzeko irtenbideak. Talde teknikoak planaren helmugak eta estrategia-ildoak idazterakoan, kontuan hartu ahal izango ditu hala irtenbideak nola zirriborratu diren gatazka posibleak.

■ **Saioa: Arazoen tailerra**

Parte-hartzearen hurrengo mugarria kudeaketarako baldintzak eta arazoak aztertzea da. Etapak helburu du naturagune babestuak egun zer-nolako egoera duen elkarrekin hausnartzea eta, era berean, naturagunearen dibertsitate biologikoa zaintzeak dituen arazoen gainean gogoeta egitea.

Baldintzak eta arazoak aztertzeke, komeni da talde teknikoak ikuspuntu tekniko eta zientifikoarekin bat datozen helmugak jartzea, naturagunearen osotasun ekologikorako garrantzitsuak diren habitat mota guztiak eta basa landaredia eta basa fauna espezie guztiak ongi kontserbatzeko egoerara iriste aldera; horixe baita planaren xedea eta legeak agindutakoa.

Une honetatik aurrera, aukerarik errazena da talde teknikoak aurrez landutako agiri batetik abiatzea, eta agiri hori bertaratu direnen pertzepzioarekin eta iritziarekin erkatzea. Beste aukera bat da helmuga horiek erreferentziatzat hartzea, eta desio dugun agertokia lortzea sustatu edo zaildu dezaketen baldintza nagusien gaineko lehen prospekzio kolektibo bat planteatzea.

Parte-hartzaileek atzemandako arazoak aterarazteko agiri bat

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Biodibertsitatea Kontserbatzeko Estrategian, diagnosi parte-hartzailean oinarritutako tailer bat egitea aukeratu zen. Parte-hartzaileen profilak horretarako aukera eman zuen: adituak kontserbazio kontuetan, Unibertsitateko langileak, hainbat sektoretako profesionalak, administrazioetako ingurumen arloko teknikariak, e.a. Tailerra egiteko, eztabaidarako agiriak prestatu ziren, zeinek estandar minimoak erakusten baitzituzten gunen babestuak kudeatzeko. Estandarrak definitzeko, biodibertsitatea kontserbatzeko buruzko nazioarteko esparru-dokumentuak hartu ziren oinarri. Aipatu estandar horietako bakoitzerako, aldi berean, hainbat balorazio-irizpide adierazi ziren, Euskadin noraino betetzen ote ziren ikusteko. Hau da, estandarrak azterketa egiteko zerrenda gisa erabili ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko arazorik esanguratsuenak ezaugarritu ahal izateko, eta, era berean, biodibertsitateak lurraldean duen egoera zirriborratutako agertoki desiragarriarekin erkatzeko.

Kontua ez zen parte-hartzaile bakoitzak irizpide guztiak sakon aztertzea, batzuk baizik, zeinei buruzko informazioa eta ezagutzak baitzituen bere lanbide-jarduerari esker edo bere interes pertsonalei esker. Era berean, bestelako irizpide berriak aurreikusteko aukera eskaintzen zen, behar hainbateko funtsarekin kontuan hartzeko modukoak baziren.

Tailerrean, guztira, 89 lagun aritu ziren, bost lan-mahaitan banaturik. Ondoren, tailerrean atzemandako arazoak lehenetsi ziren, balorazio-inkesta baten bitartez, irizpide beraren inguruko akordio-maila oinarri harturik. Kanpoaldeko aditu erregional batzuek osaturiko talde batek emaitza baloratu eta haztatu egin zuen.

Lortutako informaziotik abiatuta, idazketa-taldeak diagnosiaren agiria taxutu zuen, eta agiri hori helburu estrategikoetan aurrera jotzeko oinarria izan zen.

Garrantzitsua da, nolanahi ere, hala faktore positiboak nola faktore negatiboak hainbat ikuspegitatik aztertzea; hartara, ezinbestekoa da tokiko erkidegoak eta talde interesdun guztiek ingurumen arloko egoeraren eta arazoen azterketan parte hartzea.

Teknika eta tresna asko daude eskura kudeaketarako zer baldintza dauden aztertzeke. Gehien erabiltzen direnetako bat diagnosi parte-hartzaileak, DAFO analisia eta zuhaitz-arazoak dira, hain zuzen.

Horietako edozein erabilita ere, komenigarri deritzogu eduki tekniko nabarmena duten helmugak eta emaitzak ere aurrez zehazteari, Habitategi eta Hegaztiegiko buruzko Zuzentzarauak betetzea xede duten heinean. Baldintzak, horrela, helmuga eta emaitza horien arabera zehaztuko ditugu, eta, baldintzek, jakina, helmugak eta emaitzak lortzea sustatu edo kaltetu

dezakete. Bestela, horrela egiten ez bada, edo analisirako tresna egokia aukeratzen ez badugu, parte-hartzaileek kontserbazioarekin zerikusirik ez duten arazo sektorialak jartzen dituzte mahai gainean; horrek prozesua oztopatzen du eta denbora ederki galtzen da. Horrenbestez, nahitaez planaren esparruan jorra daitezkeen baldintzen gaineko hautaketa egin behar da, eta hori pixka bat etsigarria izan daiteke.

Planaren xede ez diren arazoak aurkezten badira, hala ere, bitartekaritza taldeak konpromisoa hartu behar du arazo horiek administrazio eskudunari helarazteko. Hori "erakundeen arteko koordinaziorako" taldearen bitartez egingo da.

Nolanahi ere, helmugak aldatzeko, kentzeko edo sartzeko proposamenak onar litezke, planak kontuan hartu behar duen ingurumen arloko araudian ezarrita dauden betebeharrak arriskuan jartzen ez diren bitartean. Eta, are gehiago, planean erkidegoaren bestelako xedeak ere txerta litezke, biodibertsitatea zaintze hutsaz harantzago doazen beste alderdi batzuekin zerikusia duten arren: esate baterako, garapen sozioekonomikoari eta bizi-kalitateari lotutako kontuak; zenbaitetan, izan ere, kontserbazio-neurriek kontu horiekin lotura estu-estua izaten dutelako.

Ez dezagun ahaztu, ordea, administrazio publikoa sail itxietan antolatua dagoela, eta eskumenen gaineko egitura zurrun-zurruna izaten dela. Hori ikusita, beraz, aurreko paragrafoan esandakoa oso desiragarria izanda ere, kasuan kasuko sailak onetsi, esku hartu eta dirua jarri beharko luke.



Gure esperientziaren arabera, kontserbazio hutsari dagozkion arazoei dagokienez, oro har holako arazoak ez daude parte-hartzaileen errealitatearen baitan. Horregatik, zenbaitetan, askoz ere eragingarriagoa izango da talde tekniko idazleak identifikatu dituen kontserbazio-arazoen aurrerapen bat aurkeztea eta parte-hartzaileek alde edo moldez esku hartzea eta konpontzen lagundu dezaketen arazoak aukeratzea.

Zer arazo dauden aurrez identifikatuta, gainera, eztabaidaren mamia ez da sakabanatuko eta ez da naturagune babestua eta funtsezko osagaiak zaintzearekin zerikusia ez duten arazorik agertuko. Garrantzitsua da malgua izatea, baina inola ere ez ditugu ahaztuko zein diren kontserbaziorako beharrezkoak diren funtsezko helburuak.

Era berean, lortzea zaila bada ere, garrantzitsua da argi desberdindutako ariketak zehaztea, batetik, arazoak aztertze edo identifikatzeko, eta, bestetik, irtenbideak zehazteko. Bestela, maiz, bestelako interes eta eskariei erantzuteko neurriak proposatzeko dira, baina ez dira izango kontserbazio-arazoei dagozkien neurriak. Kasu bakoitzean aztertu beharko da komeni den edo ez saio bakar batean arazoak aztertzea eta neurriak proposatzea.

Berariaz ez bada saiorik egiten arazoak aztertze, bestelako bideak jorratu beharko dira aldean ikuspegiak baloratu ahal izateko. Hartara, erabilgarria izan daiteke banakako elkarriketa batzuk egitea, aurrez aukeratuak, edo bestela, gai zehatzak jorratzeko mahaiak eratzea, zer baldintza dauden ahalik eta zehatzen identifikatzeko aukera izan dezagun.

HABITAT BALIOGARRIENAK: LOS HÁBITATS MÁS VALIOSOS:




**HARIZTIAK
ROBLEDALES**



**HEZEGUNEAK
ZONAS HÚMEDAS**



**IBAIK
RÍOS**



**LANDAZAIA
PASTOS**

G.K.T.ren KUDEAKETA PLANA

G.K.T. garatzeko **Kudeaketa Plan** batek jarraipen, ikerketa, informazioa, ingurugiroa hobetzeko lanak eta lurren jabeekin akordioak proposatzen ditu kudeaketa jasangarri bat lortzeko.

Kudeaketa Plana EZ du arautegi berririk ezartzen eta G.K.T.ren lurraldeak gaur egun dagoen urbanizazio, abeltzaintza, osasuna, ehiza, eta abar-ren arautegiari lotuta jarraituko dio.

PLAN de GESTIÓN del L.I.C.

Para el desarrollo del L.I.C. un **Plan de Gestión** propone medidas de seguimiento, estudio, información, obras de mejora ambiental y acuerdos con los titulares de terrenos para la gestión sostenible.

El Plan de Gestión NO establece ninguna nueva normativa y el territorio L.I.C. sigue sujeto a la legislación vigente de urbanismo, ganadería, sanidad, caza, etc...

■ Saioa: Helburuen eta neurrien tailerra.

Fase honetan aztertzen dira zer emaitza zehatz lortu behar diren hurrengo sei urtean eta zer neurri jarri behar diren abian, aurreko fasean identifikatu diren baldintza onuragarriak aprobetxatzeko eta atzeman diren arazoak konpontzeko, betiere planaren azken helmugetarantz aurrerapauso nabarmenak emate aldera.

Berriz ere esango dugu ez dela komeni saioetan ezagutza teknikoak eta zientifikoak behar dituzten neurriak proposatzea, beharrezkoak izanda ere, non ez diren adituekin osatutako

mahaiak; adibidez, udal batzuek izaten dituzten ingurumen arloko teknikariekin osatutako mahaiak. Bestela, neurri zehatzen gaineko eztabaida hori adituak ez diren taldeengana eramaten denean, emaitzak egiazki etsigarriak eta antzuak izaten dira.

Hori dela eta, saio honen helburua gehienetan ez da izango eztabaidatzea zer neurri sartu planean, baizik eta talde teknikoak proposatu dituen tekniken aurrerapen baten egokitasunaz eztabaidatzea; edo adituez osatutako edo ezagutza teknikoak eta zientifikoak dituzten alde interesatuez osatutako mahai tematikoetatik sortutako neurrien egokitasunaz eztabaidatzea. Uste izatekoa denez, neurri horiek beste gune batzuetan erkatuak izan dira eta egokiak dira ikuspuntu teknikitik eta zientifikotik, nahiz-eta eztabaidatu eta zalantzan jarri ahal diren. Dena den, teknikariek idatzitako neurrien aurrerapen batez eztabaidatzerakoan, eztabaidak soil-soilik holako neurrietara bideratzen dira, eta, horren ondorioz, zaila izaten da bestelako irtenbideak agertzea. Horregatik, abiapuntua alde aurreko lan-dokumentu bat izanda ere, bitartekaritza taldeek ideia alternatiboak agertzea sustatu behar dute.

Une honetan, horrenbestez, ahaleginak zertara eta honetara bideratuko ditugu:

- Proposatutako neurriei buruz aldeek zer iritzi duten eskatzera; halaber, tokian tokiko baldintzetara hobeki molda litezkeen ezagutza eta aroketxamendu molde tradizioaletan oinarriturik dauden bestelako aukerabideei buruz zer iritzi duten eskatzera.
- Neurriak aplikatzerakoan aurreikusteko modukoak diren zailtasunak identifikatzera.
- Alde interesdunak konpromisoak hartzeko prest dauden edo ez ikertzeraz, neurriak aplikatzea sustatzeko.

Dena izan daiteke hizpide; baina gauza bakoitza bere unean

Maiz gertatzen da aurreko saioetan huts egin duen jendeak saioaren aztergaien artean ez dauden kontuak mahai gainera berriro atera nahi izatea. Halakoetan, zorrotz jokatu dugu, eta edozein kontu edo gai aurrez eztabaidatu bada, eztabaidari ateak itxiko dizkiogu. Hala ere, inork horrela jokatzeko badu, hau da, inork aurreko saioaren batean eztabaidatu den konturen bat berriro atera nahi badu, esango diogu ekarpen idatzia egin dezala saiotik kanpo.

Eta, saio honetarako, talde teknikoak idatzia izango du zer baldintza eta zer neurri jotzen diren egoki, prozesu parte-hartzailearen aurreko saioan izan diren emaitzak kontuan hartuta.

Tailerra egin aurretik, bertaratzeko direnei lan-dokumentu bat banatuko zaie, talde teknikoak emandako dokumentuan oinarriturik taxututakoa. Dibilgaziozko laburpen gisako bat izango da eta hau guztia bildu beharko du: kudeaketa-planaren helburuak, zer neurri proposatu diren huraxe betetzeko eta zer eragin izan ditzakeen alde interesdunen jardueretan, eskubideetan eta interesetan.

Ugariak dira neurriak aztertzeke lan aukerak. Osoko saioetan ez da talde tematikoetan edo talde txikietan adinako sakontasunik lortzen eztabaidan. Osoko saioetan, ordea, parte-hartzaileak bereak ez diren bestelako ikuspegiak eta interesak ikusi, ezagutu eta erkatzen ditu. Oso egokiak dira, gainera, alde bakoitzaren eta administrazioaren artean izaten diren eztabaidak hausteko, eta aldearen arteko eztabaidari bidea ematen diote. Osoko saioak eta taldekako lana txandaka erabiltzen baditugu, bi aukeren alde onak lortuko ditugu.

Lanetatik saio monografikoak egin beharra sor daiteke, bai eta adituak gonbidatu beharra ere. Idazketa-taldeak iradokizunak eta aholkuak emango ditu, prozesuarekin batera eta gizarte osoarentzat, zer prestakuntza- eta informazio-ekintza egin daitezkeen erabakitzeke: mintzaldi zikloak, erakusketa jardunaldiak, ezagutzaren azoka, etab.



Parte-hartzea garrantzitsuagoa da planaren fase batzuetan besteetan baino

Kontuan hartu behar dugu herritarren ekarpenak ez direla horren garrantzitsuak izaten planaren alderdi guztietan. Hau da, planaren alderdi jakin batzuetan, ekarpen horiek ez dira horren garrantzitsuak, berariazko ezagutzak behar direlako edo legediak berak baldintzatuak daudelako. Hona hemen: funtsezko osagaiak hautatzea, kontserbaziorako azken helmugak edo helburuak hautatzea; betebehar ekologikoak identifikatzea, habitatak zaintzeko arazoak identifikatzea, eta landaretza eta fauna espezieak identifikatzea. Holako alderdi gehienak plana idatziko duten teknikari adituek erabakiko dituzte.

Beste zenbait alderditan, ordea, herritarren parte-hartzea bereziki funtsezkoa da; hots, alderdi horiek zerikusia dute legea betearazteko formarekin eta denborekin, edota ezagutza zientifikoak aplikatzearekin, tokian tokiko baldintzekin bat: hau da, lekua kontserbatzearekin bat datorren garapen-ikuspegi edo garapen-eredu partekatua erabakitzea; egungo eta tokiko kudeaketa-ereduen gaineko eta haien zergatien gaineko informazioa lortzea; kontserbazio-neurri jakin batzuek tokiko ekoizpen-ereduetan izan ditzaketen ondorioak; amaierako helburuak lortzea sustatu edo oztopatu dezaketen baldintzak edo faktoreak; planaren aplikazio aldian zer helburu kuantitatibo lortzea izango den errealista proposatzea; proposatu diren neurri aktiboen onargarritasuna; edo, tokiko baldintzetara hobekien moldatzen diren irtenbide alternatiboen planteamendua.

Garrantzitsua da ekarpen horietako bakoitza egokiro antolatzea, parte-hartzeari berariaz dagozkion tresna eta dinamika aproposak une egokian erabilita.

■ Prozesua ixteko saioa

Behin kontsulta-fasea bukatuta eta egokiak diren ekarpenak txertatuta, komeni da prozesua ixteko saio bat egitea, behin betiko emaitzaren berri emateko eta kudeaketa-planean zer ekarpen txertatu diren jakinarazteko.

Era berean, ezinbestekoa deritzogu zer ekarpen ez diren txertatu eta zergatik azaltzeari. Izan ere, ekarpen bat zergatik errefusatu den jakitea gutxienezko konpromiso bat da fase horretan bere borondatez parte hartu duenarekiko, eta bidezkoa da arrazoien berri ematea. Horrek, gainera, alegazioak hobeki funtsatuak edo funtsatuagoak aurkezten lagunduko dio, plana jendaurrean jartzen denean. Gainera, ekarpenak era bidegabean eta arrazoirik gabe errefusatzen badira, planaren aurkako jarrerak sortuko dira eta, era berean, jendearengan mesfidantza sortuko da etorkizuneko beste prozesu batzuen aurrean.

Saioaren aurretik, behar adina baliabide badaude, komeni da parte-hartzaileei laburpen bat ematea. Agiri horrek, alegazioen emaitzez gain, behin betiko neurrien proposamena ere bildu beharko du (arrazoiak emanez), hasierako proposamenak aldatu badira.

Saio horrek, izan ere, zertarako eta honetarako balioko du:

- Prozesu parte-hartzailean egindako ekarpenen laburpen bat eskaintzeko eta ekarpenok amaierako proposamenean sartzeko.
- Prozesu parte-hartzailean egindako baina behin betiko proposamenean aurreikusi ez diren ekarpenen laburpen bat emateko, ekarpenok zergatik utzi diren kanpoan arazoituta.
- Prozesu parte-hartzailearen ezaugarriak laburbiltzeko: parte-hartzeari, ebaluaziori... buruzko datuak.
- Planaren jarraipenerako programan parte-hartze publikorako eredu bat proposatzeko.
- Plana jendaurrean jartzeko prozedurari eta egutegiari buruzko informazioa emateko.
- Prozesuari amaiera ofiziala emateko, administrazio sustatzailearen ordezkari ezagun bat bertan dagoela.
- Parte hartu duten lagun guztien gogobetetze maila orokorrean ebaluatzeko.

Saio honen bidez amaiera emango zaio gizarteak parte hartzeko prozesuari eta plana jendaurrean jartzeko prozesu formala hasiko da.

Onetsi aurretik, plana jendaurrean jarriko da, epe horretan jendeak planaren aurrerapen adostuari oharrak, alegazioak edota kontsulta idatziak aurkez diezazkion. Prozedura horri esker, parte-hartzea alde interesdunetz harantzago iristen da, hau da, gainerako herritarrengana iristen da. Administrazio Publikoak, gainera, alegazioei erantzun idatzia eman beharko die, Autonomia Erkidego bakoitzean ezarrita dagoen prozedurarekin bat.

Jendaurrean jartzen diren dokumentuak formalki konplexuak dira. Ez dezagun ahaztu testu horiei edo administrazio-prozedurei aurre egiteko gaitasunak mugatu egiten duela ekarpen formalak egiteko aukera. Horregatik, fase honetan parte-hartzea egiazkoa izango bada, Administrazioak behar adina neurri hartu beharko ditu agiriak ulergarri egiteko. Zer esanik ez, ezinbestekoa da jendearen eskura laburpen bat jartzea, funtsezko neurri guztiak hizkuntza ez-tekniko batean azaltzeko.

Baina horrez gain, komenigarria litzateke "leihatila" bat ere egokitzea talde tekniko batek kontsulta orori erantzuteko, behin-behineko dokumentua ulergarriagoa egite aldera. Taldeak, halaber, aholkuak emango lituzke alegazioak aurkezteko eskubidea nola erabili azaltzeko, herritarren iritzien eta eskarien funtsean eragiten saiatu gabe. Talde tekniko hori ederki izan liteke plana idatzi duen eta jendearen parte-hartze informala dinamizatu duen talde berbera.

Kontsulten emaitzak eta plana jendaurrean jartzearen emaitzak aintzat hartu beharko dira, plana behin betiko onetsi aurretik txertatzeko. Prozesuaz arduratzen den administrazioak, bestalde, jendeak aurkezten dituen alegazioak argitaratu beharko lituzke, bai eta alegazioei buruz hartzen diren erabakiak ere, arrazoiak barne, gehienez ere bi hilabeteko epean.

Alegazioak aurkezten laguntzea

Nafarroako Natura 2000 Sareko Batasunaren Intereseko Lekuen proposamena jendaurrean jarri zenean, proposamenari buruzko erakusketa ibiltari bat egon zen ikusgai eskualde-buru guztietan; halaber, informazio-hitzaldiak egin ziren eta dibulgaziozko dokumentazioa banatu zen. Era berean, "leihatila" bat jarri zen galdera orori erantzuteko, ohikoak izaten diren galderak bazter utzi gabe: hots, halako lursail jakin bat sare barruan dagoen ala ez, eta barruan egoteak zer ondorio dakartzan. Galderei erantzuten ziharduen talde teknikoari enkargatutako zereginen artean haxe zegoen: jendeari alegazioak aurkezten laguntzea.




Plangintza parte-hartzaileko prozesu baten sekuentzia

Arestian esan dugun bezalaxe, gidan proposatu dugun ereduarekin, planaren idazketa teknikoa eta herritarrek plangintzan parte hartzea aldi berean gertatzen da, eta, horrela, bi prozesu horiek, teknikoa eta soziala, uztartzen eta atzeraelikatzen dira.

Gu naturagune babestuak kudeatzeko prozesu parte-hartzaile askotan aritutakoak gara eta agiri askoren idazketa teknikoan ere jardun dugu. Bada, gure irudikoz, pentsaezina da agiria idaztea, gune babestuan eta inguruan bizi den jendearekin harreman estua izan gabe. Gauzak horrela, ikuspuntu profesional hutsetik, ez diegu inolako errespeturik aitortzen bulegoan idazten diren planei. Ez genuen proposatzen jakingo, esaterako, naturagune babestu bateko larreak kudeatzeko neurririk, aurrez larreak erabiltzen dituzten abeltzainekin hitz egin gabe.

Bestela esanik:

“Naturagune bat kudeatzeko plana taxutu nahi dutenek, azkenean, behi usaina izan beharko dute”.




Hori dela eta, besteak beste, ezinbestekoa deritzogu plana idatziko dutenak saio parte-hartzaileetara joateari, ba baitute zer ekarri handia, bai eta zer jaso askoz ere handiagoa ere.

Plangintza-eredu honetan, funtsezko mugarri zenbait ezartzen dira, zeinetan idazketa-taldeak eta gizarte-eragileak elkartzen baitira, bitartekaritza taldeak lagundurik plana eraikitzeko. Mugarriok bat datoz agiri teknikoak idazteko prozesuaren funtsezko uneekin:

- Ingurumenari buruzko diagnosia eta egoera.
- Amaierako helmugak eta helburuak (edo estrategikoak).
- Baldintzak eta arazoak.
- Eraitzen eta neurrien proposamena.
- Plana finantzatzeko eta hari jarraitzeko plana.

Dena dela, guneak berak dituen berezitasunei erreparatuta, eta, parte-hartzaileen izaera boluntarioari eta eskuzabalari darion berezitasuna kontuan hartuta, bai eta parte-hartzaileen heterogeneotasunari, kopuruari eta ezaugarriei erreparatuta, gomendagarria izan daiteke saio parte-hartzaile gutxiago egitea eta prozesua bera sinplifikatzea.

Eskema honek laburbiltzen du nola uztartzen diren bi prozesuak, teknikoak eta soziala, plana taxutzeko:



Eta, gero, zer?

Herritarren parte-hartzea ez da kudeaketa-plana edo kudeaketa-tresna onestearekin bukatuko. Hau da, huraxe onetsi ondoren ere, organoekin batera, herritarrek parte hartzeko prozedura eraginkorrak ezarri beharko dira huraxe nola aplikatzen ari den eta, aurreikuspenen aldean, zer emaitza lortu diren jakinarazteko.

Emaitzak espero zirenak ez badira, alde interesdunek erabakietan parte hartu beharko dute ondo atera ez diren planaren alderdiak onbideratzeko. Planak, hartara, aurreikusia izan behar du nola eta noiz eman informazioa, alde interesdunek gauzak nola doazen eta beste ekarpen batzuk nola egin jakin dezaten. Hau da, nola eta noiz parte hartuko duten aktiboki planaren jarraimendua eta ebaluazioa egiteko.

Naturagune babestuei dagokienez, Patronatuak edo Kudeaketa Organoak saiatzen dira eginkizun hori betetzen. Baina, oro har, pentsatzen da ez dutela egokiro funtzionatzen eta ez dutela beren xede nagusia betetzen.

Natura 2000 Sareko eta naturagune babestuetako sistemetako leku asko ez dira Natura Parke gehienak bezain konplexuak; horrenbestez, parte hartzeko egiturak errazagoak izaten dira, eta, horrexek berak eraginda, parte-hartzea eraginkortasunez egin daiteke, ingurumen arloko administrazioen baliabide urriak ahalik eta hobekien erabilia eta parte-hartzaile izan daitezkeenek eskura duten denbora egokiro baliatuta.



Ezinbestekoa da gizartearen parte-hartzea bideratzeko organo bat eratzea, eta organo horrek, formula bat zein bestea erabilia ere, azaldu beharko du planaren aplikazioan kudeaketa-lana zer-nolakoa izan den eta zer emaitza izan diren. Horrez gain, administrazio publikoek (toki entitateek, bereziki), pixkana-pixkana, ardua handiagoa utzi beharko lukete alde interesdunen eskuetan, emaitzen arabera hartu behar diren erabakiei dagokienez. Hartara, ahalegin handia egin behar da, herritarrek parte-hartze handiagoa izan dezaten plana aplikatzeko moduari buruzko eztabaidetan eta erabakietan, eta, ahalegin handia ere, plana gauzatzen ari den bitartean, alde interesdun guztien arteko lankidetzaz sustatzeko; horrela, alde interesdunek bide egokiak eskura izango dituzte, kudeaketaz arduratzen direnei gomendioak egiteko.

Era berean, herritarren parte-hartzea plangintzan eta erabakietan sustatzeaz gainera, administrazio publikoek, pixkana-pixkana, ardura eta inplikazio handiagoa bultzatu beharko lukete alde interesdunen artean kudeaketari dagokionez; tokiko erkidegoen artean, bereziki. Hartara, habitaten eta basa espezieen aldeko konpromisoak sinatuko dira.

Alde horretatik, komeni da lurralde-kontratuak, nekazaritza-ingurumenaren aldeko neurriak edota beste edozein kontserbazio-akordio oro (iraunkorrak nahiz aldi batekoak) sustatzea administrazioaren eta pertsona fisiko edo juridikoen artean (jabeak izan edo erabiltzaileak izan); hau da, jabetzaren titularrak direla edo lurrak erabiltzeko eskubideak dituztela ziurtatu dezaketenekin, akordio haiek lur horietan aplikatuko baitira konpromisoek indarrean iraun bitartean. Era berean, lurraldea zaintzeko akordioa egitea sustatu behar da administrazioak propio zeregin horietarako aitortu dituen entitateen eta lursail pribatuen jabeen artean; akordioen xede nagusia izango da kudeaketa-planean edo kudeaketa-tresnan sarturik dauden kontserbazio-neurriak garatzea. Lur publikoak direnean, komeni izango da administrazio publikoek kudeaketa lagatzeko akordio idatziak egitea lurraldea zaintzeko entitate haiekin, hainbat urtetarako, administrazio-hitzarmenen bitartez. Biodibertsitaterako bankuak abian jartzea oso tresna erabilgarria izan daiteke, betirako akordioak egiteko eta finantzatzeko.

Eta onena litzateke hori guztia kudeaketa-planean edo -tresnan bertan aurreikusia izatea. Komeni da, beraz, planaren edo tresnaren ebaluazioak irizpide hauek barne hartzea:

- Behar adina mekanismo aurreikustea, aldeei planaren emaitzen berri emateko.
- Behar adina mekanismo aurreikustea, plana gauzatu bitartean beste ekarpen batzuk txertatzeko, emaitzen arabera.
- Behar adina mekanismo aurreikustea, tokiko jabeak eta erkidegoak zuzeneko kudeaketarekin aktiboki lotzeko.



HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO BALIABIDEAK

Parte-hartze saioetarako behar diren materialen eta baliabideen zerrendak

Ez dezagun ezertxo ere ahaztu! Unean unekoa izan behar dugu eskura, jardueraren arrakasta, hein batean, horretan baitatza. Zerrendari begirada botatzea¹⁰ lagungarria izango zaigu.

☐ Gunearen mapak/planoak	☐ Kartulinak
☐ Dokumentazioa - Fotokopiak	☐ Koloretako txartela
☐ Eskuko ordenagailua	☐ Post-its
☐ USBa / CDa / DVDa	☐ Guraizeak
☐ Erretroproiektorea	☐ Itsasgarria
☐ Diapositiba-proiektorea	☐ Zelo-papera
☐ Erakuslea	☐ Blu-tack
☐ Argazki-makina	☐ Tipp-ex
☐ Polaroid kamera	☐ Grapagailua / grapak
☐ Bideokamera	☐ Koloretako gometsak
☐ Kanoia	☐ Erregelak
☐ Proiektzio-pantaila	☐ Plastilina
☐ Grabagailua	☐ Klipak
☐ Kableak / bihurtzailuak	☐ Txintxetak
☐ Kable-luzagarria	☐ Erloju alarmaduna
☐ Gardenki zuriak	☐ Mahaiak / Oholak eta astoak
☐ Gardenki-errotulagailuak	☐ Aulki tolesgarriak
☐ Arbel zuria eta errotulagailuak	☐ Otamenerako tresnak (edalontziak, aho-zapiak, mahai-zapiak, mahai-tresnak...)
☐ Papelografoa	☐ Janaria / edaria
☐ Paper jarraia	☐ Zabor-poltsak
☐ A4 / A3folioak (zuriak / koloretakoak)	☐
☐ Bolaluma / arkatzak	☐
☐ Margoak	☐
☐ Zorrozkailua	

¹⁰ Nondik egokitua: communityplanning.net | toolbox | checklists | equipment and supplies

Prozesu parte-hartzaileari aplikatutako zereginen kronogramaren adibidea ¹¹

	Prozesua sustatzen duen ingurumen arloko Administrazio Teknikiak.
	Planaren idazketaz arduratuko diren teknikariak (kanpoaldeko laguntza).
	Parte-hartze prozesuaren dinamizatzaileak (kanpoaldeko laguntza).
	Toki Administrazioa (Alde interesdunak.)
	Eragile nagusiak eta bigarren mailakoak (alde interesdunak).
	Jendea, oro har (bilera irekiak eta weben parte hartzeko aukera).

Hainbat egun Bilera 1, inplikaturiko dagoen toki administrazio bakoitzarekin						Iraupena / Ordutegia		
						1 - 1,5 h	Kontaktua hartzea	Kontaktua hartzea. Planaren idazketari buruzko informazioa eta garatu nahi den parte-hartze prozesuaren aurrerapena. Kolaborazio eskaera aurretik aurreko elkarrizketen bitartez.
1. Parte-hartzea hasia: aurkezpen jardunaldia						Iraupena / Ordutegia		
						18,30 h	Muntaketa	Aretoa, materialak eta bitartekoak prestatzea.
						19,00 h	Harrera eta lan-taldea aurkeztea	Ongietorria bertaratzen direnei. Bilera eta lan-taldea aurkeztea.
						19,15 h	Prestatu beharreko dokumentua	Multimedia aurkezpena: Plana, zergatik eta zertarako?. Zertan datza? Zergatik leku honetan? Galderak eta ekarpenak egiteko denbora.
						20,00 h	Parte-hartze prozesua	Garatu beharreko parte-hartze prozesua aurkeztea. Prozesuan izena "formalki" ematea, bete beharreko galdetegiaren bitartez.
						20,30 h	Eskerrak ematea eta saioa ixtea	Bileraren bukaera. Aretoa txukuntzea, eta tresnak eta materialak biltzea.
							Komunikazio informalerako denbora	(Lan-taldeak denbora tarte bat programatuko du bilera bukatzen denerako, elkarrizketa informaletarako; aretoan bertan edota herriko taberna batean).
Hainbat egun								
							Azterketa	Izen-emateak berrikustea. Jasotako informazioa aztertzea. kontaktu berriak. Hurrengo bilera programatzea. Dibulgaziozko dokumentuak eta eztabaidarako dokumentuak prestatzea.
							Koordinazioa	Neurriak eztabaidatzeko tailerrak antolatzea.
							Deialdia	Dokumentazioa eta deialdia bidaltzea.

¹¹ (Community Planning-UK proiektuan diseinatutako kronogramaren egokitzea. Tokiko erkidegoen aldeko proiektua da, plangintza-politiken osaketan eta garapenean eginkizun aktiboa har dezaten)
<http://www.communityplanning.net/aboutcp/aboutthissite.php>

2.a. Nekazaritza eta baso neurrietarako tailerra						Iraupena / Ordutegia		
						18,30 h	Muntaketa	Aretoa, materialak eta bitartekoak prestatzea.
						19,00 h	Harrera eta saioa aurkeztea	Ongietorria. Bileraren planteamendua.
						19,10 h	Helburu eta neurrien zirriborroa aurkeztea	Planean proposatzen diren neurriak aurkeztea; zehazki, nekazaritzarekin eta basogintzarekin lotutakoak, multimedia aurkezpenaren bidez. Zalantzak argitzeko denbora. Eztabaidatu beharreko neurriak aukeratzea, txartelak erabilita eta paneletan jarrita.
						20,15 h	Atsedenaldira-Kafea	Elkarriketa informalerako unea.
						20,40 h	Neurriak eztabaidatzea	Aukeratutako neurriak eztabaidatzea: Zer arazo ikusten ditut, nire jardueratik, neurri hau aplikatzeko? Talde txikitan eta, gero, denen artean: eztabaida eta aldaketa-proposamenak. Planaren zirriborroan aurreikusita ez dauden neurri berriak proposatzea.
						21,50 h	Ebaluazioa eta azken agurra	Saioa ebaluatzea, galdetegi idatziaren bidez eta "gometsak" ebaluazio-ituetara "jaurtitzea". Eskerrak ematea eta azken agurra.
						22,00 h	Saioaren bukaera	Aretoa txukuntzea, eta tresnak eta materialak biltzea. Denbora tarte bat baliatuko da, saioari buruzko iruzkin informalak egiteko eta iritziak emateko.
							Ebaluazio informala	Saioari buruzko iritziak trukatzeko. Alde onak. Hobetu beharrekoa.
2b. Aisia – erabilera publikoetarako neurrien tailerra						Iraupena / Ordutegia		
						18,30 h	Muntaketa	Aretoa, materialak eta bitartekoak prestatzea.
						19,00 h	Harrera eta saioa aurkeztea	Ongietorria. Bileraren planteamendua.
						19,10 h	Helburu eta neurrien zirriborroa aurkeztea	Planean proposatzen diren neurriak aurkeztea; zehazki, aisiarekin eta erabilera publikoarekin lotutakoak. Zalantzak argitzeko denbora. Talde txikitan eta, gero, denen artean: aldaketa-proposamenak eta eztabaidatu beharreko neurriak aukeratzea.
						20,15 h	Atsedenaldira-Kafea	Elkarriketa informalerako unea.
						20,40 h	Neurriak eztabaidatzea	Aukeratutako neurriak eztabaidatzea: Zer arazo ikusten ditut, nire jardueratik, neurri hau aplikatzeko? Talde txikitan eztabaidatzea eta aldaketa-proposamenak. Planaren zirriborroan aurreikusita ez dauden neurri berriak proposatzea.
						21,50 h	Ebaluazioa eta azken agurra	Saioa ebaluatzea, galdetegi idatziaren bidez eta "gometsak" ebaluazio-ituetara "jaurtitzea". Eskerrak ematea eta azken agurra.
						22,00 h	Saioaren bukaera	Aretoa txukuntzea, eta tresnak eta materialak biltzea. Denbora tarte bat baliatuko da, saioari buruzko iruzkin informalak egiteko eta iritziak emateko.
							Ebaluazio informala	Saioari buruzko iritziak trukatzeko. Alde onak. Hobetu beharrekoa.

Tarteko denbora									
							Koordinazioa	Saioetako emaitzak biltzea.	
							Emaitzen akta	Saioetako emaitzen akta idaztea. Parte-hartzaileei itzultzea, posta elektronikoa eta posta arrunta erabilia.	
							Akta balidatzea	Aktaren edukiak berrikustea eta behin betiko idazketa.	
							Beste ekarpen batzuk hartzea	Taldeen eta herritarrek, parte-hartzeko tailerretatik aparte, egindako ekarpen berriak hartzea.	
							Emaitzen txostena	Emaitzen amaierako txostena idaztea.	
							Koordinazioa	Emaitzak (tailerrak eta bestelako ekarpenak) Plana idatzi duen taldeari itzultzea, azter dezan.	
3. Emaitzak itzultzea. Prozesua ixtea						Iraupena / Ordutegia			
						18,30 h	Muntaketa	Aretoa, materialak eta bitartekoak prestatzea.	
						19,00 h	Harrera eta saioa aurkeztea	Ongietorria. Bileraren planteamendua.	
						19,10 h	Emaitzak	Emaitzak itzultzea: proposamen teknikoari erantsitako proposamenak eta kanpoan gelditu diren proposamenak zergatik ez diren onartu arrazoitzea.	
						20,20 h	Ebaluazio globala eta itxiera.	Garatu den prozesuari buruzko gogobetetze maila ebaluatzea. Behin betiko agiria onesteko egitekoak diren izapideak. Prozesu parte-hartzailea ixtea.	
						20,30 h	Eskerrak ematea eta Otamena	Parte-hartzaileei eskerrak ematea. Azken agurra emateko otamena.	
Plana jendaurrean jarri izana iragartzea									
							Jendaurrean jarri izana jakinaraztea	Parte-hartzaileei plana jendaurrean jartzeko denboraldiari buruzko informazioa bidaltzea: datak, agiria eskuratzeko modua eta alegazioak bidaltzeko helbidea.	

Herritarrek naturagune babestuetan parte hartzeko prozesu bat ebaluatzeko irizpideak

- 1.- Parte-hartzeaz espero diren helburuak eta emaitzak garaiz definitu dira.
- 2.- Prozesuan parte hartu dutenek helburuak eta emaitzak ezagutu eta ulertzen dituzte.
- 3.- Funtzionamendu-arauak definitu dira, argi eta garbi azaldu dira eta prozesu osoan bete egin dira.
- 4.- Bitartekaritza taldea parte-hartzearen arduraduna eta dinamizatzaileria da, autonomia dauka entitate sustatzailearekiko, bai eta plana idatzi duen talde teknikoarekiko ere, eta egokitasunez koordinatu da biokin prozesu osoan.
- 5.- Herritarren parte-hartzearen hasiera eta amaiera argi eta garbi zedarrituta egon dira.
- 6.- Koordinazio eta komunikazio egokia izan da naturagunean eskumenak dituzten erakundeen eta sailen artean.
- 7.- Zehaztasunez identifikatu dira zer talde izango diren planean har daitezkeen neurrien onuradun eta kaltetun. Prozesuan parte hartzeko gonbidapena jaso dute eta zehatz-mehatz eman zaie aipatu onuren eta kalteen berri.
- 8.- Interes guztiak orekatasunez ordezkatuak egon dira, bat bera ere bazterrean utzi gabe.
- 9.- Parte-hartzaileek argi daukate zergatik jaso duten deialdia, eta, hala bada, nor ordezkatzeko duten eta zein diren aipatu ordezkartzaren erantzukizunak.
- 10.- Ekarpene funtsatuak eta dokumentatuak egiteko informazio garrantzitsua parte-hartzaileen ezaugarrietara moldatutako formatu ulergarrietan egon da eskura, eta informazio hori behar bezain garaiz iritsi da.
- 11.- Hautatutako tresnak alde interesdunen ezaugarrietara moldatu dira eta, horri esker, alde interesdunak prozesuan aktiboki aritu dira.
- 12.- Saio aktiboak egokiro antolatu dira (tokia, ordutegia, iraupena, deialdi-sistema...) eta behar adina giza baliabide eta material izan dira eskura saioak ongi garatzeko.
- 13.- Parte-hartzaile guztiek behar adina bide eta laguntza izan dituzte eskura, ekarpenak egiteko.
- 14.- Ekarpene egin dira aukera guztiak artean ere irekita zeudenean eta behin betiko erabakia hartu gabe zegoenean.
- 15.- Beste parte-hartzaileen ekarpenak ezagutzea erraztu eta jarrera desberdinen arteko eztabaida sustatu da irtenbide partekatuak bilatzeko.
- 16.- Ekarpene kalitateari eta egokitasunari esker, ekarpen asko amaierako agirian txertatu dira, eta horrek hasierako agiria nabarmen hobetu egin du.
- 17.- Parte-hartzeak balio izan du kudeaketarako informazio garrantzitsua biltzeko, irtenbide alternatiboak aurkitzeko eta erabaki hobeak hartzeko.
- 18.- Adostasun zabala lortu da helburuen inguruan eta onetsitako neurrien inguruan.
- 19.- Parte-hartzaileen ekarpenei erantzun zaie, ekarpenak zergatik hartu diren aintzat adierazita edo zergatik ez diren kontuan hartu azalduta.
- 20.- Kontratuzko akordioak sinatu dira edo amaierako agiriari atxikipene egin zaizkio.
- 21.- Plana gauzatuko da, kudeaketa hitzartuko neurri boluntarioetan oinarrituta; ez, ordea, derrigorrezko neurri arau-emaeletan oinarrituta.

- 22.- Parte-hartze aktiboa elkarriketa-giro eta errespetu-giro egokian egin da.
- 23.- Erabili diren dinamikei esker, eragileen arteko harremanak sustatu dira, iritzia orekatasunez trukatu dira eta kontserbaziorako aliantzak osatu dira.
- 24.- Parte-hartzaileen espektatibak bete dira.
- 25.- Parte-hartzaileek naturagune babestuari buruzko ezagutza hobetu dute eta, orain, naturaguneko balioak zaintzeko arazoak hobeki ulertzen dituzte.
- 26.- Parte-hartzaileen iritziz, emaitzak erabilgarriak eta zentzuzkoak dira.
- 27.- Mekanismo parte-hartzaileak aurreikusi dira, plana gauzatu bitartean bestelako ekarpenak txartatzeko, betiere lortzen diren emaitzen arabera.
- 28.- Hainbat mekanismo aurreikusi dira, aldeei planaren emaitzen berri emateko.
- 29.- Hainbat mekanismo aurreikusi dira, tokiko jabeak eta erkidegoak zuzeneko kudeaketari buru-belarri lotzeko.
- 30.- Behar adina baliabide daude prozesuaren kalitatea ebaluatzeko, eta metodologia planifikatu da eta tresna egokiak diseinatu dira prozesuaren fase bakoitzerako.

Bibliografia iruzkindua

- CAMPOS, S., et al., 2007: enREDando. Herramientas para la comunicación y la participación social en la gestión de la red Natura 2000. EUROPARC-España. Natura 2000 Sarea eraikitzeke prozesuaren aldeko eskuliburua, Sarea osatzen duten lekuetan komunikazioa eta parte-hartzea sustatzeko programen garapenean oinarrituta. Funtsezko alderdiak jorratzen ditu komunikaziorako eta parte-hartzerako planak eta tresnak taxutzeko, eta aplikaziorako adibide zehatzak ere bai.
- Comisión Europea, 20003: Participación ciudadana en relación con la Directiva Marco del Agua. Documento guía nº 8 de la Estrategia Común de Implantación de la Directiva Marco del Agua (2000/60/CE). DG de Medio Ambiente.
Agiri honek herritarren parte-hartzea definitzen du Urari buruzko Esparru Zuzentzarauaren testuinguruan eta, era berean, berariazko laguntza ematen du parte-hartzea praktikan nola jarri jakiteko. Halaber, hainbat jarraibide ematen dira kontsulta-prozesu bat egokiro antolatzeke, eta gardentasunez jokatu beharra azpimarratzen du, kontsulta nori egiten zaion eta zer konturi buruz argi izateke. Agiriak, aldi berean, azpimarratzen du garrantzitsua dela administrazio eskudunek interesdun guztien eskura informazio egokia eta erreferentziatzeko dokumentuak jartzea. Proposamen zehatzetako bat da hidrografia-arro bakoitzean informazio-gune bat sortzea informazioa kudeatzeaz eta zabaltzeaz arduratzeko. Bukatzeko, hainbat adierazle aurkeztu dira emaitzen txostenak eta ebaluazioa nola landu azaltzeko; halaber, behar-beharrezkoak diren tresnak azaltzen dira, prozesua parte-hartzaile guztientzat gardena izan dadin.
- GARCIA, S., 2003: Guía metodológica para la elaboración de los planes de gestión de los Lugares de Importancia Comunitaria (LICs) de Navarra.
Natura 2000 Sareko lekuak planifikatzeko gida da, Habitategi buruzko Zuzentzarauak ezarritako betebeharrak eta helburuak betetzeko. "Esparru logikoa" esaten zaion plangintza-tresna erabiltzen du, eta naturagune babestu orotan da aplikatzeko. Gidak dakarren metodologia-plangintzak aldaketa dakar Espainiako Estatuko naturagune babestuak planifikatzeko eredu tradizioaletara. Plangintza berriak, izan ere, naturagune bakoitzean kontserbatu beharreko objektuak hartzen ditu ardatz eta funtsezko osagai edo elementu gutxi batzuk aukeratzeko, kudeaketa elementu haietan taxutzeko, lekuaren osotasun ekologikoa lortze aldera, ekosistemetak osagai biotikoak zaintzeaz harantzago. Horrez gain, jarraibide sorta bat eskaintzen du, naturagune planifikatu jarraipena egiteko, kudeaketa moldagarriko eta kudeaketa hitzarturako.
- GRAMBERGER, M., 2006: Manual de la OCDE sobre información, consulta y participación en la elaboración de políticas públicas. OECD, Paris
Gida hau lagungarria da herritarren erabaki-prozesuetara bideratzeko egiturak garatzeko; horrela, informazioa eta aholkuak ematen ditu herritarren erabakietan parte har dezaten. Herritarren politika publikoen prestaketaren inguruko informazioa, kontsulta eta parte-hartzea bultzatzeko neurriak buruzko azterketa konparatibo onak biltzen ditu. Era berean, hainbat teknika eta tresna azaltzen ditu prozesu parte-hartzaile baten fase guztiak garatzeko. Bukatzeko, baliabideei eta bibliografiari buruzko zerrenda iruzkindu bat ere badakar, oso erabilgarria herritarren parte-hartzea eta ingurumeneko gobernantza hobetzeko.

- HARMONISING COLLABORATIVE PLANNING. HarmoniCOP, 2005: Aprender juntos para gestionar juntos. La mejora de la participación pública en la gestión del agua. Eskuliburu hau "Harmonising Collaborative Planning" proiektuaren emaitza da, Europar Batzordeak "Energia, Ingurumena eta garapen Iraunkorra" programa tematikoaren baitan sortua. Ibai-arroetako kudeaketako parte-hartze publikoari eta ikaskuntza sozialari buruzkoa da. Uraren kudeatzaileek idatzia da, Urari buruzko Europar Esparru Zuzentzaraua ezartzeko arduradunak baitira. Ideiak, ikuspegiak eta metodoak biltzen ditu, zertarako eta honetarako:

- Gizarte-eragileen artean konfiantza sortzeko.
- Jokoa dauden alderdiei buruzko ikuspegi bateratu bat garatzeko.
- Gatazkak konpontzeko.
- Teknikoki ezin hobeak diren irtenbide bateratuetara iristeko eta irtenbideok praktikara eramateko.
- Ibai-arroen kudeaketan "alde interesdun guztien inplikazio aktiboa" sustatzeko, Urari buruzko Esparru Zuzentzarauak dakartzan betebeharrekin bat.

Eskuliburuak, era berean, interesgarria da ibai-arroen kudeaketan dihardutenen beste pertsona batzuentzako edota bestelako natur baliabideen kudeaketan ari direnentzako.

- HERAS, F, 2002: EntreTantos. Guía práctica para dinamizar procesos participativos sobre problemas ambientales y sostenibilidad. Argitalpen honek gogoeta teorikoak eta ideia praktikoak dakartza, ingurumena parte-hartzearen bitartez hobetzen laguntzeko. Hizkuntza argia eta erraza erabilita, parte-hartzeari buruzko oinarritzako kontzeptu batzuk azaldu eta gogoeta orokorrak egiten ditu; parte-hartzea abian jartzerakoan zer alderdi kontuan hartu aztertzen du; gatazkak negoziatzeko eta konpontzeko teknika batzuk azaltzeaz gain, hainbat tresna ere proposatzen ditu ingurumen arloko arazoei buruzko eta iraunkortasunari buruzko prozesu parte-hartzaileak dinamizatzeko. Gidak, bukatzeko, bibliografia bat dakar, bai eta harremanetarako helbide erabilgarriak ere.

- HESSELINK, F. 2007: La Comunicación, Educación y Conciencia Pública (CEPA). UICN Comisión de Educación y Comunicación. Gida honek orientabidea eskaintzen du, hezkuntza eta komunikazio arloko esku-hartze sorta zabala non, noiz eta nola erabili jakiteko. Lau atal ditu: Zergatik behar dugu CEPA (hau da, Komunikazioa, Hezkuntza eta Kontzientzia Publikoa) eta nola hasi? Nola kudeatu sareak eta nola areagotu kontzientzia publikoa? Nola sartu funtsezko eragileak eta nola txertatu biodibertsitatea beste sektore batzuetan?, eta bukatzeko, Nola planifikatu komunikazioa era estrategikoan? Atal bakoitzak informazio generikoa, nabarmendu beharreko alderdiak eta adibide zehatzak ditu.

Internet estekak:

- The Guide to Effective Participation / The A-Z of Effective Participation.
<http://www.partnerships.org.uk/guide/AZpartic.html>
- ELGEren eskuliburua politika publikoekiko informazioari, kontsultari eta parte-hartzeari buruz
<http://browse.oecdbookshop.org/oecd/pdfs/free/4201144e.pdf>
- Hesselink, F.J. et al. Comunicación, Educación y Conciencia Pública. Una caja de herramientas para personas que coordinan las Estrategias y planes de acción nacionales sobre diversidad biológica. Montreal, 2007.
<http://www.cbd.int/cepa-toolkit/cepa-toolkit-sp.pdf>
- Espainiako Ingurumen Ministerioa (2005). Espainiako hezeguneetako planetarako orientabideak: Komunikazioa, Hezkuntza, Kontzientziatzea eta Parte-hartzea.
http://www.mma.es/secciones/formacion_educacion/grupos_ceneam/conserv_humedales /pdf/humedales.pdf

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA



European Union
European Regional Development Fund

